



Euskadiko Kultura eta Sormen Industriak

—
Oraina
eta Geroa

2014



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2015eko iraila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Sinergiak Social Innovation (UPV/EHU) - 2014

Inprimaketa eta koadernaketa ...

Lege-gordailua: VI 000-2015

Euskadiko Kultura eta Sormen Industriak: Oraina eta Geroa 2014



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

AURKEZPENA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailaren eskariz, Sinnergiak social innovationek osaturiko txostena dugu honako hau.

Bizi garen garai honetan, sormena eta kultura denon bistan daude, kultura-produktuak eta -zerbitzuak zabaltzen eta indartzen ari dira, eta gero eta ugariagoak dira kultura- eta sormen-jarduerak.

Jarduera horietako askok helburu eta emaitza ekonomikoak bilatzen dituzte, eta, beraz, "kultura- eta sormen-industriak" izendapena sortu da. Kontzeptu hori finkatu egin da instituzio publikoen adierazpenetan eta agendetan.

Kontzeptu hori onartu egin dute adituen sektore zabalek, hainbat eratako kongresutan eta jardunalditan aipatzen da, eta izen horixe daramate argitalpen eta txosten askok. Hots, sendotzen eta zabaltzen ari da eta, hala, eztabaida aberatsa sortu da kulturaren eta sormenaren izaerari eta zentzuari buruz.

Kulturaren eta sormenaren paper sozialari buruzko eztabaida ez da, beraz, fenomeno zehatz bat definitzeko moduak kontrastatzea baizik, eta estatus, eduki eta rol sozial jakin bat ematea. Ahots ugari hartzen dute parte

eztabaida horretan, eta, alderdi teknikoetan ez ezik, kulturari eta sormenari buruzko kontzeptu desberdinetan oinarritzen da.

Modu esplizituagoan, "kultura- eta sormen-industriak" izendapenak kultura- eta sormen-jarduera ulertzeko modu berri bat adierazten du, diskurtsoak aurrez aurre jarriz. Beraz, eztabaida kontzeptuala, soziala eta politikoa da, eta, hura garatzean, aurrez aurre jartzen ditu gizarte- eta kultura-balioak ere.

Premisa horietatik abiatuz, azpimarratu beharra dago gizarte guztiek sortzen dituztela hainbat gairi buruzko praktikak, jakintza eta diskurtsoak, baina ikuspegi desberdin horiek beren auziak argitzen dituzten bitartean, ukatu ezin diren agerpenak ematen dira errealtatean.

Kultura- eta sormen-industriak gure inguruaren agerpen bat dira, eta hainbat pertsonaren eta erakunderen bitartez azaltzen da. Batzuek zein besteek helburu ekonomikoak dituzten kultura- eta sormen-jarduerak egiten dituzte. Hori guztia produktuen eta zerbitzuen merkatu baten baitan; kasu honetan, sormen- eta kultura-produktuen eta -zerbitzuen merkatu baten baitan.

Txosten honek Euskal Autonomia Erkidegoko kultura- eta sormen-industrien errealitate horri heltzen dio. Errealitate eta testuinguru hori aztertu eta ulertu nahi dugu; hau da, diagnostikatu. Horretarako, dimentsio kuantitatiboak eta kualitatiboak erabili ditugu.

Horretaz gainera, baina, Txosten honek gomendio batzuk eskaini nahi ditu, instituzioen jarduna orientatzeko eta gidatzeko. Ildo horretan, Txosteneko gomendioek ez diote ezikusia egin nahi -eta ezin diote egin ere- zirriboratu berri dugun erreferentzia-esparruari. Politika publikoak diseinatzeko orduan hori ez ezagutzeak, ezikusia egiteak edo aintzat ez hartzeak porrotera darama.

EDUKIEN TAULA

1 OHAR OROKORRAK

10

1.1	Kulturaren eta sormenaren ekonomia	11
1.2	Kultura- eta sormen-industriak: kontzeptua	13
1.3	Kultura- eta sormen-industriak: sektorearen egitura	15
1.4	Kultura- eta sormen-industriak: sektorearen estatistika	17
1.5	Euskadiko KSlak: egungo errealitatea eta etorkizuna duten enpresen paradigma	19

2 ALDERDI METODOLOGIKOAK

21

2.1	Helburuak eta faseak	22
2.2	Baliabideak	23
2.3	Txostenaren egitura	26

LEHENENGO KAPITULUA

28

Euskadiko KSlen enpresa- eta ekonomia-egituraren hastapenak

3 EUSKADIKO KSIEN EGITURA (2007-2012)

29

3.1	Enpresa-kopuruaren bilakaera (2007-2012)	30
3.2	Enpresa-kopuruaren bilakaera, izaera juridikoaren arabera (2007-2012)	31
3.3	Enpresa-kopuruaren bilakaera, UNCTAD kategoriaren arabera (2007-2012)	32
3.4	Enpresa-kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (2007-2012)	33
3.5	Enpresa-kopuruaren bilakaera, langile-kopuruaren arabera (2007-2012)	34
3.6	Euskadiko KSlen egiturari buruzko daturik esanguratsuenak (2007-2012)	36
3.7	Euskadiko KSlen egitura: Laburpena	37

4 EUSKADIKO KSIEN ENPLEGUAREN BILAKAERA (2007-2012)

38

4.1	Enplegu osoaren bilakaera (2007-2012)	39
4.2	Enplegu osoaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (2007-2012)	41
4.3	Enplegu osoaren bilakaera, UNCTAD kategoriaren arabera (2007-2012)	43
4.4	Sortutako soldatapeko enpleguaren bilakaera, izaera juridikoaren arabera	44
4.5	Euskadiko KSlen enpleguaren bilakaerari buruzko daturik esanguratsuenak (2007-2012)	46
4.6	Euskadiko KSlen enpleguaren bilakaera: Laburpena	46

5 EUSKADIKO KSIEN SEKTOREAN SORTUTAKO BALIO ERANTSI GORDINAREN BILAKAERA (2007-2012)

5.1	Sortutako Balio Erantsi Gordinaren bilakaera (2007-2012)	48
5.2	Sortutako Balio Erantsi Gordinaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (2007-2012)	50
5.3	Sortutako Balio Erantsi Gordinaren bilakaera, izaera juridikoaren arabera(2007-2012)	51
5.4	Sortutako Balio Erantsi Gordinaren bilakaera, UNCTAD kategoriaren arabera (2007-2012)	52
5.5	Euskadiko KSlen Balio Erantsi Gordinaren bilakaerari buruzko daturik esanguratsuenak (2007-2012)	56
5.6	Euskadiko KSlen Balio Erantsi Gordinaren bilakaera (2007-2012): Laburpena	57

BIGARREN KAPITULUA

Euskadiko KSlen antolatzeko gaitasunak eta praktikak

6 GIZA KAPITALAREN EZAUGARRIAK

6.1	Langileen osaera, sexuaren arabera	60
6.2	Langileen osaera, adinaren arabera	61
6.3	Langileen prestakuntza-maila	62
6.4	Langileen esperientzia-maila	63
6.5	Enpresek garatutako prestakuntza-jarduerak	64
6.6	Euskadiko KSlen giza kapitalaren ezaugarriak esanguratsuenak	66
6.7	Euskadiko KSlen giza kapitala: laburpena	66

7 LANKIDETZARAKO KULTURA KSI SEKTOREKO ENPRESETAN

7.1	Lankidetzajardueren garapena	68
7.2	Lankidetzajardueren orientazioa	70
7.3	Lankidetzajarduerak: erreferentziako eremu geografikoa	72
7.4	Lankidetzajarduerak: konfiantza teknikoak	75
7.5	Euskadiko KSlen sektoreko lankidetzari buruzko daturik esanguratsuenak	77
7.6	Euskadiko KSlen sektoreko lankidetzajarduerak: Laburpena	78

8 BERRIKUNTZAREN GARAPENA

8.1	Berrikuntzajardueren sorrera	80
8.2	Berrikuntzajardueren mota	82
8.3	Berrikuntzen definizioa eta ezarpena	84
8.4	Berrikuntzajarduerak garatzeko oztopoak	87
8.5	Euskadiko KSlen sektoreko lankidetzari buruzko daturik esanguratsuenak	89
8.6	Euskadiko KSlen sektoreko lankidetzajarduerak: Laburpena	89

HIRUGARREN KAPITULUA

Euskadiko KSlen kokapen ekonomikoa

90

9 DIRU-SARRERAK, BEZEROAK, MERKATUAK

91

9.1	Enpresen diru-sarrerak	92
9.2	Enpresen bezeroak	95
9.3	Merkatu berriekiko orientazioa	99
9.4	Merkatu berrietan sartzeko zailtasunak	101
9.5	Euskadiko KSlen kokapenari buruzko daturik esanguratsuenak	104
9.6	Euskadiko KSlen diru-sarrerak, bezeroak eta merkatuak	105

10 FINANTZATZEKO ETA JARDUTEKO ZAILTASUNAK

106

10.1	Kanpoko baliabideak lortzea	107
10.2	Instituzioetako finantza-iturriak eskuratzeko zailtasunak	110
10.3	Bestelako finantza-iturriak eskuratzeko zailtasunak	113
10.4	Enpresen jarduerak eta haiek garatzeko zailtasunak	116
10.5	Euskadiko KSlen finantzatzeko eta jarduteko zailtasunei buruzko daturik esanguratsuenak	119
10.6	Euskadiko KSlen finantzatzeko eta jarduteko zailtasunak	120

8

LAUGARREN KAPITULUA

Euskadiko KSlek sektoreaz duten pertzepzioa:

Esperientziak, jarrerak, iritziak

122

11 ENPRESA- ETA JARDUERA-IKUSPEGIA

123

11.1	Enpresaren kokapena	124
11.2	Enpresaren zailtasunak	126
11.3	Jardueraren ezaugarriak	128
11.4	Euskadiko KSlen enpresa- eta jarduera-ikuspegiari buruzko daturik esanguratsuenak	131
11.5	Euskadiko KSlen enpresa- eta jarduera-ikuspegia	131

12 INGURU INSTITUZIONALA ETA ADMINISTRATIBOA

132

12.1	Instituzioen, erakundeen eta langileen konfiantza	133
12.2	Instituzioen, erakundeen eta langileen ekarpena	136
12.3	Enpresen zenbait premia	138
12.4	Enpresen hobekuntza-lan posibleak	140
12.5	Euskadiko KSlen inguru instituzionalari eta administratiboari buruzko daturik esanguratsuenak	142
12.6	Euskadiko KSlen inguru instituzionala eta administratiboa: Laburpena	143

BOSGARREN KAPITULUA

EUSKADIKO KSlen ORAINA ETA GEROA

144

13 ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

145

13.1	KSlen sektorea diagnostikatzeko patrioiak	146
13.2	KSlen indarrak eta ahuleziak	155
13.3	KSlen sektorea zifratan (2012)	156
13.4	Politika publikoak erabakitzeko zalantzak	158
13.5	Instituzioen jarduna gidatzeko gomendioak	160

9

ERANSKINAK

163

	Grafikoen aurkibidea	164
	Taulen aurkibidea	166
	Aipatutako erreferentzia bibliografikoak	168
	Kontsultatutako datu-baseak	169
	UNCTAD azpisektoreen osaera	170

1
—

OHAR OROKORRAK

1.1 Kulturaren eta sormenaren ekonomia

Ikuspegi desberdin askotatik begiratuta, kulturaren kontzeptua izugarri aldatu da azken hamarkadetan. Kulturak berezkoa duen esanahia gainditu du, eta gero eta lotura handiagoa du ekonomiarekin eta enpleguarekin. Horrela, “*kultura eta industria kulturala elkarri loturik daude; masa-kulturaren premiak modu industrialean asetzen dira (masa-produkzioaren bidez), eta premiak eta haiek asetzeko moduak ere industrializatuak dira*”.¹

EEgia da, baina, kulturak eta sormenak ekonomiarekin duen harremanak ezinikusia sortu duela lotura hori negatibotzat hartzen dutenen artean. Ez dira gutxi izan harreman horren izaera gaiztoa eta negatiboa salatu dutenak, kultura- eta sormen-jarduerak logika ekonomikoaren mende daudelakoan. Nolanahi ere, kulturaren eta sormenaren ekonomia barruraino sartu da tokiko, eskualdeko eta nazioarteko politika publikoen agendan. Hona hemen adibide batzuk:

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako *Kultura- eta sormen-industriak: eztabaida teorikoa ikuspegi europarretik*² dokumentuak honela dio: “Egun, Kultura- eta sormen-industriak oso garrantzitsuak dira, balio erantsiaren,

sormenaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egin duten lurraldeetako hazkunde ekonomikorako politiken erdigunean baitaude”. Antzeko argudioak agertzen dira Espainiako gobernuaren Kultura eta Sormen Industrien Sustapen Plana delakoaren sarreran: “Kultura- eta sormen-industriek gogotik bultzatzen dute berrikuntza ekonomikoa eta soziala Espainiako ekonomiaren beste sektore askotan”.³

Europako Batzordearen Liburu Berdeak, berriz, honela dio: “KSI gehien-gehienak mikroenpresak eta enpresa txikiak eta ertainak dira, bai eta autonomoak ere, eta bertikalean edo horizontalean integratutako enpresen ondoan bizi dira. Nazioarteko enpresa handiak lider diren sektoreetan ere, mikroenpresak eta enpresa txikiak ezinbestekoak dira sorkuntzarako eta berrikuntzarako. Enpresa horiek izaten dira lehenak arriskatzeko eta berrikuntzak ezartzen, eta funtsezkoak izaten dira talentu berriak aurkitu, joera berriak garatu eta estetika berriak diseinatzeko orduan.”⁴

Kulturaren eta sormenaren arteko integrazio hori -sortzen hasi berria eta batzuetan ikusezina- sektore oso zatitu bat ari da egituratzen, eta

¹ MAISO, J. (2011): *¿Qué significa hoy teoría crítica de la industria cultural?* Constelaciones. *Revista de Teoría Crítica* nº 3. Abendua. 292-314 orriak. 295 orria.

² Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2014): *Kultura- eta sormen-industriak: eztabaida teorikoa ikuspegi europarretik*. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 5. orria.

³ Espainiako Gobernuak. Kultura Ministerioa. (2011): *Plan de Fomento de las Industrias Culturales y Creativas*. Secretaría general Técnica. Subdirección General de Publicaciones, Información y Documentación. Madril. 8. orria.

⁴ Europar Batzordea. (2010): *Libro Verde: liberar el potencial de las industrias culturales y creativas*. 27.4.2010. (COM) 2010. 183 amaieran. Brusela.

zaila da zehatz detektatzea, aztertzea eta ebaluatzea, bai gaur egungoari bai etorkizunari begira. Gainera, Ideas Fundazioaren Txostenak dioenez⁵, "sormen-industriak marjinalizat hartu izan dira luzaroan, horrek analisi-, estatistika- eta azterketa-falta eragin du sormen-industrien eta garapen ekonomikoaren arteko harremanari buruz, eta oso zaila da datu historikoak aurkitzea KSlen nazioko eta nazioarteko bilakaerari buruz".

Beraz, paradoxa agerikoa da. Ia inork ez du zalantzan jartzen sektore berri honen indarra eta potentzial ekonomikoa; dena dela, hain konplexua denez, lehenbailehen heldu beharreko hiru zailtasun mota agertu dira:

A

Kultura- eta sormen-jarduerak ez dira sartu nahi izaten merkatuaren logikan, enpresa-jarduera moduan, lehiakortasunaren eta errentagarritasunaren baitan, hau da, arrazionaltasun ekonomikoaren baitan.

B

Kontsentsua egon behar du sektoreko kideei, eragileei, jarduerari, edukiei eta abarri buruz; hots, kideak eta haien artikulazioa adostu behar da, bai eta sektorea mugatu ere.

C

Izugarri konplikatu da sektorea detektatu, identifikatu, aztertu eta ebaluatzea hain ahul artikulatuta dagoenean hainbeste mikroerakunderen inguruan, eskala txikiko ekonomia informal baten baitan, eta haiek estatistika ofizialetan ordenatzeko hainbeste adiera eta kode daudenean.

Hiru zailtasun mota horiek sektorea aztertzeko kontsentsurik eza islatzen dute, eta lehia eta tirabira dago ikuspegi kontzeptual desberdinen artean (A kasua); era berean, ez dago nazioarteko sailkapen homogeneorik eta homologaturik kultura- eta sormen-industrietako jarduerari buruz, hau da, sektorearen barne-

egituraren definizio partekaturik (B kasua); eta, beraz, ez dago datu konparagarriak lortu ahal izateko estatistika-erregistro bateraturik (C kasua).

Gure ustez hain garrantzitsuagoak diren hiru arazo horien baitan garatu da lan hau, baina ez dute ezinezkoa egin behar hemen garatzera goazen azterketa. Nolanahi ere, muga eta zailtasun horiek jarrera bat hartzera behartzen dute aurrez, betiere gure orientazioaren barruan. Horixe egingo dugu hurrengo lau ataletan (laugarrena, Euskadiko egoerari buruzkoa).

1.2

Kultura- eta sormen-industriak: kontzeptua

Gaur egun, nazioarteko politika publikoetan nahiz erreferentziako erakundeetan, erabat onartuta dago KSlak sektore ekonomiko estrategikoa eta dinamikoa direla, bai estatu-mailan bai eskualde-mailan. Horrek ez du esan nahi kultura eta sormena alderdi ekonomikora eta industrialera soilik mugatu behar direnik. Berez, kultura- eta sormen-jarduerek balio ekonomikorik gabeko adierazpenak ere sortzen dituzte; hots, ez dute proiektzio ekonomikorik eta unibertsalik kultura- eta sormen-jarduera guztiek.

Mugatze horretatik abiatuta, NBE, UNESCO eta Europar Batasuna bat datoz : kultura- eta sormen-jarduera ugarik balio ekonomikoa sortzen dute eta merkatu-helburuak dituzte⁶. Hain zuzen ere, Europako esparruan, Europako Batzordeak politika publikoei bideratutako hainbat programatan planteatu du -batik bat Europa 2020 estrategian- sormen-industriak funtsezkoak direla eskualdeko eta/edo estatuko ehunean. Innovation Union 2020 ekimen enblematikoaren ustez, Kultura eta Sormen Sektorea estrategikoa da, garrantzi kulturalagatik eta sozialagatik ez ezik, potentzial berritzaile handia duelako eta gero eta pisu handiagoa duelako ekonomian.

Hala, politika publikoen ikuspegitik, esku-hartzeak ez du zertan mugatu beharrik Kultura Sailen eskumen-esparrura: bere zeregina zabaldu egiten da beste eskumen-arlo batzuetara, hain zuzen ere Industriadara edo Enplegura. NBEren aipatutako txostenak ere⁷ KSlen politika publikoak modu partekatuan diseinatzea gomendatzen du, sektoreak potentzial handia

duelako kulturean, ekonomikoan eta enplegu-sorreran. Ohar hori ez da hutsaren hurrengoa: kultura- eta sormen-industrien kontzeptuak sortzen dituen konnotazio positiboak eta negatiboak buruzko debate teoriko aberatsa onartzeaz gain, ezin zaion ezikusirik egin KSlak ekonomian eta enpleguan duten inpaktuari.

Sektore honek enplegua sortzen du, ekarpen handia egiten dio BPGd-ri, bere enpresen tamaina eta izaera juridikoak bereziak dira, potentzial berritzaile handia du, eta balioa ematen du zuzenean (sektorean bertan) eta zeharka (berarekin harremanean dauden beste sektore ekonomikoen bidez).⁸

Gogoeta horietatik egiaztatzen denez, instituzio publikoek onartu egiten dute sektore ekonomiko berri eta bereizi bat dagoela, eta nabarmena da sektore horrek ekonomian eta enpleguan duen inpaktua. Hori horrela, lehenbailehen identifikatu behar dira bertako eragileak, jarduerak, harremanak, eskakizunak eta premiak, sendotu eta zabaldu dadin.

Horretaz gainera, kultura- eta sormen-jarduera askok duten izaera ekonomikoa eta merkatu-proiektzioa onartzeak zenbait sektoretan sortzen dituen kontraesanen edo kezken aurrean, gogorarazi beharra dago KSlak ez direla oztopo irizpide ekonomikorik gabeko kultura- eta sormen-jarduerentzat eta kulturaren eta sormenaren beste gune batzuentzat, eta politika publikoek ez dituzte zertan baztertu kulturaren eta sormenaren bestelako adierazpen horiek, seguru asko estrategia dual baten bidez eta administrazioko hainbat sailek parte hartuz.

⁶ Azter bedi, adibide gisa, UNCTAD (Nazio Batuen Merkataritza eta Garapenari buruzko Konferentzia) (2008): *Creative Economy Report*. ONU. New York; UNESCO (2009): *Framework for Cultural Statistics*. UNESCO, Institute of Statistics. Paris; Europar Batzordea (2011): *Creative Europe - A new framework programme for the cultural and creative sectors (2014-2020)* COM 2011 786/2.

⁷ UNCTAD (Nazio Batuen Merkataritza eta Garapenari buruzko Konferentzia) (2008), op. cit.

⁸ Hainbat txostenek egiaztatu dute zer-nolako ekarpena egiten dien sektoreak ekonomiari eta enpleguari, hala nola hauek: POWER, D. (2011): *Priority Sector Report: Creative and Cultural Industries*. The European Cluster Observatory; POLICY HANDBOOK (2012). Working Group of EU Members States Experts; HIGGS, P., CUNNINGHAM, S. y BAKHSHI, H. (2008): *Beyond the creative industries: Mapping the creative economy in the United Kingdom*. NESTA. Londres.



1.3

Kultura eta Sormen Industriak: Sektorearen egitura

Oro har, KSlen sektorea eraikitzen ari da, eta kultura- eta sormen-ekoizpena konbinatu nahi dira errentagarritasun ekonomikoarekin; horrek berekin dakar enpresaren kontzeptua, edo merkatu-irizpideak dituen egitura mota bat. Hastapen orokor horrek bi arazo jartzen ditu mahai gainean.

Alde batetik, "kultura" eta "sormena" hitzak erabili dira helburu ekonomikoak nahiz ez-ekonomikoak dituzten errealitateak eta jarduerak izendatzeko, bai eta enpresa-egitura bat dutenak eta ez dutenak izendatzeko ere; horrek nahasketa sortu du eta sortzen du kulturaren eta sormenaren esparru zabaleko eragileen eta analisten artean. Geure ustez, baina, jardueraren izaera industrialia argitu behar da eragileen enpresa-asmoak ikusita: inbertsioak, produktuen eta/edo zerbitzuen ekoizpena, merkatu-orientazioa eta dauden merkatuak zabaltzea, lehiakortasuna hobetzeko estrategiak, funtsen bilaketa, beste enpresekiko harremanak, etab.

Praktikan, ezaugarri horiek egoteak ziurtatzen ditu jardueraren izaera eta helburu ekonomikoak. Antolaketako eta prozedurako ezaugarri horiek dira, beraz, jardueraren izaera ekonomikoa eta industrialia mugatzen dutenak. Kultura- eta sormen-industrien ekonomiarako eta merkaturako orientazioa berri samarra denez, baina, sektorearen enpresa-izaera oso ahula da, eta ezezagutza dago enpresa-kudeaketari, merkatuen ezaugarriari edo negozio-eredu desberdinei buruz. Ildo horretan, badaude beste bi zailtasun ere: enpresa horietako asko txikiak dira, eta kultura- eta sormen-jarduera desberdin ugari daude.

Funtsean, KSlen sektorean hazten ari da enpresa-ehuna, baina ez dago sektorearen nortasun sendorik, ez barrurantz ez kanporantz. Sektore ekonomiko honek zailtasunak ditu, beraz, bere burua ezagutzeko eta ezagutarazteko.⁹

Bigarrenik, eta hein batean horrekin lotuta, sektorea sentitzeko, bere ezaugarriez ohartzeko eta politika publikoak taxuz bideratzeko, argitu beharra dago nor den eta nor ez den KSlen parte. Arazo hori ez dago batera argi, eta nahasmena eta tirabira sortzen du. Badago horretarako arrazoirik: aniztasuna, jarduera tradizionalak eta berriek bat egitea, aldaketa sozialen eta teknologikoen ondorio diren jarduera berriak, herrialdeen eta/edo eskualdeen arteko diferentziak, etab.

Hori dena horrela, sektorearen jarduerak eta egitura mugatzeko orduan, proposamen, taldekatze eta sailkapen ugari egon dira. Berrito ere esparru komunik gabe gaude, beraz. Geure ustez, alde batean, kultura- eta sormen-jardueren esparru emankorra, anitza eta mugatzen zaila dago; horrek, baina, jarrera paralizatzaileak eragin ditzake, sektorearen egitura aztertzea galaraziz, dauden egitura-ereduak inperfektuak edo hobetu daitezkeenak izan arren.

Horren inguruan, eta sektorea sailkatzeko eta egituratzeko proposamen guztien artean, honako hauek dira azpimarragarrienak, eta garapen, moldaketa eta konbinazio ugari izan dituzte:

A

DCMS¹⁰ izeneko proposamenak hamahiru azpisektore bereizi zituen, eta aitzindaria izan zen sektorea artikulatzen eta garatzen.

B

KEA txostenak¹¹ zirkulu zentrokideen eredu bat planteatu zuen, sektorearen erdigunetik beste sektore ekonomiko batzuetarantz joanez eta balioa sortuz.

C

Hiruko sortzailearen ereduak¹² enplegua erabiltzen du KSlak neurtzeko adierazle nagusi moduan, eta beste sektore ekonomikoetan sortutako balioan jartzen du arreta.

D

UNCTAD-ek¹³ lau talde eta bederatzia azpisektoreko sistema bat proposatzen du. Gainera, herrialdeek edo eskualdeek azpisektore berriak irekitzeko modua ematen du.

Horretaz gainera, UNCTADen proposamenak zailtasunak ditu instituzioen estrategia eta ekintza aktibatzeke orduan. Izan ere, UNCTADek bere sailkapenaren arabera soilik identifikatzen du sektorea.

Ikusteko dago UNCTADen sailkapenean sartzen diren hainbeste erakunde eta jarduera desberdinen multzotik definitu eta kudeatu ote daitezkeen sektorea egun eta gerora aurrera eraman eta artikulatu ahal izateko politikak.

Berriro helduko diogu gai horri txosten honen bosgarren kapituluan.

Edozein aukerak dituen mugak gorabehera, UNCTAD proposamenak dirudi egokiena, garaturik baitago eta lehenagoko proposamenak integratzeko borondatea baitauka. Bestalde, UNCTADek sailkapen-tresna argi bat eskaintzen du, eta bere jarraipenak pixkanaka garatzen ditu sektorearen dinamikari buruzko nazioarteko estatistikak. Aukera horrek, ordea, ez du gaitzen sektorearen problema enpiriko nagusia: metodologiarik eza eta, beraz, estatistika homologaturik eta homogeneorik eza herrialde eta eskualde guztietan.

10 DCMS (1998): Department for Culture, Media and Sport: Creative industries mapping document. Creative Task Force. Government. U.K.

11 KEA European Affairs (2006): The Economy of Culture in Europe. Report prepared for the European Commission Directorate-General for Education and Culture, Media Group. Brusela.

12 HIGGS, P., CUNNINGHAM, S. and PAGAN, J. D. (2007), Australia's Creative Economy: Basic evidence on size, growth, income and employment, Technical Report, Faculty Research Office, CCI.

13 UNCTAD (Nazio Batuen Merkataritza eta Garapenari buruzko Konferentzia) (2008), op. cit.

1.4

Kultura eta Sormen Industriak: sektorearen estatistika

Aurreko orrietan adierazitako moduan, KSlen sektorea nabarmentzen hasi denetik hona, ahalegin ugari egin dira hura definitu, mugatu eta ezagutzeko, baina ez da kontsentsu nahikorik lortu sektorearen kontzeptuari eta egiturari buruz, eta ezin izan da KSlak enpirikoki aztertzeko eredurik formalizatu eta homologatu. Beraz, metodologia eta irizpide komunik ezean, ez dago sektoreari buruzko estatistika zehatzik eta konparagarririk.

Proba enpiriko homologaturik eta konparagarririk ez egotea eragin dezakete honako arrazoi hauek:

A

Kultura eta Sormen Industriekiko interesa iragan mendearen amaieran jaito zen, baina horrek ez du esan nahi lehenago jarduera ekonomikorik egon ez zenik kulturaren eta sormenaren munduan. Batik bat azken hamabost urteotan, baina, garrantzia hartuz joan dira berariazko sektore baten existentziari buruzko diskurtsoak, haren osagaiak identifikatzeko eta multzokatzeko proposamenak, potentzial ekonomikoaren kontzientzia, haren inpaktuetako batzuk neurtzeko estatistika partzialak, etab.

B

KSlen industria-ehunean nagusi dira ekoizpen-unitate txikiak, nahikoa opakuak, enpresa-kultura ahulekoak, eta oso heterogeneoak ekoizpen- eta sozietate-ezaugarriei dagokionez.

C

Azken urteotan azterketa ugari egin dira KSlen garrantzi kuantitatiboari buruz, barne-ezaugarriei buruz edo ekonomiari eta enpleguari egiten dioten ekarpenari buruz, baina emaitzak partzialak dira eta nekez

orokortu daitezke. Errealitate lauso, gutxi identifikatu eta mugatu baten gainean aritu izana da azterketa horien alderdirik ahulena. Gabezia horiek okertu egiten dituzte azterketa horien estimazioen eta emaitzen oinarriak.

D

KSlen kultura- eta sormen-jarduerak modu zehatz, egoki eta adostuan mugatzeko ahaleginak alferrik izan dira orain arte. Horri dagokionez, bistan da edozein kolektibori buruzko emaitza konparagarriak aurkeztu ahal izateko baldintza minimoa eta saihetsezina dela haren osagaiak ongi definitzea.

E

Estatistikaren ikuspegitik, KSlen sektoreak ez du berariazko mugatzerik eta tratamendurik nazioarteko azterketa estatistiko ofizial gehienetan. Kultura- eta sormen-industriak sakabanaturik egoten dira erreferentziako hainbat sektoretan, sarritan jarduera desberdinetan.

Teknikoki, edozein sektorek -ekonomikoa izan edo ez izan- tratamendu estatistiko egokia izan dezan -neurketa berdina eta ondoz ondokoak posible egiten dituena-, zehatz definitu eta identifikatu behar da. Zehatz adierazi dugun moduan, ez da halakorik gertatzen KSlen kasuan. Sektorea ez dago ongi definituta eta identifikatuta, eta herrialde askotako estatistika ofizialek ez dute modu autonomoan aztertzen.

Laburbilduz, estatistika ofizialari dagokionez, ongi mugatutako unibertsorik ezean, edozein datu-bilketa inperfektua da. Ikerketari dagokionez, ongi zehaztutako unibertsorik ezean, ezin da lagin adierazgarririk mugatu, eta, beraz, laginaren gaineko emaitzak eta ondorioak ezin dira estrapolatu unibertso osora. KSlen kasuan, oraindik konpondu gabe daude funtsezko bi

1.5

Euskadiko KSIak: Egungo errealitatea eta etorkizuna duten enpresen paradigma

Aurreko ataletan asko azpimarratu ditugu KSlen mugak ezartzeko eta identifikatzeko zailtasunak. Euskadin ere zabalduta dago sektorea oraindik oso azaletik ezagutzen dugun irudipena, eta ez dakigu ziur zein diren haren dimentsio erreala, egitura, antolaketa, praktikak, itxaropenak, premiak, etab.

Laburtuz, eta Euskadiko sektorearen berariazko ezaugarria ez den arren, galdera asko daude ikuspuntu objektibotik (datuak) eta subjektibotik (pertzepzioak).

Nazioarteari aplikatu ahal zaizkion argudio berek balio dute Euskadiko KSlen errealitatea ulertzeko ere. Argudio multzo horren ondorio nabarietako bat froga enpirikoen urritasuna eta eskasia da. Alderdi enpirikoari begira, bide luzea eta neketsua dago egiteko.

XXI. mendearen bigarren hamarkada honetan, baina, krisi ekonomikoaren ondorioz, birpentsatu eta birformulatu egin behar dira garapena eta onura sor dezaketen sektoreak eta enpresa-jarduerak, baita enpresaren kontzeptua birplanteatu ere.

Esparru horretan, KSlek -beren produktu eta zerbitzu bereziekin- gero eta ekarpen handiagoa egiten diote ekonomiari, eta gero eta arreta gehiago jasotzen duten abantailak erakusten dituzte.

Euskadiri dagokionez, azken urteotan dezente ugartu dira KSlei buruzko balorazioak, gogoetak, azterketak, ikasketak, argitalpenak, proiektuak, biltzarrak eta bestelako agerraldiak. Era horretan, gure inguru hurbilean, KSIak hor egoteaz gain, haien ondorioei buruz eta sortzen dituzten

dinamikei buruz interesatu dira denetariko instantziak. Horretaz gainera, sektoreak gero eta arreta handiagoa jasotzen du instituzioen aldetik.

Formatu ugari inpaktuak pilatu dira -normalean sakabanatuak diren ekimenen ondorio (instituzionalak, profesionalak, akademikoak, sozialak, etab.)-, bakoitza bere enfasiarekin, eta KSlei buruzko informazio asko samar sortu da.

Hala, KSlen sektoreak etorkizuna duela esan liteke. Horregatik, gaur egungo lehentasuna ahalik eta ebidentzia enpiriko gehien lortzen da. Ez dugu uste adierazpen horrek azalpen asko behar duenik. Nola ez dugu ezagutu nahiko sektorearen dimentsioa, lurralde-banaketa, bere enpresa-egituraren ezaugarriak, ekonomiari eta enpleguari egiten dion ekarpena? Ez al da aberasgarria ezagutzea haren harreman-sarea, bezeroen osaera eta jatorria, finantza-iturriak, problemarik larrienak, premiarik minenak?

Laburtuz, OHAR OROKOR hauetan oinarritzen da ikerketa honen helburu nagusia. Produktu enpiriko bat lortu nahi dugu, sakontasun apur batez eta ahalik eta modurik fidagarrienean funtsezko informazioa sor dezan Euskadiko KSlen sektoreari buruz. Politika publikoak erabakitzeko balio duen produktu enpiriko bat.

2

—

ALDERDI
METODOLOGIKOAK

2.1 Helburuak eta faseak

Ikerketa honen bidez, hobeto ezagutu nahi da Euskadiko KSlen sektorea. Helburu horri begira, ikerketa hau enpirikoa, deskribatzailea eta analitikoa da. Euskadiko KSlei buruzko informazio orokorra eta zehatza ematen duen azterketa sistematiko bat da, eta haien beharren arabera politika publikoak diseinatzeko modua eman behar du. Horretarako, eta lortu nahi dugun informazio motaren arabera, bateko edo besteko iturriak erabili ditugu.

Euskadiko KSlen neurria eta ezaugarriak identifikatu eta definitzeko eraiki dugu datu-base berri bat (gero azalduko den moduan, hiru Foru Ogasunek emandako erregistroetan oinarriturik). Datu-base horretako informazioa 2007tik 2012ra artekoa da, biak barne.

Kontua ez da soilik, baina, sektorearen ezaugarriak ahalik eta zehatzen identifikatzea. Ikerketa honen bidez, eragileen iritzia, jarrerak eta ibilbideak ere ezagutu nahi dira: hau da, beren buruaz eta sektoreaz duten pertzepzioa. Horretarako, inkesta erabili dugu (zehatz azalduko ditugu bere ezaugarriak). Inkestaren bidez lortutako informazioa, beraz, 2014ri buruzkoa da, orduan egin baitzen landa-lana.

Bestalde, ikerketak hainbat fase izan ditu:

- > Egindako estudioak berrikustea eta aztertzea, eta, handik abiatuta, sektorearen diagnostikoa egitea, oinarritzko premiak identifikatzea kanpoko informazioaren eta jakintzaren ikuspuntutik, eta ikerketa honen helburuen eta edukien eskema egitea.
- > Tresna nagusiak diseinatzea: datu-baseak, inkesta eta lagin mota, galdetegiaren edukia, azterketa-prozedurak eta emaitzen aurkezpena.
- > Datu-baseak kontrastatzea eta informazioa sistematikoki biltzea, landa-lanaren bitartez.
- > Datu estatistikoak aztertzea, ordenatzea, sistematizatzea eta Amaierako Txostenean integratzea

2.2 Baliabideak

DATU-BASEAK

Abiapuntu gisa, Euskadiko KSlei buruzko txostenak aztertu ditugu -batik bat Kulturaren Euskal Behatokiak bildutakoak-, bai eta eskuratu ditugun beste txosten gehigarri batzuk ere.

Oro har, kontsultatutako txosten guztiek dituzte problemak eta/edo mugak, ikerketa honen metodologiari dagokionez. Hain zuzen ere:

- > Datuak ez daude antolatuta UNCTADen sailkapenaren arabera, eta ezin dira berrantolatu sailkapen horren irizpideen arabera.
- > Txosten horietan ez dugu aurkitu inpaktu ekonomikoari buruzko daturik, hau da, Barne Produktu Gordinari (BPGd) egindako ekarpenik Balio Erantsi Gordinaren (BEGd) bidez.
- > Kultura- eta sormen-jarduerak dituzten erakundeen enpleguari eta izaera juridikoari buruzko datuetatik ezin da izaera juridikoa identifikatu.

EUSTATen estatistikatik hartu da informazioa. KSlen sektorea zeharkakoa da, baina, EUSTATEk egindako sektore-multzokatze klasikoetan. Horregatik, hasierako bilaketa hau gidatzeko, KSI kategorien arteko korrelazio bat ezarri dugu, UNCTADen sailkapenaren eta CNAE kodeen arabera. CNAE sailkapenak 629 jarduera ditu, eta

edozein izaera juridiko sartzen da bertan. Hortik abiatuta, banaketa gehien egiten duten tauletara jo dugu, A86 delakoetara. A86 taulek 86 taldetan biltzen dituzte 629 jarduera horiek. Banaketa horretan ere, baina, ezin dira erraz identifikatu KSlen jarduerak, ikerketa honetan hautatutako UNCTADen sailkapenaren arabera.

A86 taulak baino zerbait zehatzagoa behar dugunez, hiru lurraldeetako Foru Ogasunei eskatu dizkiegu UNCTADen sailkapenarekin bat datozen jardueren aitortzaileen erregistroak. Foru Ogasunek eman dizkiguten 2007tik 2012ra arteko erregistroetan agertzen da sortutako enplegua, Balio Erantsi Gordina, aitortzailearen izaera juridikoa, eta jarduera mota (EJZ kodea).

Jasotako materiala gordina identifikatzeko eta antolatzeko orduan, topatu dugun lehen oztopo ezaguna honako hau izan da: Foru Ogasunek Ekonomia Jardueren gaineko Zergako (EJZ) kodea erabiltzen dute, EUSTATEk erabilitako CNAE ez bezalako.

Beraz, KSI kategorien arteko korrelazio berri bat sortu behar izan dugu, UNCTADen sailkapenaren eta EJZ kodeen arabera.

Korrelazio hori finkatu ondoren, Foru Ogasunek emandako pertsona juridiko bakoitzaren erroldaltak erabili ditugu (036 eta 840 inprimakiak). Pertsona juridiko bakoitzak jarduera-kode bat baino gehiago aitor dezakeenez, aitortzailearen

lehen hautua aukeratu dugu. Dena dela, UNCTADen sailkapeneko jarduera bakar bati esleitu ezin zaizkion EJZ kodeak daude, eta batzuetan doitze-koefizienteak erabili behar izan ditugu.

Identifikazio horretatik abiatuz, honako hauek hautatu ditugu: UNCTADen sailkapeneko jarduerekin bat datorren EJZko epigrafe bat duten BEZen urteko aitortpenak (390, 391, 392 eta 393) eta urteko atxikipen-aitortpenak (190). Bestalde, BEZen urteko aitortpenek (390, 391, 392, 393) eta urteko atxikipen-aitortpenek (190) datu gehiago ere eman dizkigute ekonomia-jarduerari buruz.

Funtsean, Foru Ogasunek emandako erregistroetatik eta UNCTADen sailkapenaren arabera KSI kategorien arteko korrelaziotik, Euskadiko KSlen datu-base berri bat sortu dugu, eta gutxienez informazio hau dauka:

- > Enpresen datu osoak
- > Enpresen datu osoan, haien izaera juridikoaren arabera
- > Enpresen datu osoak, UNCTADen kategoriaren arabera
- > Enpresen datu osoak, Lurralde Historikoaren arabera
- > Enpresen datu osoak, langile-kopuruaren arabera
- > KSlen enpleguari buruzko datu osoak
- > KSlen sektoreko Balio Erantsi Gordinari buruzko datu osoak

Azkenik, datu horiek guztiak 2007-2012 aldirako bildu eta ordenatu dira; hartara, sektorearen bilakaerari buruzko serie estatistiko bat lor daiteke, eta oinarri enpiriko sendo bat da etorkizunean jarraipena egiteko.

GALDETEGIA

Euskadiko KSI enpresek beren buruz eta sektoreaz duten pertzepzioa ezagutzeko galdetegiak bost dimentsio ditu:

- > Sektorean lan egiten duen giza kapitalaren ezaugarriak.
- > Ahalmenak, ildoak, bazkideak eta lankidetzajardueren finantzaketa.
- > Berrikuntzarekiko harremana (jarduerak, oztopoak, finantza-iturriak, etab.).
- > Merkatuekiko harremana, besteak beste bezeroen azterketa, nazioartekotze-maila, etab.
- > Zer pertzepzio dagoen erakundearen orainaz eta geroaz, egiten den jardueraz, jarduera horren izaeraz, etab.

Galdetegiak 24 galdera ditu, eta 25.a kontrolgaldera bat da (erakundearen oinarritzko datuak). Neurtzeko eskala desberdinak erabiltzen dituzenez, ehunekoen eta batez besteko balioen bidez egin daitezke neurketak. Zenbaitetan galderak dikotomikoak dira, eta besteetan hainbat erantzun eman daitezke.

LAGINAREN HAUTAKETA

Gure kalkuluen arabera, 14.028 enpresatik 130 elkarrizketatu ditugu. Lagin horren konfiantza-maila % 95ekoa da, eta akatsa gehienez +/- % 8,57koa.

Jasotako informazio guztia enpresa pertsonalei nahiz sozietate-enpresei buruzkoa da. Beraz, baztertu egin dira irabazi asmorik gabeko erakundeak, enpresa-ikuspuntutik dituzten berezitasunengatik.

Laginaren lurralde-banaketa sortutako enpleguaren arabera egin da, kontuan hartu dira, halaber, izaera juridikoa, enpresaren tamaina eta UNCTAD kategoria, eta funtsezkoak bihurtu dira hain zabala den errealitatea segmentatzeko.

2014ko maiatzean eta ekainean egin da landa-lana. Inkesta guztiak aurrez aurrekoak izan ziren, eta inkestagileek berek grabatu zuten lortutako informazioa, ondoren araztu, taula bihurtu eta estatistikak egiteko.

Landa-lanaren direktorioa egiteko orduan, hainbat datu-base erabili dira:

- > JEGID (Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda)
- > DataCentric PDM S. A.
- > Infobel
- > Sabi - Bureau van Dijk

Ez ditugu laginean sartu irabazi asmorik gabeko erakundeak -sektorearen % 7 dira, gure kalkuluaren arabera-, zeren eta, ezaugarri batzuk enpresen berdinak dituzten arren, helburu estraekonomikoak dituzte, eta horrek aldatu egiten ditu beren jarduerak eta pertzepzioak finantza-iturriei buruz, merkatuekiko harremanari buruz, etab.

2.3 Txostenaren egitura

Txosten honek bost kapitulu ditu, eta Euskadiko KSlen egoera eta bilakaera jorratzen da. Lehenbiziko lau kapituluak analitiko-deskribatzaileak dira, bakoitzak hainbat atal ditu, eta sektorearen ezaugarriei buruzko informazio estatistikoa ematen dute. Bosgarrenak -eta azkenak- bateratu eta laburtu egiten du lehen aztertutako informazio guztia.

Lehenengo kapituluan, sektorearen enpresa-eta ekonomia-egitura aztertzen da. Bigarren kapituluan, gaitasunak eta antolaketa ikertzen dira. Hirugarren kapitulua, sektoreak ekonomian duen kokapenari buruzkoa da. Laugarren kapituluak zehatz erakusten du enpresek zer pertzepzio duten beren jardueraz eta inguru instituzional eta administratiboaz.

Azkenik, bosgarren kapituluak ondorioak ateratzen ditu, eta sektorearen egituraren eta jardueraren oinarriak diagnostikatu ondoren, indarrak eta ahuleziak identifikatu, zifrarik esanguratsuenak aurkeztu, eta gomendioak ematen dira.

Txostenean datoz, halaber, aipatutako bibliografia, taulen eta grafikoek aurkibide bat eta glosario bat, non aipatzen diren UNCTADeko azpisektore bakoitzean sartzen diren jarduerak.



3

—

EUSKADIKO KSI-EN
SEKTOREAREN EGITURA
(2007-2012)

3.1

Enpresa-kopuruaren bilakaera (2007-2012)


2012an 14.859 enpresa zeuden Euskadin, 2007an baino % 20 pasatxo gehiago (1. grafikoa). Bitarte horretan, baina, sektoreak gorabeherak

izan zituen, harik eta 2011n berriro gorantz hasi zen arte 2009an gelditu edo atzerantz hasi zena.

28

1. grafikoa

KSI ENPRESEN KOPURUAREN BILAKAERA (2007-2012). BALIO ABSOLUTUA



Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.


3.2 Enpresa-kopuruaren bilakaera, izaera juridikoaren arabera (2007-2012)

2. grafikoan argi ikusten da enpresa pertsonalek bitarte horretan izandako igoera: % 32. 2007an KSI enpresen % 62 izatetik % 68ra igaro ziren 2012an.

Aldiz, sozietate-enpresen kopurua gelditu egin zen; irabazi asmorik gabeko erakundeak hazi egin ziren termino absolututan, baina gutxi.

2. grafikoa

KSI ENPRESEN KOPURUAREN BILAKAERA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2007-2012).
PORTZENTAJEA



Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

3.3

Enpresa-kopuruaren bilakaera, UNCTAD kategoriaren arabera (2007-2012)


UNCTAD sailkapeneko bederatzigarren kategorietan garrantzitsuenak Sormen Zerbitzuak dira. 2007-2012 aldian beti izan dira sektorearen % 45 baino gehiago, eta % 49 ere gainditu zuten 2009an (3. grafikoa). 2012an, Sormen Zerbitzuen enpresak ia 7.000 ziren; Adierazpen Tradizionalen eta Kulturalen barrukoak, berriz, 100 pasatxo. Diseinuarekin eta Baliabide Berriekin loturako jarduerak sektorearen % 12na pasatxo ziren, eta horiekin osatzen da enpresa-kopuruaren arabera esanguratsuenak diren jarduerak.

3. grafikoa, enpresa-kopuruaren goranzko joera ikusten da: % 40tik gora Arte Eszenikoetan, Ikusizko Arteetan eta Baliabide Berrietan, % 20 pasatxo Sormen Zerbitzuetan eta Kultura Guneetan, eta % 10etik behera Ikus-entzunezkoetan, Diseinuan, Adierazpen Tradizional eta Kulturaletan, eta Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak (% 2 besterik ez).

30

3. grafikoa

KSI ENPRESEN KOPURUAREN BILAKAERA, UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2007 - 2012).
PORTZENTAJEA



Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

3.4 Enpresa-kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (2007-2012)

Bizkaiko Lurralde Historikoak handitu egin du sektorean zuen pisua: hazi egin da enpresa-kopurua (% 29 enpresa gehiago 2007-2012 aldian) bai eta bere pisu erlatiboa ere beste lurraldeen aldean (1. taula).

Araban behera egin du bai enpresa-kopuruak (% 35 gutxiago) bai pisu erlatiboak; Gipuzkoan, berriz, hazkunde txiki bat egon arren (% 2), pisu erlatiboa galdu du Euskadin.

1. taula

KSI ENPRESEN KOPURUAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2007 - 2012).
PORTZENTAJEA

Lurralde Historikoa	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Araba	7,0	7,0	7,3	5,0	4,4	4,3
Bizkaia	54,8	57,5	54,8	54,3	56,9	63,4
Gipuzkoa	38,2	35,5	37,9	40,7	38,7	32,3
Guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

3.5

Enpresa-kopuruaren bilakaera, langile-kopuruaren arabera (2007-2012)

Enpresen batez besteko tamaina adierazle esanguratsua da, eragina du enpresa-egituraren ezaugarrietan ere, eta erraztu egiten du

kudeaketa-arlo desberdin gehiagori erantzun ahal izatea. 2. *taulan* agertzen da KSI enpresen tamainaren beheranzko joera bitarte horretan.

2. *taula*

ENPRESEN BATEZ BESTEKO TAMAINAREN BILAKAERA (2007 - 2012), BALIO ABSOLUTUA

Urtea	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Pertsona-kopurua	5,0	4,7	4,4	4,6	4,2	3,8


Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

Batez besteko txikitze horrek berdintsu eragin die enpresa pertsonalei nahiz sozietate-enpresei. Lehenengoak % 26 txikitu dira, eta bigarrenak % 22. Irabazi asmorik gabeko erakundeen batez besteko tamaina, baina, % 21 hazi da.

Beraz, 2007-2012 aldian % 21 hasi da enpresa-kopurua, baina batez besteko tamainak % 24 egin du behera. Hots, batetik gora egin du enpresa-kopuruak, eta bestetik haien tamainak behera egin du sektorearen % 93an. Irabazi asmorik gabeko erakundeetan soilik hazi da enpresa-kopurua eta haien batez besteko tamaina (4. *grafikoa*).

4. grafikoa

KSI ENPRESEN KOPURUAREN ETA BATEZ BESTEKO TAMAINAREN BILAKAERA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2007 - 2012). PORTZENTAJEA



Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

3.6

Euskadiko KSlen egiturari buruzko daturik esanguratsuenak (2007-2012)

- > 2012an, Euskadiko KSlen sektorean 14.859 enpresa zeuden, hau da, Euskadin urte horretan zeuden 165.517 enpresen % 9, EUSTATen arabera. Beraz, enpresa-kopuruari dagokionez, KSlen sektorea bosgarren lekuan legoke, hauen atzetik: Merkataritza, Garraioa eta Ostalaritza, Jarduera Profesionalak, Eraikuntza, eta Administrazio Publikoa, Hezkuntza eta Osasuna; baina hauen aurretik: Industria eta Energia, Bestelako Zerbitzu Jarduerak, etab.
- > 2007-2012 aldian, KSlen sektoreko enpresa-kopurua % 21 handitu da, eta Euskadiko enpresa-kopurua % 8 txikitu da.
- > KSlen sektoreko enpresa gehienak pertsonalak dira (10etik ia 7), eta horrek zerikusi zuzena du enpresen tamainarekin: 3,8 enplegatu 2012an, Euskadiko 5,3tik behera. Bestalde, bai KSlen sektorean bai Euskadiko enpresa-ehun osoan, enpresa pertsonalak dira batez beste txikienak.
- > KSI enpresak desberdin banatzen dira Euskadiko lurralde batetik bestera. Euskadiko enpresen % 51 Bizkaian daude, baina KSI enpresak % 63 dira; Gipuzkoan ez dago hainbesteko alderik (Euskadiko enpresak % 35 eta KSI enpresak % 32); azkenik, Araban dago alderik handiena (Euskadiko enpresak % 14 eta KSI enpresak % 4).
- > Sektoreko jarduera nagusia Sormen Zerbitzuak dira (2012an, enpresen % 46), eta 10 enpresatik 7 hiru jarduera motatakoak dira (Sormen Zerbitzuak, Diseinua eta Baliabide Berriak). 2007-2012 aldian, Baliabide Berriak dira gehien hazi den jarduera (% 47), enpresa-kopuruari dagokionez.

3.7 Euskadiko KSlen sektoreko egitura: Laburpena

2012an, KSlen sektorekoak dira Euskadiko enpresen % 9.

2007-2012 aldian, sektoreko enpresa-kopurua % 21 handitu, batez besteko enplegatuak 5etik 3,8ra igaro, Bizkaian ugartu (2012an % 63),

enpresa pertsonalak ugartu (2012an % 68 dira), Baliabide Berriak (Bideojokoak eta Softwarea) gehien hazi (% 47), baina Sormen Zerbitzuek jarraitzen dute izaten jardura nagusia (enpresen % 46).



4

—

EUSKADIKO KSIen
ENPLEGUAREN BILAKAERA
(2007-2012)


4.1 Enplegu osoaren bilakaera (2007-2012)

KSien enplegatu-kopurua % 3 eskas gutxitu da 2007-2012 aldian (5. grafikoa). Ez da joera jarraiturik egon: hazkundeak egon dira 2008,

2011 eta 2012an. Dena dela, bitarte horretan gehiago jaitsi da Euskadiko enplegatu-kopurua (% 8).

5. grafikoa

KSI ENPRESETAN SORTUTAKO ENPLEGU OSOAREN BILAKAERA (2007 - 2012).
BALIO ABSOLUTUA




Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

KSien enpleguaren bilakaeran alde handiak daude, autoenplegua izan edo soldatapeko enplegua izan. Hala, autoenplegua % 32 hazi da bitarte horretan, baina soldatapeko enplegua % 7 eskas murriztu da. Hori bat dator enpresa

pertsonalak ugaritzearekin eta sozietate-enpresak murriztearekin (2. *grafikoa* ikusi dugu). Horren guztiaren ondorioz, autoenplegua 2007an % 10 izatetik % 14 izatera igaro da 2012an. Hori dena agertzen da 6. *grafikoa*.

6. *grafikoa*

KSI ENPRESETAN SORTUTAKO ENPLEGU OSOAREN BILAKAERA, ENPLEGU MOTAREN ARABERA (2007 - 2012). PORTZENTAJEA



Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

4.2


Enplegu osoaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (2007-2012)

Enpleguak sektorean eta lurralde historiko bakoitzean egindako bidea bat dator KSlen enpresa-kopuruaren bilakaerarekin (1. taula). Bitarte horretan, Bizkaiko enplegu osoa % 2tik behera hazi zen, Gipuzkoan % 2tik behera murriztu zen, eta Araban % 24 jaitsi zen. Horixe bera berrestu du 7. grafikoak.

Esandako moduan, Bizkaian ugaritu dira gehien KSI enpresak, eta Araban % 26 murriztu da enpresen kopuru osoa. Dena dela, Bizkaiaren kasuan azpimarratzekoa da enpresa-kopurua % 40 hazi dela, baina enplegua ozta-ozta hazi da % 2. Horrek zerikusi zuzena du sektore horretan eta Bizkaian sortutako enplegu motarekin.

7. grafikoa

KSI ENPRESETAN SORTUTAKO ENPLEGU OSOAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2007 - 2012). BALIO ABSOLUTUA




Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

2012an Bizkaian sortutako enplegu osoaren % 18 autoenplegua izan da, eta % 82 soldatapeko enplegua. Horrek berretsi egiten du lehen aipatutako autoenpleguaren hazkundera; izan ere, 2007an eta Bizkaian, autoenplegua

% 11 zen eta soldatapeko enplegua % 89. 8. grafikoak erakusten duen moduan, beraz, bertan hazi ziren gehien enpresa-kopurua eta sortutako enplegua, eta lotura argia ikusten da hazkundera horren eta autoenplegua indartzearen artean.

8. grafikoa

KSI ENPRESETAN SORTUTAKO ENPLEGU OSOAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA ENPLEGU MOTAREN ARABERA (2007 - 2012). PORTZENTAJEA



Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

4.3

Enplegu osoaren bilakaera, UNCTAD kategoriaren arabera (2007-2012)

Enpleguak jarduera motaren arabera izandako joera ildo beretik doa: UNCTADeko bederatzi kategorietan autoenplegua hazi da, eta haietatik seitan soldatapeko enplegua galdu da. Esanguratsua da soldatapeko enpleguaren galera Diseinuan (-% 35) eta autoenpleguaren

igoera Baliabide Berrietan (% 100), Ikusizko Arteetan (% 54) eta Arte Eszenikoetan (% 47). Emaitzak 3. taulan agertzen dira. Horren ondorioz, 2007-2012 aldian enpresa-kopurua gehien hazi den hiru jardueretan autoenplegua eta enpresa pertsonalak hazi dira.

3. taula

ENPLEGU OSOAREN BILAKAERA, ENPLEGU MOTAREN ETA UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2007-2012). ZENBAKI INDIZEAK. OINARRIA: 100

Enplegu mota	Sortutako enplegu osoa		
	UNCTAD kategoria	2007	2012
AUTOENPLEGUA	Arte Eszenikoak	100	147
	Ikusizko Arteak	100	154
	Ikus-entzunezkoak	100	117
	Diseinua	100	115
	Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	100	103
	Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	100	144
	Baliabide Berriak	100	200
	Sormen Zerbitzuak	100	128
	Kultura Guneak	100	101
SOLDATAPEKO ENPLEGUA	Arte Eszenikoak	100	120
	Ikusizko Arteak	100	90
	Ikus-entzunezkoak	100	84
	Diseinua	100	65
	Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	100	120
	Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	100	143
	Baliabide Berriak	100	91
	Sormen Zerbitzuak	100	93
	Kultura Guneak	100	98

4.4

Sortutako soldatapeko enpleguaren bilakaera, izaera juridikoaren arabera

Sortutako soldatapeko enpleguari dagokionez, enpresaren izaera juridikoa erabakigarria da, bitarte horretan balantze positiboa duten bakarrak irabazi asmorik gabeko erakundeak baitira. Bitarte horretan enplegua sortu duten

enpresa pertsonalek autoenpleguaren bidez soilik sortu dute, eta soldatapeko enpleguaren balantzea negatiboa da. Sozietate-enpresen enplegu-kopurua, berriz, % 18 murriztu da. 4. taulan ageri da hori guztia.

4. taula

SORTUTAKO SOLDATAPEKO ENPLEGUAREN BILAKAERA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2007 - 2012). ZENBAKI INDIZEAK. OINARRIA: 100

Izaera juridikoa	Sortutako soldatapeko enplegua	
	2007	2012
Enpresa pertsonala	100	95
Sozietate-enpresa	100	82
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	100	141


Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

Enpresa motaren arabera, aldatu egiten da soldatapeko enpleguari egindako ekarpena. Hala, 2007ko eta 2012ko egoera konparatuz (9. grafikoa), irabazi asmorik gabeko erakundeek

soldatapeko enpleguari egindako ekarpen erlatiboa hazi, sozietate-enpresen ekarpena murriztu, eta enpresa pertsonalen ekarpena ez da aldatu.

9. grafikoa

SORTUTAKO SOLDATAPEKO ENPLEGUAREN BILAKAERA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2007 - 2012). PORTZENTAJEA



Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

4.5

Euskadiko KSlen enpleguaren bilakaerari buruzko daturik esanguratsuenak (2007-2012)

- > KSlen sektoreak 2007-2012 aldian izandako enpleguaren bilakaera Euskadi osoarena baino hobea izan da. Enplegu-galera osoa % 8koa izan da, baina sektore honena % 3koa. Horretaz gainera, KSlen sektoreak sortutako enplegua Euskadin 2012an zegoen enplegu osoaren % 8 inguru da.
- > Sortutako enplegu motari dagokionez, aldaketa nagusia da autoenplegua igotzea (% 32) eta soldatapeko enplegua jaistea.
- > Bizkaia da bitarte horretan saldo positiboa (% 2) duen lurralde bakarra, autoenpleguaren hazkundean oinarrituta.
- > 2012an, Sormen Zerbitzuetako enpresak dira sektorean enplegu gehien sortu dutenak (% 34), baina, periodo osoan, nabarmena da zenbat hazi den autoenplegua Baliabide Berrien enpresetan.
- > Irabazi asmorik gabeko erakundeak dira bitarte horretan soldatapeko enplegua sortu duten bakarrak: % 40 ugaritu dute soldatapeko langileen kopurua. 2012an, batez beste, handienak ere badira (20 pertsona, enpresa bakoitzeko).

4.6

Euskadiko KSlen enpleguaren bilakaera: Laburpena

2012an, Euskadiko KSlen sektorean sortutako enplegua Euskadiko enplegu osoaren % 8 inguru da. Enplegu-egitura horretan, autoenplegua % 14 da (2007an, % 10). Bitarte horretan, Bizkaia da enplegu positiboa (% 2) duen lurralde bakarra, eta irabazi asmorik gabeko erakundeak dira

bitarte horretan soldatapeko enplegua hazi duten bakarrak sektorean. Sektorean sortutako hamar enplegutik hiru baino gehiago Sormen Zerbitzuetakoak dira; portzentajetan, berriz, Baliabide Berrietan hazi da gehien autoenplegua.

5

—

EUSKADIKO KSIen SEKTOREAN
SORTUTAKO BALIO ERANTSI
GORDINAREN BILAKAERA
(2007-2012)

5.1 Sortutako Balio Erantsi Gordinaren bilakaera (2007-2012)

2007an hasitako motelaldi ekonomikoak eragin handia izan du KSIen sektoreko BEGd-aren bilakaeran. Joera hori bat dator BEGd-k Euskadiko ekonomia osoan izandako bilakaerarekin: sektore batzuetan geratu, eta beste batzuetan atzera egin du. 10. grafikoa

ikusten da BEGd-k KSIen sektorean izandako atzerakada, balio absolututan. Antzeko errendimendu-kurba dute Euskadiko industriak eta energiak eta zerbitzuek: 2008an hazi, eta hortik aurrera gorabeherak eta beheranzko joera.

10. grafikoa

KSIEN SEKTOREAN SORTUTAKO BEGD-REN BILAKAERA (2007 - 2012). BALIO ABSOLUTUA




Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

Termino erlatibotan -hots, sektore bakoitzak Euskadin sortutako BEGd-ri egindako ekarpena neurtuz-, KSlen sektorea ez da askorik aldatu. 11. grafikoan azaltzen denez, industria eta energiak eta eraikuntzak atzerakada erlatibo bat

dute, nekazaritzak, abeltzaintzak eta arrantzak aurrerakada arina, eta zerbitzuek gorakada handi samarra. Giro orokor horretan, KSlen sektorea 2007ko % 2,7tik 2012ko 2,2ra igaro da.

11. grafikoa

EUSKADIN SORTUTAKO BEGD-REN BILAKAERA (2007 - 2012). PORTZENTAJEA



Iturria: EUSTAT. Foru Ogasunak. Geuk egina.


5.2 Sortutako BEGd-ren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (2007-2012)

BEGd-k atzera egin du hiru lurralde historikoetan, adierazitako joera orokorraren ildoan (12. grafikoa). Bitarte horretan azpimarragarriena, agian, Arabaren beheraldia izan da, bai termino absolututan bai erlatibotan. Gipuzkoaren 2012ko ekarpen erlatiboa 2007koaren oso antzekoa da, Bizkaia hazkunde esanguratsua du -beti termino erlatibotan-, baina Arabak % 50 inguru

jaitsi du bere ekarpen erlatiboa, 2007ko aldean. BEGd-ri buruzko lurraldez lurraldeko datu horiek bat datoz beste adierazle batzuen bitartez azaldu ditugun datuekin. Hala, Bizkaian, BEGd-ri egindako ekarpen erlatiboa hobetzeaz gain, enpresak ugaritu dira, bai eta enplegu-kopurua ere pitin bat.

12. grafikoa

SORTUTAKO BEGD-REN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (2007 - 2012). PORTZENTAJEA



Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.


5.3 Sortutako BEGd-ren bilakaera, izaera juridikoaren arabera (2007-2012)

Enpresaren izaera juridikoa erabakigarria da KSlek BEGd-ri egindako ekarpenean. Hala, enpresa pertsonalak sektoreko % 67 diren arren, % 13ko ekarpena besterik ez dioten egin BEGd-ri 2012an (13. grafikoa). Portzentaje hori ezer gutxi aldatu da 2007tik 2012ra, nahiz eta, adierazitako moduan, autoenplegua eta enpresa pertsonalak dezente hazi diren.

Gainerako enpresei dagokionez, esanguratsua da irabazi asmorik gabeko erakundeen ekarpen handiagoa, euren gain joan baita, adierazitako moduan, sektorean sortutako soldatapeko enplegu guztia bitarte horretan.

13. grafikoa

SORTUTAKO BEGD-REN BILAKAERA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2007 - 2012). PORTZENTAJEA



Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

5.4 Sortutako Balio Erantsi Gordinaren bilakaera, UNCTAD kategoriaren arabera (2007-2012)


KSI enpresen izaera juridikoaren antzera, jarduera mota erabakigarria da BEGd-ri egindako ekarpenean. Sormen Zerbitzuetako, Baliabide Berrietako, Argitalpen eta Baliabide Inprimatuetako eta Diseinuko enpresen ekarpena sortutako BEGd osoaren % 90 da. Portzentaje hori apaldu egin da 2007ko aldean: orduan, jarduera horiek BEGd-ri egindako ekarpena sortutako BEGd osoaren % 92 zen (14. grafikoa).

Jarduera motaren arabera BEGd-ri egindako ekarpenak aldaketak izan ditu 2007tik 2012ra. Hain zuzen ere, bi talde daude. Portzentaje hobeia du jarduera multzo batek: Arte Eszenikoak, Ikusizko Arteak, Ikus-entzunezkoak, Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak, eta Baliabide Berriak. Ekarpene erlatibo txikiagoa du bigarren multzo batek: Sormen Zerbitzuak, Kultura Guneak, Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak, eta Diseinua. Nolanahi ere, jarduera mota bakoitzaren birdoitze horrek zerikusi gutxi du bitarte horretan sortutako BEGd-ren hazkunde efektiboarekin (5. taulan ikusiko dugu).

50

14. grafikoa

**SORTUTAKO BEGD-REN BILAKAERA, UNCTAD KATEGORIA MOTAREN ARABERA (2007-2012).
PORTZENTAJEA**



Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

5. *taulan* ageri denez, 2012an sortutako BEGd-k bi jarduera motatan soilik gainditu du 2007ko kopurua. Jarduera bakoitzean sortutako BEGd-ren bilakaerari dagokionez, hiru joera daude. Lehenik, 2012an 2007an baino emaitza hobek dituztenak: Ikus-entzunezkoak eta Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak.

Bigarrenean, 2007ren aldean, sortutako BEGd % 10etik behera jaitsi dutenak: Arte Eszenikoak, Ikusizko Arteak, eta Baliabide Berriak. Eta, hirugarrenik, 2007ren aldean, sortutako BEGd % 10etik gora jaitsi dutenak: Sormen Zerbitzuak, Diseinua, Adierazpen Tradizional eta Kulturalak, eta Kultura Guneak.

5. taula

SORTUTAKO BEGD OSOARI EGINDAKO EKARPENAREN BILAKAERA, UNCTAD JARDUERA MOTAREN ARABERA (2007 - 2012). ZENBAKI INDIZEAK (OINARRIA: 100)

51

UNCTAD kategoría	2007	2012
Arte Eszenikoak	100	96
Ikusizko Arteak	100	90
Ikus-entzunezkoak	100	137
Diseinua	100	50
Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	100	106
Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	100	32
Baliabide Berriak	100	90
Sormen Zerbitzuak	100	71
Kultura Guneak	100	12

Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

6. *taulak* erakusten digunez, gainera, BEGd gehien sortu duten sektoreak sozietate-enpresak dira.

Bistan da, beraz, izaera juridikoa erabakigarria dela sortutako BEGd-ri egindako ekarpenean (6. *taula*).

6. taula

SORTUTAKO BEGD OSOA, UNCTAD KATEGORIAREN ETA IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012).
PORTZENTAJEA

UNCTAD kategorია	Izaera juridikoa			GUZTIRA
	Enpresa pertsonala	Sozietate-enpresa	I.A.G.E.	
Arte Eszenikoak	22,0	77,0	1,0	100
Ikusizko Arteak	41,0	59,0	0,0	100
Ikus-entzunezkoak	9,0	85,0	6,0	100
Diseinua	11,9	88,0	0,1	100
Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	2,0	86,0	12,0	100
Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	6,0	-36,0	130,0	100
Baliabide Berriak	5,0	94	1,0	100
Sormen Zerbitzuak	27,0	70	3,0	100
Kultura Guneak	49,0	412,0	-361,0	100

Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

52

FAzkenik, sektore honetan enpresa pertsonal asko samar daudenez (% 68), nabarmentzea komeni da sozietate-enpresetan dela handiena soldatapeko enpleguaren sorrera eta BEGd-ri egindako ekarpena. 7. taulak azaltzen du hori, eta badirudi sektoreari dinamismoa ematen diola batez beste 10 enplegatu pasatxo dituen enpresa mota horrek.

Ildo horretan, enpresa pertsonalak eta autoenplegua ugaritzeak eragin txarra izan lezake sektoreak balio ekonomikoa eta enplegua sortzeko gaitasunean.

7. taula

HAINBAT ADIERAZLEREN EGOERA SOZIETATE-ENPRESETAN (2012). PORTZENTAJEA

UNCTAD kategoria	Sozietate-enpresak		
	Sozietate-enpresen portzentajea jarduera mota bakoitzean	Sortutako BEGd-ren portzentajea	Sortutako soldatapeko enpleguaren portzentajea
Arte Eszenikoak	22,0	77,0	73,0
Ikusizko Arteak	17,0	59,0	58,0
Ikus-entzunezkoak	45,0	85,0	86,0
Diseinua	30,0	88,0	93,0
Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	55,0	86,0	64,0
Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	63,0	-36,0	73,0
Baliabide Berriak	43,0	94,0	96,0
Sormen Zerbitzuak	20,0	70,0	45,0
Kultura Guneak	14,0	412,0	32,0

Iturria: Foru Ogasunak. Geuk egina.

5.5

Euskadiko KSlen sektorean sortutako BEGd-ren bilakaerari buruzko daturik esanguratsuenak (2007-2012)

- > 2012an, Euskadiko KSlen sektoreak sortutako BEGd Euskadin sortutako BEGd osoaren % 2 inguru izan da.
- > 2007-2012 aldian, hazi egin da Euskadin sortutako BEGd-ri Bizkaiak egindako ekarpena, baina Araban ia erdira jaitsi da.
- > Sozietate-enpresak izan ohi dira ekarpenik handiena egin diotenak Euskadin sortutako BEGd-ri. 2007-2012 aldian dezente ugartu dira enpresa pertsonalak, baina hori ez da islatu enpresa horiek sortutako BEGd-an. Izan ere, sortutako BEGd-ri egin dioten ekarpena geratu egin da bitarte horretan.
- > 2012an sektoreak sortutako BEGd-ren % 90 biltzen da lau jarduera motatan: Sormen Zerbitzuak, Baliabide Berriak, Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak, eta Diseinua. Dena dela, Argitalpen eta Baliabide Inprimatuek soilik izan dute balantze positiboa bitarte horretan.



5.6 Euskadiko KSlen sektorean sortutako BEGd-ren bilakaera (2007-2012): Laburpena

2012an, Euskadin sortutako BEGd-ren % 2 inguru jarri du KSlen sektoreak. Enpresa motaren arabera, sozietate-enpresetatik dator ekarpen horren % 82; jardueraren arabera, lau sektoretan sortu da BEGd-ren % 90; eta lurraldearen arabera, Bizkaitik dator sektorean sortutako BEGd-ren % 55 baino gehiago.

Hortaz, izaera juridikoak eta enpresaren tamainak eragin positiboa dute sektorean sortutako BEGd-an.

Hori horrela, autoenplegurako joera eta enpresa pertsonalen igoera ez dira oso pozgarriak hazkunde ekonomikoaren ikuspuntutik eta sektorean soldatapeko enplegua sortzearen ikuspuntutik.



BIGARREN KAPITULUA

Euskadiko KSlen antolatzeko gaitasunak
eta praktikak

6

—

GIZA KAPITALAREN EZAUGARRIAK

6.1 Langilegoaren osaera, sexuaren arabera

Sektoreko emakumeei dagokionez, 8. taulan adierazgarria da enpresa pertsonaletan ari direla 10etik 6 baino gehiago, eta gehiago nabarmena dira diseinu-enpresetan.

Gainerako jardueri dagokionez, gizonetzkoak adina daude, Baliabide Berrietan izan ezik.

58

8. taula

KSI ENPRESETAKO EMAKUME LANGILEAK, ENPRESEN IZAERA JURIDIKOAREN ETA UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2014). PORTZENTAJEA

KSI enpresak		Enpresako emakumeen portzentajea
GUZTIRA		56,0
IZAERA	Enpresa pertsonala	65,0
JURIDIKOAREN	Sozietate-enpresa	45,0
ARABERA		
	Arte Eszenikoak	50,0
	Ikusizko Arteak	52,0
	Ikus-entzunezkoak	45,0
UNCTAD	Diseinua	88,0
KATEGORIAREN	Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	48,0
ARABERA	Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	50,0
	Baliabide Berriak	36,0
	Sormen Zerbitzuak	60,0
	Kultura Guneak	42,0

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

6.2 Langilegoaren osaera, adinaren arabera

Adin-banaketari dagokionez, bi kategoría egin ditugu: 30 urtetik gorakoak eta beherakoak. 30 urtetik beherakoak % 15 dira sektorean -enpresa pertsonaletan eta sozietate-enpresetan berdin-, baina jarduera motaren arabera banaketa adierazgarriagoa da. Batez beste baino gehiago dira Adierazpen Tradizional eta Kulturaletan (% 42), Ikus-entzunezkoetan (% 37), Baliabide Berrietan (% 23) eta Sormen Zerbitzuetan

(% 21). Aldiz, 30 urtetik beherakoak oso gutxi dira Ikusizko Arteetan, Arte Eszenikoetan eta Kultura Guneetan. Adierazpen Tradizionaletan eta Kulturaletan izan ezik -seguru asko berariaz interpretatu behar da-, badirudi jarduera zenbat eta tradizionalagoa izan orduan eta gutxiago direla kolektibo horretako kideak.

9. taulan ageri da hori guztia.

9. taula

30 URTETIK BEHERAKO LANGILEAK KSI ENPRESETAN, ENPRESEN IZAERA JURIDIKOAREN ETA UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2014). PORTZENTAJEA

KSI enpresak	30 urtetik beherakoaren portzentajea	
GUZTIRA		15,0
IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA	Enpresa pertsonala	15,0
	Sozietate-enpresa	15,0
UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA	Arte Eszenikoak	4,0
	Ikusizko Arteak	6,0
	Ikus-entzunezkoak	37,0
	Diseinua	18,0
	Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	9,0
	Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	42,0
	Baliabide Berriak	23,0
	Sormen Zerbitzuak	21,0
	Kultura Guneak	2,0

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

6.3 Langileen prestakuntza-maila

Sektoreko langileen prestakuntzari dagokionez (10. taula), 10etik 7k baino gehiagok goi-ikasketak dituzte, are gehiago sozietate-enpresetan, eta % 80 inguru dira bost jarduera motatako enpresetan: Sormen Zerbitzuak, Baliabide Berriak, Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak, Argitalpen eta Baliabide

Inprimatuak, eta Arte Eszenikoak. Hain zuzen ere, bost jarduera horietatik hirutan biltzen da 30 urtetik beherakoen portzentajerik handiena. Azpimarratzekoa da, halaber, langileen goi-mailako titulazioa sarritan lotuta dagoela KSI sektoreko jarduerekin.

10. taula

KSI ENPRESETAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA MAILA, ENPRESEN IZAERA JURIDIKOAREN ETA UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2014). PORTZENTAJEA

KSI enpresak		PRESTAKUNTZA-MAILA (%)		
		Goi-hezkuntzarik gabekoak	KSlen sektoreko goi-hezkuntza dutenak	Beste sektore batzuetako goi-hezkuntza dutenak
GUZTIRA		26,0	56,0	18,0
IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA	Enpresa pertsonala	30,0	55,0	15,0
	Sozietate-enpresa	19,0	58,0	23,0
UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA	Arte Eszenikoak	22,0	45,0	33,0
	Ikusizko Arteak	36,0	55,0	9,0
	Ikus-entzunezkoak	35,0	40,0	25,0
	Diseinua	46,0	48,0	6,0
	Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	21,0	60,0	19,0
	Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	20,0	70,0	10,0
	Baliabide Berriak	20,0	52,0	28,0
	Sormen Zerbitzuak	19,0	63,0	18,0
	Kultura Guneak	24,0	62,0	14,0

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

6.4 Langileen esperientzia-maila

Esperientziari dagokionez (11. taula), langileen % 68k 10 urtetik gorako esperientzia dute, eta % 12 soilik ez dira heltzen bost urteko esperientzia izatera sektorean. Enpresaren izaera juridikoak ezer gutxi aldatzen ditu portzentaje horiek, baina enpresaren jardura motaren arabera esperientzian alde esanguratsu batzuk

daude. Funtsean, badirudi hain tradizionalak ez diren eta teknologia gehiago duten jardueretan esperientzia gutxiago dutela pertsonak. Hori nabariagoa da Ikus-entzunezkoen enpresetan, eta ez hainbeste Baliabide Berrietan.

11. taula

KSI ENPRESETAKO LANGILEEN ESPERIENTZIA-MAILA, ENPRESEN IZAERA JURIDIKOAREN ETA UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2014). PORTZENTAJEA

KSI enpresak		ESPERIENTZIA-URTEAK SEKTOREAN (%)			
		Urtebetetik behera	2 eta 4 urte bitartean	5 eta 9 urte bitartean	10 urtetik gora
GUZTIRA		1,0	11,0	20,0	68,0
IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA	Enpresa pertsonala	1,0	11,0	17,0	71,0
	Sozietate-enpresa	1,0	10,0	24,0	64,0
UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA	Arte Eszenikoak	0,0	6,0	10,0	84,0
	Ikusizko Arteak	0,0	2,0	32,0	66,0
	Ikus-entzunezkoak	0,0	43,0	32,0	26,0
	Diseinua	0,0	10,0	14,0	76,0
	Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	1,0	13,0	27,0	59,0
	Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	0,0	0,0	20,0	80,0
	Baliabide Berriak	0,0	22,0	18,0	59,0
	Sormen Zerbitzuak	3,0	9,0	16,0	72,0
	Kultura Guneak	0,0	5,0	29,0	66,0

6.5

Enpresek garatutako prestakuntza-jarduerak

Giza kapitalari dagokionez, azpimarragarria da jardun profesionalaren premia aldakorren aurrean eguneratzeko, birziklatzeko eta moldatzeko gaitasuna. Ildo horretan, enpresak egindako prestakuntza-jardueretan ikusten dira -baina ez haietan bakarrik- eguneratzeko aukerak. Ildo horretan, eta sektore osoa kontuan harturik, enpresen erdiak pasatxok egin dituzte prestakuntza-jarduerak azken bi urteetan, baina proportzio hori aldatu egiten da enpresa pertsonala izan edo sozietate-enpresa izan. Prestakuntza-jarduerak ohikoagoak dira azken horietan.

Enpresen UNCTAD kategoriaren arabera, alde handiak daude haien prestakuntza-jardueretan ere. Horrela, eta ordena honetan, oso ohikoak edo ohikoak dira Baliabide Berrietan (% 92), Ikus-entzunezkoetan (% 67), Arte Eszenikoetan (% 60) eta Sormen Zerbitzuetan (% 57). Gainerakoetan, prestakuntza-jarduerak % 45 baino gutxiago dira. Azkenik, tamainak ere lotura zuzena du prestakuntza-jardueren garapenarekin. *12. taulan* dator KSI sektoreko jarduera mota horri buruzko informazio guztia.

12. taula

KSI ENPRESETAKO PRESTAKUNTZA-JARDUERAK, IZAERA JURIDIKOAREN, UNCTAD KATEGORIAREN ETA ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA

ENPRESAK		Prestakuntza-jardueren garapena (%)	
		BAI	EZ
GUZTIRA		52,0	48,0
IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA	Enpresa pertsonala	42,0	58,0
	Sozietate-enpresa	66,0	34,0
UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA	Arte Eszenikoak	60,0	40,0
	Ikusizko Arteak	29,0	71,0
	Ikus-entzunezkoak	67,0	33,0
	Diseinua	35,0	65,0
	Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	45,0	55,0
	Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	40,0	60,0
	Baliabide Berriak	92,0	8,0
	Sormen Zerbitzuak	57,0	43,0
	Kultura Guneak	33,0	67,0
ENPRESAREN TAMAINA	0 eta 1 bitartean	34,0	66,0
	2 eta 5 bitartean	60,0	40,0
	6 eta 10 bitartean	86,0	14,0
	11 eta 50 bitartean	67,0	33,0
	51tik gora	100,0	0,0

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

6.6

Euskadiko giza kapitalaren ezaugarririk esanguratsuenak

- > Emakumeak gehiengo dira sektoreko langileen artean; batez ere, enpresa pertsonaletan.
- > Sektoreko hamar langiletik zortzi pasa 30 urtetik gorakoak dira, eta adin horretatik beherako % 15 ugariago dira jarduera hain tradizionalak ez dituzten enpresetan.
- > Goi-tituludunak gehiengo dira sektorean, eta % 50ek baino gehiagok KSlen sektoreko goi-ikasketak dituzte.
- > Hamar langiletik bederatzik bost urtetik gorako esperientzia dute sektorean, eta hamarretik ia zazpik hamar urte baino gehiago daramate bertan lanean.
- > Sektoreko langileen erdiak inguruk beren burua birziklatzeko aukera dute enpresak berak finantzatzeko prestakuntza-jardueren bidez; dena dela, prestakuntza-jarduera horiek ugariagoak dira sozietate-enpresetan, teknologiarekin lotutako jardueretan eta enpresa handietan.

64

6.7

Euskadiko KSlen sektoreko giza kapitala: Laburpena

Sektorean nagusi dira emakumeak eta, gehienbat, 30 urtetik gorako pertsonak. Egitura orokor horrek berezitasun batzuk ditu, harremanetan jartzen badugu enpresaren izaera juridikoarekin edo UNCTAD jarduera motarekin. Gehiengo dira goi-tituludunak, eta sektoreko

esperientzia bost urtetik gorakoa da hamar kasutatik bederatzitan. Langileen % 50ek baino gehiagok egin dituzte prestakuntza-jarduerak, batik bat enpresa handietan, sozietate-enpresetan, eta teknologiarekin lotutako jarduerak egiten dituztenetan.

7

—

LANKIDETZARAKO
KULTURA KSI SEKTOREKO
ENPRESETAN


7.1 Lankidetzaz-jardueren garapena

Beste profesionalekiko edo erakundeekiko lankidetzaz ohikoa da hamar KSI enpresatik zazpitan baino gehiagotan, gutxienez 2012an eta 2013an. Lankidetzaz garatuagoa dago sozietate-

enpresetan, non portzentajeek gairiditu egiten duten sektorearen batez bestekoa. 15. grafikoan agertzen da hori.

15. grafikoaz

PROFESIONALEKIN EDO BESTE ERAKUNDEEKIN LANKIDETZAZ-JARDUERAK EGIN DITUZTEN KSI ENPRESAK, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA




Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Bestalde, 16. grafikoan ageri den moduan, UNCTADen bildutako jarduera gehienak lankidetzaren aldekoak dira, aitortutako balioak oso altuak baitira ia kasu guztietan.

Lankidetzaz gutxiago agertzen da, baina, hiru jarduera motatan: Arte Eszenikoak, Ikusizko Arteak eta Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak

16. grafikoa

PROFESIONALEKIN EDO BESTE ERAKUNDEEKIN LANKIDETZA-JARDUERAK EGIN DITUZTEN KSI ENPRESAK, UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.


7.2 Lankidetzaz-jardueren garapena

Lankidetzaz-jarduerak sailkatzeko orduan, hiru ildo hartu ditugu kontuan: berrikuntza, nazioartera zabaltzea, jarduera komertzialak eta jarduera kulturalak. Oro har, eta enpresek adierazi dutenez, lankidetzaz-jarduerak ez daude hain bideratuak nazioartera: enpresek % 15ek soilik jardun omen du helburu horrekin lankidetzan. Proposatutako beste jardueretan, baina, lankidetzaz antzekoa da.

Datu orokor horiek aldatu egiten dira enpresaren izaera juridikoaren arabera. Sozietate-enpresetan lankidetzaz handiagoa dago jarduera mota guztietan, batez ere berrikuntzaz bideratutakoetan. 17. grafikoa agertzen da informazio guztia.

17. grafikoa

PROFESIONALEKIKO EDO BESTE ERAKUNDEEKIKO LANKIDETZAZ-JARDUEREN HELBURUAK, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.


Jarduera bakoitzean bere eran gauzatzen da lankidetzaren, eta ez da erraza UNCTAD jardueren joera bateratzeko ildoak ezartzea. Oro har, nazioartera zabaltzeko joera ez da esanguratsua Adierazpen Tradizional eta Kulturaletan, Diseinuan, eta Argitalpen eta Baliabide Inprimatuetan; berrikuntzako esperientziak batez bestekotik behera daude Ikusizko Arteetan, Diseinuan eta Adierazpen Tradizional eta Kulturaletan; jarduera komertzialetara bideratutako lankidetzaren ohikoagoa da Kultura Guneetan, Sormen Zerbitzuetan eta Argitalpen eta Baliabide Inprimatuetan; eta jarduera kulturaletako lankidetzaren nabarmena da Kultura Guneetan eta, gutxiago, Arte Eszenikoetan eta Argitalpen eta Baliabide Inprimatuetan.

Argi dago enpresa bakoitzaren UNCTAD kategoriak eragina duela bere lankidetzaren praktikan eta lankidetzaren bideratzen den jardueran. Deigarria da Diseinuaren kasua eta, gutxiago, Adierazpen Tradizionalen eta Kulturalen kasua, bere berezitasunengatik. Kasu bietan, jardueraren guztietako lankidetzaren beti sektorearen batez bestekotik behera dago. Aldiz, Kultura Guneen balioak batez bestekotik oso gora daude proposatutako lankidetzaren praktikan guztietan.

18. grafikoan agertzen da enpresa mota bakoitzaren jokabidea, UNCTAD kategoriaren arabera.

18. grafikoa

PROFESIONALEKIKO EDO BESTE ERAKUNDEEKIKO LANKIDETZA-JARDUEREN HELBURUAK, UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egin.

7.3 Lankidetza-bazkideak: erreferentziako eremu geografikoa

Lankidetza gauzatzen den eremuak zerikusi zuzena du enpresa bakoitzaren kokapen geografikoarekin. Horri dagokionez, *13. taulan* sei joera nagusi nabarmentzen dira.

- > Lehenik, sektorearen erdigunean dago Bizkaia, beste lurraldeetako enpresek lankidetza handia baitute Bizkaikoekin.
- > Bigarrenik, batez ere Gipuzkoan, baina Bizkaian ere bai, lankidetza gehiena lurralde barrukoa da; Araban, berriz, lurraldetik kanpoko lankidetza handiagoa da, seguru asko sektoreak lurralde horretan dituen mugengatik.
- > Hirugarrenik, espainiar estatuko enpresekiko lankidetza aldatu egiten da lurralde batetik bestera, baina oso esanguratsua da Gipuzkoako enpresen artean.
- > Laugarrenik, nazioarteko lankidetza urria da oraindik, eta zer hobetu handia dago.
- > Bosgarrenik, Gipuzkoako enpresak dira lankidetzarako kultura gehien dutenak, bai lurralde barruan bai kanpoan.
- > Seigarrenik eta azkenik, *15. grafikoan* agertzen den moduan, hamar enpresatik hiruk ez dute lankidetza-jarduerarik egin azken bi urteetan; beraz, adibidez nazioarteko lankidetzaren arloan, zer hobetu handia dago.

70

13. taula

KSI ENPRESETAKO LANKIDETZA-BAZKIDEEN EREMU GEOGRAFIKOA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA

LANKIDETZA-BAZKIDEAK						
Lurralde Historikoa	EREMU GEOGRAFIKOA					
	EUSKADI			Espainiako estatua	EB-27ko gainerakoak	Beste herrialdeak
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa			
Araba	20,0	32,0	52,0	16,0	16,0	16,0
Bizkaia	17,0	58,0	11,0	30,0	11,0	5,0
Gipuzkoa	36,0	68,0	88,0	56,0	36,0	12,0


Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Bestalde, lankidetzaren eremu geografikoak zerkusi handia dauka UNCTAD jarduerarekin ere. Oro har, eta xehetasunetan sartu gabe, hiru enpresa-talde daude, lankidetzaren intentsitatearen eta eremuaren arabera. Alde batetik, eremu guztietako lankidetzaren eremu geografikoak zerkusi handia dauka UNCTAD jarduerarekin ere. Oro har, eta xehetasunetan sartu gabe, hiru enpresa-talde daude, lankidetzaren intentsitatearen eta eremuaren arabera. Alde batetik, eremu guztietako lankidetzaren eremu geografikoak zerkusi handia dauka UNCTAD jarduerarekin ere. Oro har, eta xehetasunetan sartu gabe, hiru enpresa-talde daude, lankidetzaren intentsitatearen eta eremuaren arabera.

Bestalde, lankidetzaren eremu geografikoak zerkusi handia dauka UNCTAD jarduerarekin ere. Oro har, eta xehetasunetan sartu gabe, hiru enpresa-talde daude, lankidetzaren intentsitatearen eta eremuaren arabera. Alde batetik, eremu guztietako lankidetzaren eremu geografikoak zerkusi handia dauka UNCTAD jarduerarekin ere. Oro har, eta xehetasunetan sartu gabe, hiru enpresa-talde daude, lankidetzaren intentsitatearen eta eremuaren arabera.

19. grafikoa

KSI ENPRESETAKO LANKIDETZA-BAZKIDEEN EREMU GEOGRAFIKOA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Azkenik, lankidetzaren eremu geografikoak zerkusi handia dauka UNCTAD jarduerarekin ere. Oro har, eta xehetasunetan sartu gabe, hiru enpresa-talde daude, lankidetzaren intentsitatearen eta eremuaren arabera. Alde batetik, eremu guztietako lankidetzaren eremu geografikoak zerkusi handia dauka UNCTAD jarduerarekin ere. Oro har, eta xehetasunetan sartu gabe, hiru enpresa-talde daude, lankidetzaren intentsitatearen eta eremuaren arabera.

Guneak, Arte Eszenikoak eta Ikus-entzunezkoak. Bestalde, nazioarteko lankidetzaren eremu geografikoak zerkusi handia dauka UNCTAD jarduerarekin ere. Oro har, eta xehetasunetan sartu gabe, hiru enpresa-talde daude, lankidetzaren intentsitatearen eta eremuaren arabera. Alde batetik, eremu guztietako lankidetzaren eremu geografikoak zerkusi handia dauka UNCTAD jarduerarekin ere. Oro har, eta xehetasunetan sartu gabe, hiru enpresa-talde daude, lankidetzaren intentsitatearen eta eremuaren arabera.

14. taula

KSI ENPRESETAKO LANKIDETZA-BAZKIDEEN EREMU GEOGRAFIKOA, UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA

LANKIDETZA-BAZKIDEAK							
TIPOLOGIA	UNCTAD KATEGORIA	EREMU GEOGRAFIKOA (%)					
		EUSKADI			Espainiako estatua	EB-27ko gainerakoak	Beste herrialdeak
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa			
LANKIDETZA HANDIA ETA DIBERTSIFIKATUA	Kultura Guneak	33,0	78,0	33,0	67,0	33,0	33,0
	Arte Eszenikoak	40,0	60,0	33,0	47,0	33,0	20,0
	Ikus-entzunezkoak	50,0	67,0	33,0	33,0	17,0	17,0
LANKIDETZA ERTAINA ETA GUTXI DIBERTSIFIKATUA NAZIOARTEAN	Ikusizko Arteak	33,0	50,0	23,0	20,0	13,0	0,0
	Baliabide Berriak	33,0	58,0	8,0	25,0	8,0	8,0
	Sormen Zerbitzuak	50,0	58,0	50,0	50,0	33,0	0,0
	Kultura Guneak	14,0	29,0	14,0	21,0	7,0	7,0
LANKIDETZA TXIKIA	Diseinua	6,0	24,0	0,0	18,0	0,0	6,0
	Adierazpen	0,0	20,0	20,0	0,0	0,0	0,0
	Tradizionalak						
	eta Kulturalak						

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

7.4

Lankidetza-bazkideenganako konfiantza teknikoa

Enpresen lankidetza-bazkideekiko preferentziei buruzko datuak oso egokiak dira sektoreak barrurantz eta kanporantz duen pertzepzioa ulertzeko. 1. taulak argi erakusten du lankidetza-harremanak batez ere sektore barrukoak direla, esperientzia horiek direla enpresek gehien baloratzen dituztenak, eta sektoretik kanpoko bazkideekiko harremanak eta lankidetzak jasotzen duten balorazioa baxu samarra da. Barrura begira, deigarria da -sektoreko enpresa-egiturarekin bat datorren arren-harreman gehiago egiten direla profesional independenteekin (enpresa pertsonalak)

sozietate-enpresekin baino, eta, gutxiago bada ere, KSlen eremuko irabazi asmorik gabeko erakundeekin. Konfiantza maila onargarria da.

Kanpora begira, sektoreko enpresek ez dituzte ongi baloratzen ez administrazio publikoa, ez unibertsitateak ez teknologia-zentroak; edozein kasutan, beste sektoreetako profesionalak eta enpresek baino balorazio apalagoa jasotzen dute. 15. taulan datoz datuak.

15. taula

KSI ENPRESEK LANKIDETZA-BAZKIDEEI BURUZ ADIERAZITAKO KONFIANTZA TEKNIKOA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA

ENPRESEK ADIERAZITAKO KONFIANTZA TEKNIKO ONA									
ENPRESAK	BAZKIDE MOTAK								
	SEKTORE BARRUKOAK			SEKTORETIK KANPOKOAK					
	KSlen sektoreko profesionala	KSlen sektoreko enpresa	KSlen sektoreko irabazi asmorik gabeko akundea	Beste sektore bateko profesionala	Beste sektore bateko profesionala	Beste sektoreko irabazi asmorik gabeko akundea	Unibertsitatea	Administrazio publikoa	Teknologia-zentroa
GUZTIRA	55,0	35,0	16,0	16,0	14,0	7,0	11,0	9,0	8,0
IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA	SEKTORE BARRUKOAK			SEKTORETIK KANPOKOAK					
Enpresa pertsonala	54,0	32,0	16,0	18,0	10,0	10,0	9,0	6,0	4,0
Sozietate-enpresa	55,0	41,0	16,0	14,0	20,0	2,0	14,0	14,0	14,0

16. taula

KSI ENPRESEK LANKIDETZA-BAZKIDEEI BURUZ ADIERAZITAKO KONFIANTZA TEKNIKOA, UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA


ENPRESEK ADIERAZITAKO KONFIANTZA TEKNIKO ONA									
UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA	BAZKIDE MOTAK								
	SEKTORE BARRUKOAK			SEKTORETIK KANPOKOAK					
	KSlen sektoreko profesionala	KSlen sektoreko enpresa	KSlen sektoreko irabazi asmorik gabeko akundea	Beste sektore bateko profesionala	Beste sektore bateko profesionala	Beste sektoreko irabazi asmorik gabeko akundea	Unibertsitatea	Administrazio publikoa	Teknologia-zentroa
Arte Eszenikoak	67,0	53,0	33,0	27,0	20,0	7,0	20,0	20,0	7,0
Ikusizko Arteak	43,0	14,0	7,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ikus-entzunezkoak	33,0	50,0	0,0	0,0	17,0	0,0	17,0	0,0	0,0
Diseinua	24,0	6,0	6,0	12,0	6,0	0,0	6,0	0,0	6,0
Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	58,0	58,0	17,0	8,0	0,0	0,0	8,0	25,0	0,0
Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	20,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Baliabide Berriak	67,0	67,0	8,0	17,0	8,0	8,0	8,0	8,0	25,0
Sormen Zerbitzuak	63,0	35,0	18,0	30,0	28,0	10,0	10,0	5,0	13,0
Kultura Guneak	89,0	33,0	44,0	0,0	11,0	33,0	33,0	33,0	0,0

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

7.5

Euskadiko KSIen sektoreko lankidetzari buruzko daturik esanguratsuenak

- > Hamar KSI enpresatik zazpi baino gehiago lankidetzan aritzen dira profesionalekin eta erakundeekin, jarduera profesionaletan. Enpresa pertsonaletan baino lankidetzakimena gehiago daude sozietate-enpresetan.
- > Lankidetzak maizago ematen da helburu kulturalak dituzten jardueretan, eta oso urria da nazioartera bideratutako jardueretan.
- > Lankidetzak-bazkide gehienak inguru geografiko hurbilekoak dira -enpresak dauden lurraldekoak-, eta ondoren datoz entitate geografiko handiagoak (Euskadi, espainiar estatua, Europar Batasuna). Lankidetzak-bazkidea zenbat eta hurbilago, orduan eta sendoagoa da lankidetzak.
- > Batez ere sektore bereko profesionalekin eta enprekin ematen da lankidetzak -hau da, barrura begira-, eta horiek dira konfiantzarik handiena eta baloraziorik onena jasotzen dutenak KSI enpresen artean. Ez dira begi onez ikusten unibertsitate, teknologia-zentro edo administrazio publikoarekiko esperientziak.



7.6

Euskadiko KSlen sektoreko lankidetza: Laburpena

KSI enpresei ez zaie arrotza egiten beste enpresa eta profesionalakiko lankidetza. Lankidetza hori sektore barrukoa da gehienbat -enpresen artekoa baino gehiago profesionalen eta enpresen artekoa-, lankidetza-bazkidea zenbait eta hurbilago egon orduan eta estuagoa da, eta nahiko mugatua da nazioartean.

Enpresek ongi samar baloratzen dute sektore bereko eragileekiko lankidetza, ordena honetan: profesional independenteak (enpresa pertsonalak), sozietate-enpresak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak.

Sektoretik kanpoko eragileekiko lankidetza askoz txikiagoa da, eta kanpoko instituzio gehienek (unibertsitateak, administrazio publikoa, beste enpresak, etab.) konfiantza gutxi sortzen dute KSlen sektorean. Nazioarteko lankidetza oso mugatua da eta ia batere ez dago UNCTADeko zenbait jardueratan.

8

—

BERRIKUNTZAREN GARAPENA

8.1 Berrikuntza-jardueren sorrera

Berrikuntzaren garapena ohikoa da 10 KSI enpresatik 8tan baino gehiagotan. Berrikuntza gehiago ematen da sozietate-

enpresen artean, eta enpresa dagoen lurralde historikoak ez du eragin nabaririk enpresen jokabidean. 17. taulan agertzen dira datuak.

78

17. taula

PROFESIONALEKIN EDO ERAKUNDEEKIN BERRIKUNTZA-JARDUERAK EGIN DITUZTEN KSI ENPRESAK, IZAERA JURIDIKOAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA

ENPRESAK		Berrikuntza-jardueren garapena (%)	
		BAI	EZ
GUZTIRA		86,0	14,0
IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA	Enpresa pertsonala	82,0	18,0
	Sozietate-enpresa	92,0	8,0
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	84,0	16,0
	Bizkaia	88,0	12,0
	Gipuzkoa	85,0	15,0


Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

UNCTAD kategoriaren arabera enpresek berrikuntza-jardueretan duten parte-hartzeak ez digu oso informazio esanguratsurik ematen jokabide orokorrari buruz. Deigarria da Baliabide Berriek izatea parte-hartzerik txikiena berrikuntzan, eta Sormen Zerbitzuak bezain jarduera nodala hain berritzailea izatea; horrexek erakusten du berrikuntza zein garrantzitsua den sektorean. 20. grafikoa agertzen da informazioa.

Zehatzago joanez, berrikuntza-jarduera gehien dituzten enpresak dira -salbuespenak salbuespen- lankidetzan gehien aritzen direnak (16. grafikoa); eta, alderantziz, lankidetzan gutxi aritzen direnek berrikuntza-jarduera bakanagoak dituzte. Hala, lankidetzaren eta berrikuntzaren arteko harremana dago ehun kasutatik 80tan, eta nabariagoa da alderdi negatiboa: lankidetz gutxi, berrikuntza gutxi

20. grafikoa

PROFESIONALEKIN EDO ERAKUNDEEKIN BERRIKUNTZA-JARDUERAK EGIN DITUZTEN KSI ENPRESAK, UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.


8.2 Berrikuntza-jardueren mota

Oro har, berrikuntzari buruzko definizioetan kontuan hartzen dira produktuak, prozesuak, zerbitzuak, antolaketa-ereduak, eta akordio-eta sare-sistemak berritzeko jarduerak. Bost jarduera horiexek hartu ditugu kontuan sektorearen berrikuntza-jarduera neurtzeko.

Agian sektoreak dituen ezaugarriengatik, produktuak eta zerbitzuak sortzen edo hobetzen egin dira ahaleginik handienak, batez ere sozietate-enpresetan. Azken horietan askoz arreta handiagoa jartzen da prozesuetan, antolaketan eta akordioetan, beren antolaketaren egitura handiagoa eta konplexuagoa delako. 21. grafikoan agertzen dira datuak.

21. grafikoa

BERRIKUNTZA-JARDUEREN MOTAK, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA



Berrikuntza-jarduera produktura edo zerbitzura bideratua egotea loturik dago enpresen UNCTAD kategoriarekin. Kultura Guneek gehiago jotzen dute zerbitzuak sortzera edo hobetzera; Ikus-entzunezkoek eta Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak, berriz, produktuetara.

Beste kasuetan -adibidez, sareetan edo akordioetan-, UNCTAD kategoria ere adierazgarria da: berrikuntza-jarduera gehiago egiten dituzte halakoak behar dituztenek (Kultura Guneek edo Sormen Zerbitzuek). 18. taulan azaltzen dira zertzelada horiek eta gehiago.

18. taula

**BERRIKUNTZA-JARDUEREN MOTAK, UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2012 ETA 2013).
PORTZENTAJEA**

UNCTAD KATEGORIA	Berrikuntza-jarduera mota (%)				
	Produktu berri edo hobetuak	Prozesu berri edo hobetuak	Zerbitzu berri edo hobetuak	Antolamendu berri edo hobetuak	Aliantza-sistema berri edo hobetuak
Arte Eszenikoak	47,0	40,0	53,0	47,0	53,0
Ikusizko Arteak	36,0	29,0	57,0	29,0	0,0
Ikus-entzunezkoak	67,0	67,0	50,0	50,0	17,0
Diseinua	53,0	53,0	53,0	24,0	35,0
Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	67,0	58,0	42,0	58,0	50,0
Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	60,0	40,0	60,0	60,0	20,0
Baliabide Berriak	58,0	17,0	58,0	25,0	33,0
Sormen Zerbitzuak	63,0	40,0	58,0	40,0	55,0
Kultura Guneak	56,0	22,0	67,0	44,0	67,0

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

8.3

Berrikuntzen definizioa eta ezarpena

Berrikuntzak sortzen eta ondoren ezartzen diren modua esanguratsua da sektoreko enpresek berrikuntza-jarduerei begira nola funtzionatzen duten ulertzeko. Prozesu biak (sorrera edo definizioa eta ezarpena) hainbat pertsonak parte hartuz planteatu eta garatu daitezke.


22. *grafikoak* kontuan hartzen ditu berrikuntza-prozesuak garatzen dituzten lantaldeak.

Ikusten den moduan, enpresetako jendea edo lantaldeak dira, gehienetan, berrikuntza-prozesuak kudeatzen dituztenak. Kanpoko langileekin edo lantaldeekin ere egiten da lankidetzak, baina oso urria da sareko berrikuntza edo soilik kanpoko taldeen kudeaketaren eta ezarpenaren bidez egiten dena.

Aipatu ditugun joerak nabarmenagoak dira enpresa pertsonaletan, eta ez hainbeste sozietate-enpresetan, non ohikoagoa den barruko eta kanpoko lantaldeen arteko lankidetzak (10 kasutik 4tan; enpresa pertsonaletan, berriz, 10 kasutik 2tan). Bestalde, joera horiek guztiak bat datoz enpresek lankidetzak-jarduerei ekitean dituzten helburuekin (17. *grafikoa*): % 34 inguru berrikuntzaren bila aritzen dira lankidetzan kanpoko lantaldeekin.

22. grafikoa

KSI ENPRESEK BERRIKUNTZA BAT DEFINITZEKO ETA EZARTZEKO EGINDAKO AUKERA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Aipatu ditugun jokabideak are nabarmenagoak dira UNCTAD kategoriaren arabera. 9 kategoriatatik 7tan, enpresa bakar batek ere ez du kanpoko lantalde baten esku utzi berrikuntza

bat definitzea eta ezartzea, eta berrikuntza-proiektuen kudeaketa ia guztiz barrukoa da Ikusizko Arteetan, Kultura Guneetan edo Diseinuan.

19. taula

KSI ENPRESEK BERRIKUNTZA BAT DEFINITZEKO ETA EZARTZEKO EGINDAKO AUKERA, UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA

UNCTAD KATEGORIA	Egindako aukera (%)			
	Kanpoko taldea	Erakunde-sarea	Barruko taldea	Kanpoko eta barruko taldea
Arte Eszenikoak	% 0	% 15	% 54	% 31
Ikusizko Arteak	% 0	% 0	% 90	% 10
Ikus-entzunezkoak	% 0	% 0	% 80	% 20
Diseinua	% 0	% 0	% 85	% 15
Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	% 10	% 10	% 20	% 60
Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	% 0	% 0	% 75	% 25
Baliabide Berriak	% 11	% 0	% 31	% 56
Sormen Zerbitzuak	% 0	% 6	% 61	% 33
Kultura Guneak	% 0	% 0	% 87	% 13

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

8.4 Berrikuntza-jarduerak garatzeko oztopoak


Adierazitako moduan, 10 KSI enpresatik ia 9k batik bat produktu eta zerbitzuetara bideratutako berrikuntza-jarduerak egiten dituzte, eta enpresaren baitan sortu eta ezarri ohi dira. Hortik jaio den esperientziak posible egiten du berrikuntza-proiektuei ekiteko zailtasunak detektatzea eta baloratzea.

Azkenik, enpresak nahiko ziur daude merkatu-aukerei buruz dakitenaz, gai horietan duten esperientziak, edo beren langileen trebakuntzaz. Alderdi ekonomiko eta finantzario hori aurrerago aztertuko dugu zehatzago, kezka-iturri handia baita sektorearentzat, edozein alderdiri begiratuta ere.

23. *grafikoak* oso informazio baliotsua dakar zailtasun horiei buruz. Zailtasun ekonomikoak dira nagusi (finantzaketa, itzultzeko epeak, arriskuak eta kostuak). Horien atzetik datoz zailtasun administratibo-burokratikoak (arauak, kudeaketa eta beharrezko denbora).

23. *grafikoa*

KSI ENPRESEK BERRIKUNTZA BAT GARATZEKO ADIERAZITAKO ZAILTASUNA, HAINBAT OZTOPOREN ARABERA (2012 ETA 2013). BATEZ BESTEKO BALIOA: 0-7




23. *grafikoan* bezalatsu ikusten da 24. *grafikoan*: oztopo berak erakusten dizkigu, baina enpresa bakoitzaren izaeraren arabera. Kasu honetan, sozietate-enpresek are gehiago azpimarratzen dituzte problema ekonomikoak eta finantzarioak, batik bat berritzearen arriskuak eta kostuak.

Bertako langileekiko konfiantza apalxeagoa da enpresa pertsonaletan baino, eta ez zaie hainbeste garrantzi ematen burokraziak eta kudeaketak eragindako zailtasunei. Hala, badirudi enpresaren izaera juridikoak eraginen bat duela berrikuntza-prozesuen esperientzian.

24. *grafikoa*

KSI ENPRESEK BERRIKUNTZA BAT GARATZEKO ADIERAZITAKO ZAILTASUNA, HAINBAT OZTOPOREN ETA ENPRESAREN IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BATEZ BESTEKO BALIOA: 0-7



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

UNCTAD kategoriaren arabera enpresek oztopoei buruz egindako balorazioa ez da adierazi dugun ildoaren oso desberdina, eta

aipatutako batez besteko balioetatik nabarmen urruntzen den jarduerarik ez dago.

8.5

Euskadiko KSlen sektoreko berrikuntzari buruzko daturik esanguratsuenak

- > KSI enpresen % 86k egin ditu prestakuntza-jarduerak 2012an eta 2013an. Berrikuntza-jardueren garapenak zerikusia du enpresaren izaera juridikoarekin: jarduera gehiago daude sozietate-enpresetan (% 92) enpresa pertsonaletan baino (% 82).
- > KSlen sektoreko berrikuntza produktura eta zerbitzura bideratzen da batez ere, eta berrikuntza-jarduera gutxiago daude antolaketaren arloan, batez ere enpresa pertsonaletan.
- > Berrikuntzak enpresaren baitan soilik sortzen eta ezartzen dira 10 kasutatik 6tan baino gehiagotan. Joera horren baitan, kanpoko lantaldeekiko lankidetzak handiagoa da sozietate-enpresetan, eta Argitalpen eta Baliabide Inprimatuetan eta Baliabide Berrietan.
- > Berrikuntza-jardueren oztoporik handienak ekonomikoak dira, eta enpresek konfiantza handi samarra dute beren barne-gaitasunetan (kualifikazioa eta esperientzia).

8.6

Euskadiko KSlen sektoreko berrikuntza: Laburpena

10 KSI enpresatik 8k baino gehiagok berrikuntza-jarduerak egin ohi dituzte, batik bat sozietate-enpresek. Batez ere produktu eta zerbitzu berriak edo berrituak sortzera bideratutako berrikuntza da: ehun kasutik 60tan enpresako langileek eta lantaldeek sortzen eta ezartzen dute, eta oso gutxitan (% 2) garatzen du kanpoko lantalde batek soilik.

Berrikuntzarako oztopo nagusiak ekonomikoak eta finantzarioak dira (finantzaketa lortzea, itzultzeko epeak, arriskuak eta kostuak), eta enpresek konfiantza handia dute beren langileen gaitasunetan (kualifikazioa eta esperientzia).

HIRUGARREN KAPITULUA
Euskadiko KSlen Kokapen Ekonomikoa

9

—

DIRU-SARRERAK,
BEZEROAK, MERKATUAK

9.1 Enpresen diru-sarrerak

Enpresen 2013ko diru-sarreraren estimazio oso esanguratsuak agertzen zaizkigu 25. grafikoan.


> 10 enpresatik 1 inguruk ez du 5.000 €-tik gorako diru-sarrera garbirik, 10etik 4 ez dira iristen 20.000 €-ko diru-sarrera garbira, eta % 6k bakarrik dituzte 1.000.000 €-tik gorako diru-sarrera garbiak. Bi horien artean daude gainerakoak, baina % 27k soilik gainditzen dituzte 100.000 €-ko diru-sarrera garbiak.

> Enpresaren izaera juridikoak zerikusi zuzena du diru-sarreraren kopuruarekin. Enpresa pertsonalen % 86 ez dira iristen 50.000 €-tik gorako diru-sarrera garbira, eta % 26 besterik ez dira sozietate-enpresen artean. Enpresa pertsonalen diru-sarrerak oso mugatuak dira, sektorearen % 68 ziren arren 2012an.



25. grafikoa

KSI ENPRESEN DIRU-SARRERA GARBIEEN ESTIMAZIOA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2013).
PORTZENTAJEA




Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Enpresaren izaera juridikoak ez ezik, UNCTAD kategoriak ere zerikusi handia du diru-sarrerak lortzeko gaitasunean, eta desberdintasunak sortzen ditu enpresen artean. 26. grafikotik ere atera daitezke ondorioak:

- > Hiru enpresa motatan, 10 enpresatik 8k ez dituzte gainditzen 50.000 €-ko diru-sarrera garbiak. Diseinuaren, Ikusizko Arteen eta Adierazpen Tradizional eta Kulturalen enpresak dira. Antzeko emaitzak dituzte Sormen Zerbitzuetako eta Arte Eszenikoetako enpresek: 10 enpresatik 7k 50.000 €-tik beherako diru-sarrera garbiak dituzte
- > Beste maila bateko diru-sarrera garbiak dituzte Ikus-entzunezkoetako, Argitalpen eta Baliabide Inprimatuetako, Baliabide Berrietako eta Kultura Guneetako enpresek. Kasu guztietan, enpresen % 50ek baino gehiagok dituzte 50.000 €-tik gorako diru-sarrera garbiak. Talde zabal horren barruan, Ikus-entzunezkoetan eta Argitalpen eta Baliabide Inprimatuetan daude diru-sarrera garbirik altuenak.
- > Jokabide homogeneoagoa dute zenbait UNCTAD kategoriatako enpresek, batik bat diru-sarrera garbirik apalenak dituztenek. Gainerako kasuetan, barne-bariantza esanguratsuagoa da.

26. grafikoa

KSI ENPRESEN DIRU-SARRERA GARBIEEN ESTIMAZIOA, UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2013).
PORTZENTAJEA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

92

Enpresen diru-sarrera garbiak aztertzeko orduan, haien tamaina da, agian, faktorerik erabakigarriena. 20. taulak erakusten duen moduan, harreman absolutua dago tamaina handitzearen eta diru-sarrerak ugartzearen

artean, eta enpresa txikiek diru-sarrera mugatuak dituzte. Egiaztapen horixe indartzen du sektoreko enpresen batez besteko tamainak (3,8 pertsona 2012an).

20. taula

KSI ENPRESEN DIRU-SARRERA GARBIEEN ESTIMAZIOA, ENPREAREN TAMAINAREN ARABERA (2013).
PORTZENTAJEA

ENPRESAKO SOLDATAPEKO LANGILEAK	DIRU-SARRERA GARBIEEN TARTEA (%)	
	< 50.000 €	> 50.000 €
0 eta 1 bitartean	% 94	% 6
2 eta 5 bitartean	% 45	% 55
6 eta 10 bitartean	% 9	% 91
10etik gora	% 0	% 100

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

9.2 Enpresen bezeroak

Sektore honen bezero nagusiak azken kontsumitzaileak dira, batik bat enpresen jarduera kontuan hartuz. Hala agertzen da 21. taulan, baina izaera juridikoaren arabera alde handiak ere badaude. Horrela, sozietate-enpresen bezero-zorroa dibertsifikatuagoa eta orekatuagoa da; enpresa pertsonaletan, berriz, azken kontsumitzailea funtsezkoa da, eta bezero jakinei egindako salmentak ez dira esanguratsuak.

Azken kontsumitzaileari ez ezik, enpresa pertsonalek batez ere sektore bereko profesionali eta enpresei saltzen dizkiete produktuak eta zerbitzuak, eta Administrazio Publikoa da kanpoko bezero nagusia. Sozietate-enpresei dagokionez, badirudi Administrazio Publikoa dela bezero nagusia, sektoreko enpresak baino gehiago. Unibertsitateek eta teknologia-zentroek harreman komertzial handiagoa dute sozietate-enpresekin, enpresa pertsonalekin baino.

21. taula

KSI ENPRESEK PRODUKTUAK EDO ZERBITZUAK SALTZEN DIZKIETEN BEZEROAK, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2013). PORTZENTAJEA

BEZERO MOTA	ENPRESAK		
	GUZTIRA	E. PERTSONALA	SOZIETATE-ENPRESA
Azken kontsumitzailea	% 70	% 80	% 55
KSlen sektoreko profesionala	% 50	% 49	% 51
Beste sektore bateko profesionala	% 42	% 38	% 49
Administrazio Publikoa	% 55	% 47	% 67
KSI enpresa	% 56	% 53	% 61
Beste sektore bateko enpresa	% 53	% 43	% 69
Unibertsitatea	% 24	% 15	% 37
Erakunde soziala	% 25	% 25	% 25
Teknologia-zentroa	% 12	% 3	% 27

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Interesgarria da 21. taulako datuak konparatzea 22. taulako datuekin, non enpresen UNCTAD kategoriaren arabera erakusten den bezeroen egitura. Azken taula horretan ikusten denez, UNCTAD kategoriak dezente eragiten dio

bezeroen egiturari, eta enpresen jokabideak ez dira homogeenak. Orain artekoaren antzekoena, 21. taulan, unibertsitateen, teknologia-zentroen eta erakunde sozialen pisu erlatibo txikia da.

Oro har, salmentak gehiago bideratzen dira sektore bereko enpresa eta profesioaletara, kanpokoetara baino. Beste kontu bat da azken kontsumitzaileen eta administrazio publikoaren pisua: gorabeherak daude UNCTAD kategoriaren arabera. Azken kontsumitzailea da bezero nagusia Kultura Guneetan, Ikusizko Arteetan, Argitalpen eta Baliabide Inprimatueta, eta Adierazpen Tradizional eta Kulturaletan. Arte Eszenikoetako enpresetan soilik dira Administrazio Publikoak bezero nagusia.

Ikus-entzunezkoen kategoriako 10 enpresatik 8tan baino gehiagotan, bezero gehienak sektore bereko profesionalak eta enpresak dira; hots, sektorearen barruan saltzen dituzte beren produktu eta zerbitzu gehienak. Era berean, enpresa horietan dira beren produktu eta zerbitzuak azken kontsumitzailearengana gutxien bideratzen dituztenak.

22. taula

KSI ENPRESEK PRODUKTUAK EDO ZERBITZUAK SALTZEN DIZKIETEN BEZEROAK, UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2013). PORTZENTAJEA

UNCTAD KATEGORIA	TIPO DE CLIENTES								
	Azken kontsumitzailea	KSlen sektoreko profesionala	Beste sektore bateko profesionala	Administrazio Publikoa	KSI enpresa	Beste sektore bateko enpresa	Unibertsitatea	Erakunde soziala	Teknologia-zentroa
Arte Eszenikoak	% 53	% 53	% 20	% 87	% 73	% 20	% 20	% 40	% 0
Ikusizko Arteak	% 93	% 29	% 43	% 43	% 43	% 36	% 7	% 14	% 7
Ikus-entzunezkoak	% 33	% 83	% 17	% 67	% 83	% 50	% 33	% 50	% 17
Diseinua	% 71	% 47	% 35	% 29	% 41	% 41	% 6	% 18	% 6
Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	% 92	% 58	% 33	% 58	% 67	% 50	% 33	% 17	% 17
Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	% 80	% 40	% 20	% 40	% 60	% 20	% 20	% 0	% 0
Baliabide Berriak	% 67	% 58	% 75	% 42	% 83	% 100	% 50	% 42	% 17
Sormen Zerbitzuak	% 60	% 50	% 55	% 60	% 50	% 73	% 25	% 28	% 23
Kultura Guneak	% 100	% 44	% 33	% 56	% 33	% 33	% 33	% 11	% 0

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Bezero horien eremu geografikoari dagokionez -hots, KSI enpresen merkatu nagusiak-, batez ere probintzia eta erkidego berekoak dira, eta garrantzia du espainiar estatuak ere. 27. grafikoak dioten moduan, izaera juridikoak eragin handia du: sozietate-enpresek indar eta presentzia gehiago dute.


Hain zuzen ere:

- > Presentzia handiagoa merkatu guztietan (probintzia, erkidegoa, estatua eta nazioartea).
- > Eremu geografikoa zenbat eta urrunagoa (estatua, nazioartea), ezarpen desberdinagoa enpresa pertsonalen aldean.

Edonola ere, nazioarteko presentzia urria -nabarmenagoa edo ez enpresen izaera juridikoaren arabera- gaur egun ebidentzia bat da eta etorkizunean erronka bat KSI enpresentzat.

27. grafikoa

KSI ENPRESEN BEZEROEN EREMU GEOGRAFIKOA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA



KSI enpresek UNCTAD kategoriaren arabera merkatuetan duten presentzia alde handiak daude, eta zaila da jokabideak multzotan ipintzea. Azpimarratzekoa da nazioarteko presentzia txikiagoa hiru kasutan, non arrazoiak oso desberdinak diren, geure ustez.

UNCTAD kategoriako Sormen Zerbitzuek dute presentziarik txikiena nazioartean, beren jardunaren ezaugarriengatik: batez ere inguruko enpresei zerbitzuak ematea. (23. taula).

23. taula

KSI ENPRESEN BEZEROEN EREMU GEOGRAFIKOA, UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA

UNCTAD KATEGORIA	BEZEROAK, EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA (%)					
	EUSKADI			Espainiako estatua	EB-27ko gainerakoa	Beste herrialdeak
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa			
Arte Eszenikoak	% 73	% 73	% 73	% 73	% 53	% 27
Ikusizko Arteak	% 57	% 71	% 71	% 43	% 14	% 0
Ikus-entzunezkoak	% 67	% 67	% 50	% 83	% 17	% 17
Diseinua	% 76	% 71	% 47	% 53	% 41	% 29
Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	% 75	% 75	% 83	% 75	% 58	% 25
Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	% 60	% 100	% 80	% 40	% 40	% 20
Baliabide Berriak	% 50	% 58	% 50	% 67	% 33	% 42
Sormen Zerbitzuak	% 60	% 75	% 43	% 43	% 5	% 5
Kultura Guneak	% 56	% 78	% 44	% 67	% 33	% 22

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Ikusizko Arteetako enpresak -adierazitako moduan- azken kontsumitzaileari bideratuta daude eta, jakina, kokapen apala dute nazioartean.

Azkenik, Ikus-entzunezkoen enpresek ere -hain zuzen ere beren produktuak eta zerbitzuak sektorearen baitan gehien saltzen dituztenek- presentzia bakana dute nazioartean.

9.3 Merkatu berriekiko orientazioa


KSI enpresa gutxi saiatu dira kanpoko funtsak lortzen merkatu berrietara zabaltzeko.

28. grafikoa ikusten den moduan, 10 enpresatik 2 eskas dira kanpoko funtsak bilatu dituztenak; portzentaje hori asko aldatzen da enpresaren izaera juridikoaren arabera, eta oso desberdina da enpresaren kategoriaren arabera.

Datu horiek sektorea geratuta dagoela eta dinamismoa falta zaiola adieraziko lukete, batik bat zenbait UNCTAD kategoriatan.

28. grafikoa

MERKATU BERRIETARA ZABALTZEKO KANPOKO FUNTSAK BILATU DITUZTEN KSI ENPRESAK, IZAERA JURIDIKOAREN ETA UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA




Kanpoko funtsak bilatu dituzten enpresen % 15ek soilik lortu dituzte (29. grafikoa). Portzentaje hori are txikiagoa da enpresa pertsonaletan, Sormen Zerbitzuetan, Kultura Guneetan edo Argitalpen eta Baliabide Inprimatuetan.

Hala, 28. eta 29. grafikoei begira, oso enpresa gutxi daude merkatu berrietan sartzeko prest. Kanpoko funtsak bilatu dituzten enpresa gutxiei gehitzen badiogu zer gutxik lortu dituzten, ondorioa argi dago.

29. grafikoa

MERKATU BERRIETARA ZABALTZEKO KANPOKO FUNTSAK LORTU DITUZTEN KSI ENPRESAK, IZAERA JURIDIKOAREN ETA UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA



9.4 Merkatu berrietan sartzeko zailtasunak


Merkatu berrietan sartzeko zailtasunei buruz enpresek emandako informazioa oso baliotsua da, lagundu egiten baitigu problema kokatzen, baloratzen eta berme osoko estrategiak lantzen.

30. grafikoa ikusten da enpresek zer kokapen duten zailtasun hauen aurrean: merkatuan sartu nahi den produktua edo zerbitzua, enpresako langileen ezaugarriak, nazioartera zabaltzeko arauak, merkatu berrietan sartzearekin lotutako faktoreak (denbora, jakintza, esperientzia...), edo finantzaketa.

Kezkarik larrienak finantzaketa lortzea eta merkatu berrietara zabaltzearen kostuak dira. Eta, horrekin batera, kezka-iturri handia dira nazioartera zabaltzen saiatzeko babes publikorik eza eta helmugako merkatuetako arauak ez ezagutzea (aukerak, denborak, esperientzia...). Badirudi, baina, enpresek konfiantza dutela eskaintzen dituzten produktuetan eta zerbitzuetan, bai eta beren langileen kualifikazioan ere.

30. grafikoa

KSI ENPRESEK ADIERAZITAKO ZAILTASUNA MERKATU BERRIAK GARATZEKO, HAINBAT OZTOPOREN ARABERA (2012 ETA 2013). BATEZ BESTEKO BALIOA: 0-7




Enpresaren izaera juridikoak ez du gehiegi aldatzen zailtasunei buruzko ikuspegia. Berez, hiru diferentzia esanguratsu besterik ez daude enpresa pertsonalen eta sozietate-enpresen balorazioaren artean.

31. grafikoa ikusten denez, sozietate-enpresak zertxobait baikorragoak dira finantzaketa lortzeko aukerei buruz, garrantzi handia eman arren ez daude hain kezkatuak merkatu-aukerei buruzko informazio fidagarria edukitzeaz, eta konfiantza handixeagoa dute merkatu berriak garatzeko esperientzian. Gainerakoan, enpresa mota batean zein bestean oso antzekoa da bai problemen ordena bai ematen zaien garrantzia.

31. grafikoa

KSI ENPRESEK ADIERAZITAKO ZAILTASUNA MERKATU BERRIAK GARATZEKO, HAINBAT OZTOPOREN ETA IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BATEZ BESTEKO BALIOA: 0-7




Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Merkatu berriak irekitzearen eta nazioartera zabaltzearen arloan, enpresen tamainak aldatu egin dezake beren ikuspegia. Ikuspegi horrek ondorio gehiago aurkezten dizkigu 32. grafikoan. Lehenik, enpresa txikiak askoz gehiago kezkatzen dira finantzaketa lortzearekin.

Bigarrenik, enpresa batzuen eta besteen arteko diferentziak ez dira hainbestekoak merkatuen kudeaketarekin lotutako faktoreetan: esperientzia, informazio fidagarria, etab. Eta, hirugarrenik, geure iritziz oso garrantzitsua den diferentzia bat dago: enpresa handiek garrantzi handia ematen diote kultura- eta sormen-produktuak kontsumitzeari, eta ziurtasun gutxiago dute eskainitako produktuen eta zerbitzuen berritasunean.

32. grafikoa

KSI ENPRESEK ADIERAZITAKO ZAILTASUNA MERKATU BERRIAK GARATZEKO, HAINBAT OZTOPOREN ETA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BATEZ BESTEKO BALIOA: 0-7



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

9.5

Euskadiko KSI enpresen kokapen ekonomikoari buruzko daturik esanguratsuenak

- > KSI enpresen % 74k 100.000 €-tik beherako diru-sarrera garbiak dituzte urtean, eta 10 enpresatik 4 ez dira heltzen 20.000 €-ko diru-sarrera garbira.
- > Harreman zuzena dago enpresaren izaera juridikoaren eta diru-sarreraren artean. Enpresa pertsonalen urteko diru-sarrera garbiak apalak dira (% 86 ez dira heltzen 50.000 €-ra).
- > Ikus-entzunezkoetako eta Argitalpen eta Baliabide Inprimatueta enpresek dituzte diru-sarrera garbirik altuenak; aldiz, diru-sarrerarik apalenak dituzte Diseinuko, Ikusizko Arteetako eta Adierazpen Tradizional eta Kulturaletako enpresek.
- > Enpresen tamaina erabakigarria da diru-sarrerak sortzeko ahalmenean.
- > Azken kontsumitzaileak, administrazio publikoa eta sektore bereko enpresak eta profesionalak dira KSI enpresen bezero nagusiak.
- > Zenbat eta presentzia handiagoa merkatu hurbilenean (probintzian, erkidegoan, estatuan), orduan eta presentzia apalagoa nazioarteko merkatuan.
- > Merkatu berriei begira finantzaketa lortzeko egindako ahaleginak kontuan hartuz, sektoreak ez dirudi oso dinamikoa.
- > Hain zuzen ere, finantzaketa da enpresen kezka nagusia merkatu berriak garatu ahal izateko; dena dela, eskainitako produktuen eta zerbitzuen kontsumo apala ere azpimarratzen da.

9.6

Euskadiko KSI enpresen kokapen ekonomikoa: Laburpena

KSI enpresen tamainak eragin handia du diru-sarreretan, bezero motan eta merkatu-orientazioan. Enpresen % 74k 100.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituzte urtean: diru-sarrera garbiak txikiagoak dira enpresa pertsonaletan (% 86 ez dira heltzen 50.000 €-ra). Zenbat eta enpresa handiagoa, orduan eta diru-sarrera gehiago. Azken kontsumitzailea da enpresa horien bezero

nagusia, batez ere enpresa pertsonalena, eta produktu eta zerbitzu asko sektore bereko enpresa eta profesionalengana bideratzen dira. Zenbat eta hurbilago egon, orduan eta presentzia handiagoa merkatuetan; oro har, ez dago merkatu berrietan zabaltzeko behar adina dinamismo. KSIak merkatu berrietara zabaltzeko orduan, muga handia da finantzaketa lortzeko zailtasuna.



10

FINANTZATZEKO
ETA JARDUTEKO
ZAILTASUNAK


10.1 Kanpoko baliabideak lortzea

Kanpoko baliabideak bilatzeak eta lortzeak lau atal ditu: langileak kontratatzea, prestakuntza, lankidetzak eta merkatu berrietan sartzea. Oro har, enpresek prestakuntza- eta lankidetzak jardueretarako lortzen dute baliabide gehien.

Nolanahi ere, enpresa asko dira kanpoko baliabiderik eskuratzen ez dutenak; gehienetan, eskatu ere egiten ez dituztelako. 33. grafikoa agertzen dira datuak.

33. grafikoa

KANPOKO BALIABIDEAK ESKURATU DITUZTEN KSI ENPRESAK (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

34. grafikoak areago xehatzen du kanpoko baliabideak eskuratzen izandako esperientzia. Hala, alde handia dago enpresa batzuek zein besteek izaera juridikoaren arabera eskuratutako baliabideetan.


Berriro ere sozietate-enpresek dute ahalmen gehien baliabideak eskuratzeko, batez ere jarduera ekonomikoetarako baliabideak (kontratazioa, merkatuak).

Hala, enpresa pertsonalek atal horietan eskuratutako baliabideak hutsaren hurrengoak dira.

Berriro ere enpresek desberdin jokatzen dute izaera juridikoaren arabera, betiere tamainarekin oso lotuta. Biak ala biak dira erabakigarriak, eta batzuen eta besteen dinamikak desberdinak izatea dakarte.

34. grafikoa

KANPOKO BALIABIDEAK ESKURATU DITUZTEN KSI ENPRESAK, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA




Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Enpresaren UNCTAD kategoriaren arabera (35. grafikoa), eskatutako funtsen helburuaren arabera aldatzen dira emaitzak, baina baliabideak batez bestekotik gora jasotzen dira Arte Eszenikoetan eta Baliabide Berrietan.

Bestalde, Adierazpen Tradizionalen eta Kulturalen enpresak beste guztiak ez bezalakoak dira, ez baitute dinamismorik kanpoko baliabideak bilatzeko eta eskuratzeko orduan.

35. grafikoa

KANPOKO BALIABIDEAK ESKURATU DITUZTEN KSI ENPRESAK, UNCTAD KATEGORIAREN ARABERA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.


10.2 Instituzioetako finantza-iturriak eskuratzeko zailtasunak

Teorian, enpresen finantza-iturriak publikoak nahiz pribatuak izan daitezke eta, kasu bakoitzean, instituzio desberdinetakoak.

Aurreko faktoreek, ikusiko dugun moduan, eragina dute, baina eskatutako finantzaketaren helburuek ere bai.

36. grafikoa

FINANTZA-ITURRIAK ESKURATZEKO ZAILTASUNA (2012 ETA 2013). BATEZ BESTEKO BALIOA: 0-7



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.


36. grafikoan ikusten den bezala, finantzaketa lortzeko zailtasunik handienak pertsonala kontratatzeko orduan dira. Kasu horretan, finantza-iturriak eskuragarriak publikoak dira, batez ere Eusko Jaurlaritzarenak. Prestakuntza- eta lankidetzajarduerak egiteko, baina, finantza-iturriak publikoak, pribatuak nahiz Administrazio Publikoaren hainbat mailatakoak dira.

Enpresen izaera juridikoa aintzat hartuz gero, balorazio orokor horrek zenbait aldaketa ditu. (37. grafikoa) Sozietate-enpresek gehiago eskuratzen dituzte langileak kontratatzeko finantza-iturri publikoak, baina enpresa pertsonalek arazo gehiago dituzte arlo horretan. Prestakuntza- eta lankidetzajarduerak dagokionez ere, badirudi finantza-iturri publikoak eskuragarriago daudela sozietate-enpresentzat.

Oro har, finantzaketa publikoa eskuragarriagoa da pribatua baino, Europako funtsak lortzea zailagoa da, eta enpresa pertsonalek finantzaketa-arazo gehiago dituzte jarduera guztietan.

37. grafikoa

FINANTZA-ITURRIAK ESKURATZEKO ZAILTASUNA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013).
BATEZ BESTEKO BALIOA: 0-7




Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Enpresen tamaina ere garrantzitsua da finantza-iturriak eskuratzeko orduan. Badirudi enpresa txikiek eskurago dituztela udalen eta aldundien funtsak prestakuntza- eta lankidetzajardueretarako. Enpresa handiek, oro har,

zailtasun handia dute edozein finantzaketa mota eskuratzeko, eta enpresen mota edo tamaina edozein izanik ere, nekez eskuratzen dituzte Europako finantza-iturri publikoak edo pribatuak. (38. grafikoa).

38. grafikoa

FINANTZA-ITURRIAK ESKURATZEKO ZAILTASUNA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BATEZ BESTEKO BALIOA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.


10.3 Bestelako finantza-iturriak eskuratzeko zailtasunak

Instituzioetako funts publikoen edo pribatuen mende ez dauden finantza-iturrien eskuragarritasunak ikuspegi zabalagoa ematen digu (39. grafikoa). Grafiko horretako aukeren

artean, funts propioak eskuratzeko da arazorik handiena. Enpresek bideragarriagozat jotzen dituzte crowdfunding edo arrisku-kapitalaren bidezko aukerak.

39. grafikoa

KSI ENPRESEK BESTELAKO FINANTZA-ITURRIAK ESKURATZEKO ZAILTASUNA (2012 ETA 2013).
BATEZ BESTEKO BALIOA




Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Bestelako finantza-iturriak baloratzeko orduan, enpresa pertsonalek sozietate-enpresek baino zailtasun gutxiago dituzte, seguru asko eskatutako finantzaketa txikiagoa delako eta beste bide horietatik eskura daitekeelako hein batean.

Nolanahi ere, sozietate-enpresek zailtasun gehiago dituzte bestelako finantza-iturri horiek eskuratzeko (40. grafikoa).

40. grafikoa

KSI ENPRESEK BESTELAKO FINANTZA-ITURRIAK ESKURATZEKO ZAILTASUNA, ENPRESAREN IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BATEZ BESTEKO BALIOA




Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

40. grafikoko joera errepikatzen da bestelako finantza-bideak eskuratzeko ahalmena aztertzen dugunean enpresen tamainaren arabera (41. grafikoa). Enpresa handiek erraztasun gehiago dituzte funts propioak eskuratzeko;

aldiz, enpresa txiekiek arinago abiarazten dituzte bestelako finantza-tresnak, batik bat crowdfunding edo arrisku-kapitala. Enpresaren tamaina edozein izanik ere, kreditua eskuratzeko ahalmena berdintsua da.

41. grafikoa

KSI ENPRESEK BESTELAKO FINANTZA-ITURRIAK ESKURATZEKO ZAILTASUNA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (2012 ETA 2013), BATEZ BESTEKO BALIOA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.


10.4 Enpresen jarduerak eta haiek garatzeko zailtasunak

42. grafikoa agertzen dira enpresa bat gaur egun garatzeko funtsezkoak diren sei jarduerak. Adierazi dugun moduan, funtsak lortzea da arazorik handiena KSI enpresentzat. Horretaz

gainera, nazioartera zabaltzeko jarduerak egiteko zailtasunak daude. Dena dela, errazagoa dirudi teknologia erabiltzea edo sareak garatzea, beti zailtasun handi samarrak agertu arren.

42. grafikoa

KSI ENPRESEK JARDUERAK EGITEKO ZAILTASUNA (2012 ETA 2013). BATEZ BESTEKO BALIOA




Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Enpresaren izaera juridikoa erabakigarria da bi jarduerak motatan (43. grafikoa). Enpresa pertsonalek zailtasun gehiago dituzte jarduerak ekonomikoetan (funtsak lortzea eta kudeaketa ekonomikoa); gainerako jarduerari dagokionez,

enpresek zailtasun oso berdintsuak dituzte. Berrito errepikatzen da enpresa pertsonalek zailtasun gehiago izatea kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren arloan.

43. grafikoa

KSI ENPRESEK JARDUERAK EGITEKO ZAILTASUNA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013).
BATEZ BESTEKO BALIOA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.


Enpresen tamaina aintzat hartzen dugunean, aurreko iruzkinetan aipatutako joera guztiak elkarri loturik doaz. Enpresa txikiek -batez ere pertsonalek- zailtasun gehiago dituzte funtsak eskuratzeko eta kudeaketa ekonomikoa garatzeko. Nolanahi ere, gaitasun berdintsua dute teknologia erabiltzeko edo sareak eta berrikuntza-proiektuak garatzeko.

Berriro ere, tamaina erabakigarria da arlo ekonomiko-finantzarioan (44. grafikoa).

Hori zinez interesgarria da nazioartera zabaltzeari begiratzen badiogu: sektoreak ez du hartarako joera handirik, edozein izanik ere enpresen tamaina edo izaera juridikoa. Beraz, KSI enpresen ezaugarri orokor bat da.

44. grafikoa

KSI ENPRESEK JARDUERAK EGITEKO ZAILTASUNA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BATEZ BESTEKO BALIOA



Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

10.5

Euskadiko KSlen finantzatzeko eta jarduteko zailtasunei buruzko daturik esanguratsuenak

- > Enpresa askok (% 10 eta % 33 bitartean) kanpo-baliabideak erabiltzen dituzte beren jarduerak garatzeko. Beraz, halako baliabideen erabilera nahiko mugatua da eta, gainera, enpresa askok ez dute aukera hori kudeatu ere egiten.
- > Enpresek kanpo-baliabideak eskuratzen dituzte batik bat prestakuntza- eta lankidetzajardueretarako; aldiz, helburua langileak kontratatzea denean dituzte zailtasunik handienak funts mota horiek eskuratzeko. Enpresek eskuratutako kanpo-baliabideak, oro har, eremu publikotik datoz.
- > Sozietate-enpresek enpresa sozialek baino gaitasun gehiago dute kanpo-baliabideak eskuratzeko eta, gehienbat, funts horiek langileak kontratatzeko edo merkatu berrietara zabaltzeko direnean. UNCTAD kategorian ez da erabakigarria enpresa batzuek zein besteek finantzaketa lortzeko ahalmenean, non eta ez den kasu oso esanguratsuetan; adibidez Adierazpen Tradizional eta Kulturalen jarduera ez da batere dinamikoa arlo horretan.
- > Funts publikoen edo pribatuen mendeko finantza-iturriei dagokionez, enpresa pertsonalak -eta, oro har, enpresa txikiak- arinagoak dira finantzaketa eskuratzen crowdfunding edo arrisku-kapitala bezalako bidez.
- > Enpresa pertsonalek eta enpresa txikiek zailtasun gehiago dituzte jarduera ekonomiko-finantzarioak kudeatzeko. Gainera, sektorea oso atzera dago nazioartera zabaltzeko jardueretan.

10.6

Euskadiko KSI enpresek finantzatzeko eta jarduteko zailtasunak: Laburpena

SKSI enpresetatik 1 eta 3 artean soilik eskuratzen dituzte beren jarduerak finantzatu ahal izateko kanpo-baliabideak, betiere finantzatu nahi den jarduera motaren arabera. Sozietate-enpresek zailtasun gutxiago dituzte instituzio publikoetatik etorri ohi diren halako baliabideak eskuratzeko. Nolanahi ere, enpresa pertsonalek eta enpresa

txikiek zailtasun gutxiago dituzte crowdfunding edo arrisku-kapital moduko kanpo-funtsak eskuratzeko. Sektoreak oso gaitasun apala du nazioartera zabaltzeko kanpo-funtsak eskuratzeko, eta enpresa pertsonalek eta enpresa txikiek ezintasun dezente dute jarduera ekonomiko-finantzarioak kudeatzeko.



LAUGARREN KAPITULUA

Euskadiko KSlek beren buruaz eta sektoreaz duten pertzepzioa: Esperientziak, jarrerak, iritziak

11



ENPRESA- ETA
JARDUERA- IKUSPEGIA

11.1 Enpresaren kokapena

KSI enpresek sektorearen orainaz eta geroaz duten pertzepzioan elkarrekin ados ez datozen bi sentimendu agertzen dira. Alde batetik, enpresek konfiantza dute beren buruan eta etorkizunean.

Konfiantza horretan oinarriturik, etorkizuna da zalantza sortzen duena. 24. taulan ikusten da pertzepzio hori.

122

24. taula

KSI ENPRESEK BEREN KOKAPENAZ DUTEN PERTZEPZIOA (2012 ETA 2013). PORTZENTAJEA

ERREFERENTZIA-FAKTOREAK	ENPRESAK GUZTIRA
Nire ustez, gure erakundea sendoa da eta etorkizuna du	5,1
Gure erakundearen etorkizunak zalantza handia sortzen digu	4,0
Ordu asko pasatzen ditugu erakunde gisa bizirik nola jarraitu pentsatzen	3,3
Lan egiten dugun sektorea etorkizun handikoa da, baina oso ezegonkorra	4,8
Ustez behintzat, honetan ariko gara lanean bost urte barru ere	6,2

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

24. taulako bi irudipen horiek sendoxeagoak dira sozietate-enpresetan; haiek dira, zalantzarik gabe, egiturarik handiena dutenak eta negozio gehien behar dutenak hura mantentzeko.

Enpresa mota horrek zertxobait gehiago sinesten du bere enpresan eta etorkizunean, baina sentikorragoak dira ezegonkortasunaren eta zalantzaren aurrean. 25. taulan ikusten dira diferentzia txiki horiek.

25. taula

KSI ENPRESEK ENPRESAREN KOKAPENAZ DUTEN PERTZEPZIOA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

ERREFERENTZIA-FAKTOREAK	NORTASUN JURIDIKOA	
	E. Pertsonala	Sozietate-E
Nire ustez, gure erakundea sendoa da eta etorkizuna du	5,0	5,3
Gure erakundearen etorkizunak zalantza handia sortzen digu	3,9	4,2
Ordu asko pasatzen ditugu erakunde gisa bizirik nola jarraitu pentsatzen	3,7	3,5
Lan egiten dugun sektorea etorkizun handikoa da, baina oso ezegonkorra	4,5	5,4
Ustez behintzat, honetan ariko gara lanean bost urte barru ere	5,9	6,7

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Enpresen tamaina kontuan hartuz, batetik orainaldia eta bestetik etorkizuneko itxaropenak agertzen dira. Enpresa txikiek gehiago bizi dute oraina, eta gehiago kezkatzen ditu etorkizun hurbilean bizirik jarraitzeak. Etorkizunari begira,

enpresa handiek baino konfiantza gutxiago dute beren buruan eta inguruan. 26. taulan berriro agertzen dira norberaren gaitasunetik konfiantza eta etorkizuneko zailtasunen zalantza.

26. taula

KSI ENPRESEK ENPRESAREN KOKAPENAZ DUTEN PERTZEPZIOA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

ERREFERENTZIA-FAKTOREAK	ENPRESAREN TAMAINA			
	0-5	6-50	51-100	> 100
Nire ustez, gure erakundea sendoa da eta etorkizuna du	5,0	5,4	6,0	5,5
Gure erakundearen etorkizunak zalantza handia sortzen digu	4,0	3,6	4,1	4,2
Ordu asko pasatzen ditugu erakunde gisa bizirik nola jarraitu pentsatzen	3,7	3,4	2,8	2,5
Lan egiten dugun sektorea etorkizun handikoa da, baina oso ezegonkorra	4,7	4,4	5,1	6,0
Ustez behintzat, honetan ariko gara lanean bost urte barru ere	5,9	6,2	7,0	7,0

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

11.2 Enpresaren zailtasunak

Enpresek gainditu beharreko problemak direla eta, hiru kezka dira nagusi: sektorea nahikoa ez ezagutzea, merkatuaren tamaina txikia

eta problema administratiboak. Izan ere, KSI enpresek behin eta berriro aipatzen dute ez dutela sektorea nahikoa ezagutzen (27. taula).

27. taula

KSI ENPRESEK ENPRESAREN ZAILTASUNEI BURUZ DUTEN PERTZEPZIOA (2012 ETA 2013).
BALIO ABSOLUTUA: 0-7

ERREFERENTZIA-FAKTOREAK	ENPRESAK GUZTIRA
Sormen-erakundeei buruzko ezezagutza handia dago	5,3
Gure merkatua oso mugatua da, zabaldu egin behar gara bizirik jarraitzeko	5,0
Kudeaketa administratiboaren problemek asko oztopatzen dute eguneroko lana	3,4

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Enpresaren izaera juridikoa erabakigarria da kudeaketa administratiboaren problemak baloratzeko orduan (28. taula). Beste arazo

batzuen aurrean gertatzen den moduan, enpresa pertsonalek gehiago antzematen dituzte gabeziak, batez ere eguneroko lanean.

28. taula

KSI ENPRESEK ENPRESAREN ZAILTASUNEI BURUZ DUTEN PERTZEPZIOA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

ERREFERENTZIA-FAKTOREAK	NORTASUN JURIDIKOA	
	E. pertsonala	Sozietate-e
Sormen-erakundeei buruzko ezezagutza handia dago	5,5	5,0
Gure merkatua oso mugatua da, zabaldu egin behar gara bizirik jarraitzeko	4,3	6,1
Kudeaketa administratiboaren problemek asko oztopatzen dute eguneroko lana	3,7	2,5

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

29. *taulan* datoz laburbilduta orain arteko iruzkinak:

> Kudeaketa administratiboaren problemak proportzionalak dira enpresaren tamainarekiko, eta handiagoak dira enpresa pertsonaletan.

> Enpresak zenbat eta handiagoak, orduan eta merkatuak zabaltzeko behar handiagoa.

> Enpresa handiek gehiago sentitzen dute sektoreari buruzko ikusezintasuna eta ezezagutza.

29. *taula*

KSI ENPRESEK ENPRESAREN ZAILTASUNEI BURUZ DUTEN PERTZEPZIOA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

ERREFERENTZIA-FAKTOREAK	ENPRESAREN TAMAINA			
	0-5	6-50	51-100	> 100
Sormen-erakundeei buruzko ezezagutza handia dago	4,7	3,3	5,5	6,6
Gure merkatua oso mugatua da, zabaldu egin behar gara bizirik jarraitzeko	4,1	4,3	6,0	6,2
Kudeaketa administratiboaren problemek asko oztopatzen dute eguneroko lana	3,9	3,1	2,8	2,3

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

11.3 Jardueraren ezaugarriak

KSI enpresek balorazio interesgarria egiten dute beren jarduerako alderdi hauei buruz: enpresa izatea edo ez izatea; negozioira bideratutako jarduerak izatea edo ez izatea; merkatura bideratutako jarduerak izatea edo ez izatea (30. taula).

Lehenbiziko puntuari dagokionez, hamar enpresatik ia zortzik halakotzat jotzen dute beren burua, eta enpresen erdiak inguruk kultura sustatzearekin lotzen dute. Enpresak are adosago daude beren jardunak kultura eta sormena sustatzen dituela esaterakoan.

Negoziara bideratuta egoteari dagokionez, ia % 80ren ustez, beren jarduera negozioa da; eta beste hainbeste dira beren jarduera negozioira bideratuta dagoela uste dutenak.

Azkenik, merkatu-orientazioari dagokionez, hamar enpresatik bederatzik uste dute ezaugarri jakinak dituen merkatu batean lehiatzen direla.

126

30. taula

KSI ENPRESEK BEREN JARDUERAREN EZAUGARRIEI BURUZ DUTEN PERTZEPZIOA
(2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

ERREFERENTZIA-FAKTOREAK	ENPRESAK GUZTIRA
Kultura sustatuz bizimodua ateratzeko modua da	3,6
Beste edozein bezalako negozioa da, sormenean eta kulturaren oinarritua	4,2
Edozein enpresa-jardueraren ezaugarriak ditu	4,5
Guk egiten dugunari ezin zaio negozio esan	1,5
Ez dugu geure burua enpresatzat jotzen	1,5
Honetatik bizitzen saiatzen garen arren, egiten duguna ez dago negozioira bideratuta	1,7
Enpresaren ideia ez dator bat gure jarduerarekin	1,5
Merkatu berezi batean lehiatzen gara, baina, azken batean, merkatua da	6,4

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egin.

Deskribapen orokor horrek aldaketa batzuk ditu enpresaren izaera juridikoaren arabera.

Enpresa-sentimendua askoz sendoagoa da sozietate-enpresetan (hala sentitzen dute hamarretik bederatzik) enpresa pertsonaletan

baino (hamarretik zazpi pasatxo). Ildo berean, negozio-idea errotuagoa dago sozietate-enpresetan. Eta merkatu-orientazioari dagokionez, aldeak txikiagoak dira mota bateko eta besteko enpresen artean.

31. taula

KSI ENPRESEK BEREN JARDUERAREN EZAUGARRIEI BURUZ DUTEN PERTZEPZIOA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

ERREFERENTZIA-FAKTOREAK	NORTASUN JURIDIKOA	
	E. pertsonala	Sozietate-e
Kultura sustatuz bizimodua ateratzeko modua da	4,1	2,8
Beste edozein bezalako negozioa da, sormenean eta kulturaren oinarritua	5,0	2,6
Edozein enpresa-jardueraren ezaugarriak ditu	5,1	3,4
Guk egiten dugunari ezin zaio negozio esan	1,9	0,8
Ez dugu geure burua enpresatzat jotzen	2,0	0,8
Honetatik bizitzen saiatzen garen arren, egiten duguna ez dago negoziara bideratuta	2,0	1,0
Enpresaren ideia ez dator bat gure jarduerarekin	1,7	1,0
Merkatu berezi batean lehiatzen gara, baina, azken batean, merkatua da	6,3	6,8

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Aztertzen ari garen puntu hauei buruz enpresak duen kokapena dela eta, erabakigarria da haren tamaina. Argi dago: zenbat eta enpresa handiagoa, orduan eta enpresa-sentimendu

sendoagoa, negozio batean aritzearen uste irmoagoa, eta merkatu-orientazio handiagoa (azken horri dagokionez, enpresa guztiak berdintsu daude, tamaina gorabehera).

32. taula

KSI ENPRESEK BEREN ZAILTASUNEI BURUZ DUTEN PERTZEPZIOA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

ERREFERENTZIA-FAKTOREAK	ENPRESAREN TAMAINA			
	0-5	6-50	51-100	> 100
Kultura sustatuz bizimodua ateratzeko modua da	4,2	4,4	3,0	2,0
Beste edozein bezalako negozioa da, sormenean eta kulturaren oinarritua	5,0	4,9	3,6	1,5
Edozein enpresa-jardueraren ezaugarriak ditu	5,1	5,5	3,5	2,5
Guk egiten dugunari ezin zaio negozio esan	1,9	1,4	1,0	0,3
Ez dugu geure burua enpresatzat jotzen	1,9	1,7	0,6	0,0
Honetatik bizitzen saiatzen garen arren, egiten duguna ez dago negoziara bideratuta	2,0	1,9	0,4	0,0
Enpresaren ideia ez dator bat gure jarduerarekin	1,7	1,6	1,0	0,2
Merkatu berezi batean lehiatzen gara, baina, azken batean, merkatua da	6,2	6,7	6,8	6,9

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

11.4

Euskadiko KSI enpresen ikuspegiari eta jarduerari buruzko daturik esanguratsuenak

- > KSI enpresek zalantza eta ziurgabetasuna sentitzen dute beren etorkizunari buruz. Dena dela, etorkizuna dutelakoan daude gehienak. Etorkizunari buruzko ziurgabetasun handiagoa dute sozietate-enpresek eta enpresa handiek.
- > Lehen aipatutako arazo ekonomiko-finantzarioez gain, KSI enpresek aipatutako zailtasun nagusiak honako hauek dira, ordenan: sektoreari buruzko ezezagutza, merkatuaren txikitasuna eta problema administratiboak. Zailtasun horien sentimendua aldatu egiten da enpresen tamainaren arabera.
- > KSI enpresa gehienek enpresatzat dute beren burua, beren jarduera negozioa delakoan daude eta, jakina, merkatuari bideratuta ari dira. Ildo orokor horren baitan, enpresa handiak dira hiru ezaugarri horiekin gehien identifikatzen direnak.
- > Hamar enpresatik zazpiren ustez, beren jarduera eta negozioa nabariak dira sormenaz eta kulturaz egiten duten kudeaketagatik eta garapenagatik.

11.5

Euskadiko KSI enpresen ikuspegia eta jarduera: Laburpena

KSI enpresen ustez, beren jarduerak etorkizuna du, baina zalantza eta ziurgabetasuna sentitzen dute enpresa moduan bideragarri izango ote diren. Hots, kultura- eta sormen-jarduerak oraina eta geroa dute, baina enpresek zailtasunak gainditu beharko dituzte eta giro ezegonkor batean jardun beharko dute.

Enpresek hiru oztopo aipatzen dituzte, ordena honetan: sektoreari buruzko ezezagutza, merkatuaren txikitasuna eta problema administratiboak. Egiturari eta jarduerari dagokionez, gehien-gehienek negozio eta merkatu jakin batera bideratutako enpresatzat dute beren burua.

12



INGURU
INSTITUZIONALETA ETA
ADMINISTRATIBOA

12.1

Instituzioen, erakundeen eta langileen konfiantza

Oro har, jardun ahala garatzen da langileen eta erakundeen konfiantza, eta horretan oinarritzen dira jokabideak eta akordioak. Sentimendu eta harreman horietatik finkatzen dira langileen eta erakundeen lehentasunak. Horregatik, oso garrantzitsua da enpresek eragile batzuekiko duten konfiantza neurtzea.

KSI enpresek batez ere beren sektoreko erakundeetan dute konfiantza; horrek berretsi egiten du txosten honen 7. atalean sektorearen barruko lankidetzaz aipatutako joera. Beste muturrean, kultura-saileko arduradun politikoak dira konfiantza gutxien sortzen dutenak.

Horretaz gainera, udaletako eta administrazio publikoetako kultura-teknikariek ere ez dute konfiantza handirik sortzen gutxienez sektorearen % 50entzat; beraz, sektoreko enpresek konfiantza gutxi dute instituzioetan. Handixeagoa da beste eragile batzueganako konfiantza; adibidez, enpresa pribatuak, unibertsitateak edo gobernuz kanpoko erakundeak.

Dena dela, 33. *taulan* ikusten denez, sektoreak konfiantza gutxi du inguruko instituzioetan, instituzioez kanpoko inguruan ere gutxi samar, eta sektore barruko erakundeekiko konfiantza ere ez da orokorra (hamar enpresatik zazpi).

131

33. taula

KSI ENPRESEK INSTITUZIOEZ ETA PERTSONEZ DUTEN KONFIANTZA (2012 ETA 2013).

BALIO ABSOLUTUA: 0-7

INSTITUZIO/ERAKUNDE/PERTSONA MOTA	ENPRESAK GUZTIRA
Administrazio publikoak	3,5
Gobernuz kanpoko erakundeak	4,1
Unibertsitateak	4,2
Sormen- eta kultura-sektoreko erakundeak	4,9
Erakunde pribatuak, oro har (enpresak)	4,3
Udaletako kultura-teknikariak	3,4
Kultura-saileko arduradun politikoak	2,4

Kasu honetan, enpresaren izaera juridikoa erabakigarria da. 34. taulan agertzen denez, sozietate-enpresek konfiantza handiagoa dute erakunde mota guztietan.

Oso bestelako pertzepzioa dago udaletako eta kultura-saileko teknikariei eta arduradun politikoei buruz. Dena dela, instituzio horiekiko konfiantza handiagoa da enpresa pertsonalen artean baino.

34. taula

KSI ENPRESEK INSTITUZIOEZ, ERAKUNDEEZ ETA PERTSONEZ DUTEN KONFIANTZA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

ERREFERENTZIA-FAKTOREAK	NORTASUN JURIDIKOA	
	E-pertsonala	Sozietate-e
Administrazio publikoak	3,2	3,9
Gobernuz kanpoko erakundeak	3,8	4,7
Unibertsitateak	4,1	4,6
Sormen- eta kultura-sektoreko erakundeak	4,6	5,4
Erakunde pribatuak, oro har (enpresak)	4,1	5,5
Udaletako kultura-teknikariak	3,0	4,5
Kultura-saileko arduradun politikoak	2,0	3,5

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Enpresek beren tamainaren arabera emandako ikuspegia ere osagarria da. Oro har, 35. taulan ikusten denez, enpresa zenbat eta handiagoa, orduan eta gehiago hazten da instituzio, erakunde eta eragile mota guztiekiko konfiantza.

Areago, enpresa handiek antzeko konfiantza dute enpresa pribatuetan -sektorekoak izan edo ez izan-, konfiantza handiagoa dute instituzioetan eta, oro har, enpresaren tamainarekin batera hazten da instituzio eta erakundeekiko konfiantza.

35. taula

KSI ENPRESEK INSTITUZIOEZ, ERAKUNDEEZ ETA PERTSONEZ DUTEN KONFIANTZA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

ERREFERENTZIA-FAKTOREAK	ENPRESAREN TAMAINA			
	0-5	6-50	51-100	> 100
Administrazio publikoak	3,2	4,3	5,5	3,0
Gobernuz kanpoko erakundeak	3,6	4,1	5,0	5,0
Unibertsitateak	4,1	3,9	4,5	5,1
Sormen- eta kultura-sektoreko erakundeak	4,6	4,7	5,5	5,6
Erakunde pribatuak, oro har (enpresak)	4,1	4,7	5,6	5,7
Udaletako kultura-teknikariak	2,8	3,5	4,0	5,0
Kultura-saileko arduradun politikoak	1,9	2,2	3,0	4,0

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

12.2 Instituzioen, erakundeen eta langileen ekarpena

Instituzioek, erakundeek eta eragileek sektoreari egindako ekarpenaren balorazioak osatu egiten du konfiantzari buruz ikusi dugun ikuspegia.

36. *taula* azterturik, gutxienez hiru gogoeta egin ditzakegu:

- > KSI enpresen ustez, oro har, eragile gehienek ezer gutxi ekartzen diote sektoreari.
- > Konfiantzarekin gertatzen zen moduan, ekarpenik handiena sektore barruko erakundeena da; txikiena, berriz, kultura-saileko arduradun politikoena.
- > Instituzioen ekarpena oso apal baloratzen da, gainerako instituzioen, erakundeen eta eragileen ekarpenei buruzko iritziarekin bat.

36. *taula*

KSI ENPRESEK INSTITUZIOEN, ERAKUNDEEN ETA PERTSONEN EKARPENAZ DUTEN BALORAZIOA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

INSTITUZIO/ERAKUNDE/PERTSONA MOTA	ENPRESAK GUZTIRA
Administrazio publikoak	3,1
Gobernuz kanpoko erakundeak	2,4
Unibertsitateak	3,4
Sormen- eta kultura-sektoreko erakundeak	4,6
Erakunde pribatuak, oro har (enpresak)	3,5
Udaletako kultura-teknikariak	2,7
Kultura-saileko arduradun politikoak	1,9

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Konfiantza baloratzean gertatzen zen moduan, sozietate-enpresek hobeto baloratzen dute bateko eta besteko eragileen ekarpena, la

kasu guztietan, enpresa pertsonalek okerrago baloratzen dituzte eragileak (37. *taula*).

37. taula

KSI ENPRESEK INSTITUZIOEN, ERAKUNDEEN ETA PERTSONEN EKARPENAZ EGINDAKO BALORAZIOA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

INSTITUZIO/ERAKUNDE/PERTSONA MOTA	NORTASUN JURIDIKOA	
	E-pertsonala	Sozietate-e
Administrazio publikoak	3,0	3,3
Gobernuz kanpoko erakundeak	2,2	2,7
Unibertsitateak	3,0	4,0
Sormen- eta kultura-sektoreko erakundeak	4,4	4,9
Erakunde pribatuak, oro har (enpresak)	3,6	3,5
Udaletako kultura-teknikariak	2,6	2,9
Kultura-saileko arduradun politikoak	1,7	2,5

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Enpresaren tamaina berriro ere erabakigarria da enpresen arteko diferentzietan.

38. taularen arabera -konfiantzaren kasuan

bezain nabarmena ez bada ere-, zenbat eta enpresa handiagoa, orduan eta hobea da balorazioa ia kasu guztietan.

135

38. taula

KSI ENPRESEK INSTITUZIOEN, ERAKUNDEEN ETA PERTSONEN EKARPENAZ EGINDAKO BALORAZIOA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

INSTITUZIO/ERAKUNDE/PERTSONA MOTA	ENPRESAREN TAMAINA			
	0-5	6-50	51-100	> 100
Administrazio publikoak	2,8	3,7	3,6	3,0
Gobernuz kanpoko erakundeak	2,2	2,9	2,0	4,0
Unibertsitateak	3,0	3,6	4,0	4,1
Sormen- eta kultura-sektoreko erakundeak	4,4	4,7	4,9	5,0
Erakunde pribatuak, oro har (enpresak)	3,5	3,9	3,7	3,5
Udaletako kultura-teknikariak	2,5	2,8	3,0	2,8
Kultura-saileko arduradun politikoak	1,6	1,9	2,5	2,6

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

12.3 Enpresen zenbait premia

Txosten honetan zehar aztertu ditugun zailtasunez gain, 39. *taulan* datoz enpresen premiarik nabarmenetako batzuk.

Hiru erronka nagusi daude: lankidetzaren areagotzea, merkatuak hobeto ezagutzea eta estrategia bat diseinatzea. Lankidetzaren areagotze beharra aipatzen du enpresen % 76k.

39. *taula*

KSI ENPRESEK BEREN PREMIA BATZUEZ EGINDAKO BALORAZIOA (2012 ETA 2013).

BALIO ABSOLUTUA: 0-7

PREMIA MOTAK	ENPRESAK GUZTIRA
Sektoreko erakundeekiko lankidetzaren areagotzea	5,3
Tokiko merkatua hobeto ezagutzea	3,9
Nazioarteko merkatua hobeto ezagutzea	4,6
Nire erakundearen plan estrategiko bat	4,1

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Enpresaren izaera juridikoaren ikuspegitik begiratuta, erronka horietako baten garrantzia ez da berdina (40. *taula*). Enpresa pertsonala izan edo sozietate-enpresa izan, ez dago interes berdina tokiko merkatuarekiko. Datu horri gehitzen badizkiogu txostenean aipatu ditugun beste batzuk, badirudi enpresak espezializatzen ari direla.

41. *taulan* ikusi ahal izango dugunez, merkatu batera edo bestera sartzeko gaitasuna baldintzatzen du enpresaren izaera juridikoak eta tamainak. Estrategiarekiko kezka ere askoz nabarmenagoa da enpresa pertsonalen artean.

40. taula

KSI ENPRESEK BEREN PREMIA BATZUEZ EGINDAKO BALORAZIOA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

PREMIA MOTAK	NORTASUN JURIDIKOA	
	E-pertsonala	Sozietate-e
Sektoreko erakundeekiko lankidetzaren areagotzea	4,8	5,9
Tokiko merkatua hobeto ezagutzea	4,1	3,0
Nazioarteko merkatua hobeto ezagutzea	4,3	5,1
Nire erakundearen plan estrategiko bat	4,5	3,3

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Berriro ere, enpresaren tamaina erabakigarria da enpresen premiek duten garrantzia neurtzeko orduan. Zenbat eta enpresa handiagoa, orduan eta lankidetzaren premia gehiago,

tokiko merkatuarekiko baino interes handiagoa nazioarteko merkatuarekiko, eta gogoeta estrategikoa txertatuagoa dago enpresaren bizian.

41. taula

KSI ENPRESEK BEREN PREMIA BATZUEZ EGINDAKO BALORAZIOA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

PREMIA MOTAK	ENPRESAREN TAMAINA			
	0-5	6-50	51-100	> 100
Sektoreko erakundeekiko lankidetzaren areagotzea	4,8	4,8	6,0	5,9
Tokiko merkatua hobeto ezagutzea	4,3	3,6	2,8	3,1
Nazioarteko merkatua hobeto ezagutzea	4,2	4,9	5,0	5,5
Nire erakundearen plan estrategiko bat	4,4	4,5	3,0	2,9

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

12.4

Enpresen hobekuntza-lan posibleak

42. *taulan*, ikuspegi ekonomikotik agertzen dira enpresen premiak. Enpresentzat hiru erabilera nagusi ditu finantzaketa gehigarri batek: ohiko jarduna, langileak prestatzea eta administrazio-egitura hobetzea.

Behin baino gehiagotan azaldu dira hiru gai horiek, eta sektorearen kezka nagusiak dira. Egia esan, administrazio-egitura hobetzearen kezka txikiagoa da.

42. *taula*

KSI ENPRESEK HOBEKUNTZA-LAN BATZUEZ EGINDAKO BALORAZIOA (2012 ETA 2013).
BALIO ABSOLUTUA: 0-7

HOBEKUNTZA-LANAK	ENPRESAK GUZTIRA
Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza publikoak	5,4
Finantzaketa merkeagoa gure jardunarentzat	5,7
Nire erakundeko langileak prestatzeko laguntzak	5,4
Nire erakundearen kudeaketa administratiborako laguntzak	4,3

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

Enpresen izaera juridikoa aintzat harturik (43. *taula*), ohiko berezitasunak agertzen dira premietan. Hain zuzen ere, prestakuntza eta

kudeaketa administratiboa finantzatzea kezka handiagoa da enpresa pertsonalentzat, jarduera horietarako funts gutxiago jasotzen baitituzte.

43. taula

KSI ENPRESEK HOBEKUNTZA-LAN BATZUEZ EGINDAKO BALORAZIOA, IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

HOBEKUNTZA-LANAK	NORTASUN JURIDIKOA	
	E-pertsonala	Sozietate-e
Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza publikoak	5,5	5,1
Finantzaketa merkeagoa gure jardunarentzat	5,6	6,0
Nire erakundeko langileak prestatzeko laguntzak	5,4	5,3
Nire erakundearen kudeaketa administratiborako laguntzak	4,6	3,8

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

139

Arazo horiek enpresaren tamainaren arabera aztertzeak ez du datu esanguratsurik ematen,

berriro ere tamainak ez baitu eraginik enpresek lehenetsitako premietan eta hobekuntza-lerroetan.

44. taula

KSI ENPRESEK HOBEKUNTZA-LAN BATZUEZ EGINDAKO BALORAZIOA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (2012 ETA 2013). BALIO ABSOLUTUA: 0-7

HOBEKUNTZA-LANAK	ENPRESAREN TAMAINA			
	0-5	6-50	51-100	> 100
Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza publikoak	5,5	5,1	4,9	5,0
Finantzaketa merkeagoa gure jardunarentzat	5,5	5,7	6,0	6,1
Nire erakundeko langileak prestatzeko laguntzak	5,5	5,0	5,7	5,0
Nire erakundearen kudeaketa administratiborako laguntzak	4,7	4,3	4,1	3,5

Iturria: 2014ko KSI inkesta. Geuk egina.

12.5

Euskadiko KSlen inguru instituzionalari eta administratiboari buruzko daturik esanguratsuenak

- > KSI enpresek ez dute konfiantza handirik eurekin harremanak dituzten eragileekin. Oso apala da administrazio publikoarekiko konfiantza, batik bat kultura-saileko arduradun politikoeikoa. Aldiz, sektoreko erakundeek eta enpresek jasotzen dute konfiantza gehien. Enpresaren tamaina hazi ahala, handiagoa da instituzio, erakunde eta pertsonetikiko konfiantza.
- > Oro har, sektoreak balorazio kaskarra egiten du instituzio, erakunde eta pertsonen ekarpenaz. Balorazio horren mutur banatan daude sektoreko erakundeak eta enpresak (ekarpen handiagoa) eta kultura-saileko arduradun politikoak (ekarpen txikiagoa).
- > Enpresek erronka nagusitzat jotzen dute sektore barruko lankidetzaren areagotzea, merkatuak hobeto ezagutzea eta antolamendu-estrategia bat diseinatzea. Sozietate-enpresak eta enpresa handiak enpresa pertsonalak baino askoz gutxiago interesatzen dira tokiko merkatuarekin.
- > Enpresek oso ongi baloratzen dituzte finantzaketa handitzen dituzten hobekuntzalanak. Enpresa txikiek garrantzi handiagoa ematen diote prestakuntzarako eta kudeaketa administratiboa hobetzeko finantzaketari; enpresa handiek, berriz, eguneroko jarduna merkatuzko funtsak lortzea lehenesten dute.

12.6

Euskadiko KSlen inguru instituzionala eta administratiboa: Laburpena

Sektoreak konfiantza apala du berarekin harremanak dituzten eragileekin -instituzioak, erakundeak edo pertsonak-, eta argi geratzen da administrazio publikoarekiko konfiantzarik eza. Ildo beretik, ez du ongiegi baloratzen hainbat eragilek sektoreari egiten dioten ekarpena.

Balorazio handia jasotzen du lankidetzaren areagotzeak, merkatuak hobeto ezagutzeak eta kudeaketa administratiboa egokiagoak, baina are handiago jasotzen dute finantzaketa onuragarriagoak lortzen laguntzeko hobekuntza-lanak.



BOSGARREN KAPITULUA
Euskadiko KSlen Oraina eta Geroa

13



ONDORIOAK ETA
GOMENDIOAK

13.1 KSlen sektorea diagnostikatzeko patroiak

SEKTOREAREN EGITURARI BURUZKOAK

1. PATROIA
Kuantitatiboki esanguratsua den sektorea
2. PATROIA
Enpresa-egitura ahula
3. PATROIA
Askotariko jarduera heterogeneotan
espezializatua
4. PATROIA
Egitura ahuleko eta ikusgarritasun
gutxiko sektorea

SEKTOREAREN GAITASUN PRAKTIKOEI ETA FUNTZIONALEI BURUZKOAK

5. PATROIA
Ongi prestatutako eta esperimentatutako
giza kapital
6. PATROIA
Lankidetzaz-ohitura mugatuak
7. PATROIA
Berrikuntzaz baliatzen den sektorea
8. PATROIA
Berrikuntza baldintzatzen duten muga
ekonomikoak

SEKTOREAREN KOKAPEN EKONOMIKOARI BURUZKOAK

9. PATROIA
Diru-sarrerak areagotzeko zailtasunak
10. PATROIA
Bezereen eta merkatuen lokalismoa
11. PATROIA
Merkatu berrietara zabaltzeko joera
herabea
12. PATROIA
Finantzaketa eskuratzeko zailtasunak

ENPRESEN PERTZEPZIOARI BURUZKOAK

13. PATROIA
Etorkizunari begira, konfiantzaren eta
zalantzaren artean
14. PATROIA
Jardueraren balorazioa: enpresa-
nortasuna
15. PATROIA
Instituzioekiko konfiantza apala

SEKTOREAREN EGITURARI BURUZKOAK

1. PATROIA: Kuantitatiboki esanguratsua den sektorea

Sektore honen garrantzia neurtzeko erarik onena adierazle batzuk aipatzea da:

- > 2012an zenbatutako 14.859 KSI enpresak Euskadiko enpresa guztien % 9 dira.
- > 2012an, KSien sektoreko 71.607 enpleguak Euskadiko enplegu osoaren % 8 dira.
- > 2012an KSien sektorean sortutako BEGd Euskadin sortutako BEGd osoaren % 2 pasatxo da.

Oro har, enpresa-kopurua, enplegu-kopurua eta sortutako BEGd hobetuz joan dira 2007-2012 aldian, krisi ekonomikoak gogor jo duen arren. Hala, sektoreko enpresak ugartu, enplegua % 3 eskas murriztu (Euskadi osoan % 8), eta sortutako BEGd Euskadiko 2007ko 2,8tik 2012ko 2,2ra igaro da. Konparatze aldera, bitarte horretan, Industriaren eta Energiaren sektorean sortutako BEGd Euskadiko 2007ko % 27,8tik 2012ko % 23,3ra igaro da, eta eraikuntzaren sektorean 2007ko % 10,8tik 2012ko % 7,2ra.

2. PATROIA: Enpresa-egitura ahula

Sektoreak kuantitatiboki duen garrantzia ez da nahasi behar enpresa-egituraren sendotasunarekin. Izan ere, sektorea kuantitatiboki esanguratsua da, baina enpresa-egitura ahula da:

- > 2012an, enpresen % 68 pertsonalak dira; 2007an, berriz, % 62 ziren. Gutxitu egin dira sozietate-enpresak.
- > 2012an enpresen batez besteko tamaina 3,8 langilekoa da enpresa bakoitzeko, eta 2007an 5 langilekoa.
- > 2012ko enpleguaren % 14 autoenplegua da, eta 2007an % 10 zen. Gutxitu egin da soldatapeko langileen portzentajea.
- > Sozietate-enpresek sortzen dute soldatapeko enpleguaren % 67, eta irabazi asmorik gabeko erakundeek % 29.
- > 2012an, sozietate-enpresek sortu dute sektoreko BEGd-aren % 82,4.

2007-2012 bitartean enpresa pertsonalak ugartitzeak eta sozietate-enpresak gutxitzeak areagotu egin du sektorearen ahultasuna; izan ere, enpresa-jardunaren funtsezko faktoreei eragiten die: tamaina, enplegua edo diru-sarrerak sortzeko gaitasuna.

Enpresa pertsonalak oso txikiak dira, autoenpleguan oinarritzen dira, ia batere soldatapeko enplegurik ez dute sortzen, diru-sarrerak sortzeko gaitasun mugatua dute, bezero nagusia azken kontsumitzailea dute, eta beren negozio-eredua zabaltzeko zailtasun gehiago dituzte, baliabide mugatuengatik.

Enpresa mota honetan oinarritutako sektoreak muga larriak ditu bere bezeroak eta merkatuak hedatzeko orduan. Ezaugarri horiek dituen sektore batek kontzentratu egiten ditu bere jarduerak gune produktibo eta geografiko txikitan, eskuragarriagoak direlako beren neurri eta eskakizunengatik.

3. PATROIA: Askotariko jarduera heterogeneotan espezializatua

Sektoreko jarduerak bederatzi azpisektoretan egituratzen dituen UNCTAD sailkapena erabilita ere, askotarikoak dira azpisektore bakoitzaren jarduerak eta pisu erlatiboa. Honako hauek dira aniztasun eta heterogeneotasun horren daturik esanguratsuenak:

- > Sormen Zerbitzuen, Diseinuaren eta Baliabide Berrien azpisektoretan kontzentratzen dira enpresen % 70, eta sei azpisektorekoak dira gainerako enpresen % 30.
- > Sektorearen % 50 inguru zerbitzuak sortzen dago espezializatuta, eta produktuari bideratuta dago gainerako % 50.
- > Kuantitatiboki garrantzitsua den azpisektorean -Sormen Zerbitzuak (sektorearen % 46,6)- enpresen % 80 pertsonalak dira, eta soldatapeko enplegu osoaren % 31 eta BEGd-aren % 31 besterik ez du sortzen.

> Ikusten denez, BEGd gehien sortzen duten azpisektoreak produktura bideratuta daude, eta barne-oreka hobea dute enpresa pertsonalen eta sozietate-enpresen artean. Bi adibide: Baliabide Berriek -sektoreko enpresen % 5, eta barruko sozietate-enpresak % 46 direlarik-, sektoreak 2012an sortutako BEGd-aren ia % 26 eman dute. Argitalpen eta Baliabide Inprimatuek -sektoreko enpresen % 6, eta barruko sozietate-enpresak % 78 direlarik-, sektoreak 2012an sortutako BEGd-aren % 22 eman dute.

Sektorearen aniztasuna eta heterogeneotasuna ikusten da azpisektoreek garatzen dituzten jarduera motan, bai eta haien tamainan, jarduerak produktura edo zerbitzura bideratzean, azpisektore bakoitzaren barne-osaeran (enpresaren izaera juridikoaren arabera), eta emaitza ekonomiko lortzeko ahalmenean.

146

4. PATROIA: Egitura ahuleko eta ikusgarritasun gutxiko sektorea

Patroi horrek hainbat faktore ditu: sektoreko jardueren aniztasuna; enpresa pertsonalen ugartasuna; enpresa gehien txikitasuna; kultura eta sormena enpresa moduan artikulatzen hasi berriak izatea; kultura- eta sormen-sektoreko kideei buruzko zehaztasunik eza; kultura- eta sormen-produktuen eta -zerbitzuen kontsumo oraindik txikia; edo merkatur mugatuta eta gutxi artikulatuta egotea. Faktore horiek guztiak konbinaturik, ondorio nabarmen batzuk sortzen dira:

- > Sektorea nahiko ezezaguna da bertako kideentzat, merkatuarentzat eta botere publikoentzat.
- > Sektoreak ez du topaketaren eta elkartrukearen aldeko tradiziorik eta ohiko jardunik.

> Sektorea hain ikusezin izateak zaildu egiten du hedatzea, bere eskakizunak ezagutzea eta bideratzea, instituzio publikoekin hitz egitea, etab.

Tradizioz ezaren, artikulazio ahularen eta ikusgarritasun mugatuaren ondorioz, barne- eta kanpo-nortasuna lausoak dira, eta hori oztopo estruktural, funtzional eta sinboliko handia da.

SEKTOREAREN GAITASUN PRAKTIKOEI ETA FUNTZIONALEI BURUZKOAK

5. PATROIA: Ongi prestatutako eta esperimentatutako giza kapitala

KSlen sektoreko langileen prestakuntza oso altua da: goi-tituludunak dira % 75, eta titulazio horien portzentaje handi bat sektorearen berezko premiei eta eginkizunei dago bideratuta. Hori gutxi balitz, hamar langiletik ia zazpi hamar urte edo hortik gorako esperientzia dute sektorean, eta % 90ek bost urtetik gorako esperientzia dute. Prestakuntzaren eta esperientziaren adierazle horiei beste batzuk ere gehitu behar zaizkie:

- > Sektorean nagusi dira emakumeak (% 56).
- > Langileen % 15 soilik dira 30 urtez beherakoak, eta adin horretakoak oso-oso gutxi dira zenbait azpisektoretan: Kultura

Guneak (% 2), Arte Eszenikoak (% 4) edo Ikusizko Arteak (% 6). Aldiz, 30 urtez beherako langile gehiago daude teknologiarekin lotuago dauden jardueretan: Ikus-entzunezkoak (% 37) edo Baliabide Berriak (% 23).

- > Langileen prestakuntza- eta eguneratze-jarduerak ohikoak dira sektoreko enpresen erdia pasan. Portzentaje hori handitu egiten da sozietate-enpresetan (% 66), bai eta enpresan tamaina handitu ahala ere.

Beraz, sektoreko pertsonak prestatuta daude eta adituak dira, 30 urtez beherako langile gutxi daude, eta gutxienez enpresen erdiak prestakuntza-jarduerak egin ohi ditu.

6. PATROIA: Lankidetzaren mugatuak

Beste profesional eta erakundeekiko lankidetzaren nahiko zabaldua dago sektorean: hamar enpresatik zazpi baino gehiago lankidetzan aritzen dira hainbat jarduerara garatzeko. Patroi horretaz gain, lankidetzaren jardueraren horien ezaugarri nagusiak aipatzea komeni da:

- > Sozietate-enpresek enpresa pertsonalek baino bi aldiz lankidetzaren jarduerara gehiago egiten dituzte beste profesionalekin eta erakundeekin.
- > Lankidetzaren hori, batez ere, kulturako, merkataritzako eta berrikuntzako jarduerak egiteko da.
- > Azpisektoreen jokabidea ez da homoginoa, eta alde esanguratsuak daude lankidetzaren ohituretan.

- > Lankidetzaren gehiago dago geografikoki hurbil daudenekin, sektore bereko profesionalekin eta enpresekin, eta nahiko gutxi sektoretik kanpoko profesionalekin eta instituzioekin.
- > Lankidetzaren horrek konfiantza handi samarra sortu du sektoreko profesionalekin eta enpresekin, eta oso konfiantza apala sektoretik kanpoko eragileekin.

Lankidetzaren ezaugarri horietaz gainera, ekimen gutxi bideratzen dira nazioartera zabaltzeko, eta sektorearen erronkarik handienetako bat da.

7. PATROIA: Berrikuntzaz baliatzen den sektorea

Berrikuntza-jarduerak ohikoak dira hamar enpresatik ia bederatzitan, batez ere sozietate-enpresetan. Azpisektore guztietan, gainera, enpresa gehienek edo ia denek berrikuntza-jarduerak egiten dituzte. Jokabide orokor horretan oinarriturik, berezitasun batzuk azpimarra daitezke:

- > Berrikuntza-jarduerak produktuak eta zerbitzuak sortzera edo hobetzera daude bideratuta, batez ere.
- > Berrikuntza-jarduerak batez ere enpresaren baitan egiten dira, bertako baliabide pertsonalak erabiliz. Kasuen % 30ean soilik sortzen dira enpresaren barruko eta kanpoko langileen lankidetzatik.

- > Sozietate-enpresetan enpresa pertsonaletan baino bi aldiz gehiago ematen da barruko eta kanpoko langileen arteko lankidetzaz berrikuntza-jarduerak egiteko.
- > Tamainarekin proportzioan balio erantsi gehien sortzen duten azpisektoreak dira -Baliabide Berriak eta Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak- berrikuntza hori produktuak sortzera eta hobetzera gehien bideratzen dutenak, eta barruko eta kanpoko langileen arteko lankidetzaz gehien dutenak.

Horretaz gainera, sozietate-enpresak enpresa pertsonalak baino emanagoak dira bestelako berrikuntza-jardueretara ere: prozesuen berrikuntza, antolaketaren berrikuntza edo akordioen bultzada.

148

8. PATROIA: Berrikuntza baldintzatzen duten muga ekonomikoak

Enpresek faktore ekonomiko-finantzarioak aipatzen dituzte berrikuntzak garatu ahal izateko oztopo moduan. Ordena honetan doaz, garrantziaren arabera: finantzaketa, inbertsioa itzultzeko epeak, kostuak eta arriskuak. Barrera burokratiko-administratiboek ere zaildu egiten dituzte berrikuntza-prozesuak.

Lehen mailako oztopo horiek gorabehera, enpresak ziurrago daude eta kezka gutxiago dituzte berrikuntza-prozesuen hiru alderdiri buruz:

- > Langileen kualifikazioa.
- > Berrikuntzak garatu ahal izateko esperientzia.
- > Merkatu-aukerei buruzko informazioa.

Aipatutako oztopo guztien balorazioa eta haiei emandako garrantzia ezer gutxi aldatzen da izaera juridikoaren arabera edo UNCTAD jardueraren arabera. Beraz, oztopo horiei buruzko iritzia berdintsu samarra da sektore osoan.

SEKTOREAREN KOKAPEN EKONOMIKOARI BURUZKOAK

9. PATROIA: Diru-sarrerak areagotzeko zailtasunak

Sektorearen egitura bereziak eragin handia du enpresen diru-sarreraren bilakaeran. Enpresen tamaina txikia -hainbeste enpresa pertsonal egotearen ondorio logikoa- erabakigarria da enpresen diru-sarreretan. Hala, hamar enpresatik seik baino gehiagok ez dute lortu 49.999 €-tik gorako diru-sarrera garbirik 2013an. Erreferentzia horrekin, enpresen diru-sarrera garbiak handitzea dakar enpresen tamainak eta sozietate-enpresa izateak. Hori horrela, eta sektoreak 2007-2012 aldian izandako bilakaeraren arabera, enpresen diru-sarrera garbiak ez handitzeko oztopoak hiru dira, gutxienez:

- > Enpresa pertsonalak % 32 ugaritu dira.
- > Enpresen batez besteko tamaina igaro da 2007ko 5 langiletik 2012ko 3,8ra.
- > Sozietate-enpresen kopurua ezer gutxi aldatu da: zertxobait bakandu dira.

Datuek erakusten dutenez, sektorearen egiturak duen bilakaera ez da egokia enpresen -eta, beraz, sektorearen- diru-sarrera garbiak areagotzeko.

149

10. PATROIA: Bezeroen eta merkatuen lokalismoa

Bezero nagusia azken kontsumitzailea da eta nazioarteko merkatuetako presentzia apala da. Hori askoz nabarmenagoa da enpresa pertsonaletan (sektorearen % 68), eta enpresa horiek nolabaiteko itomenaren beste sintoma batzuk ere badituzte:

- > Sektore bereko profesionalak eta enpresak dira bezero nagusiak.
- > Harreman urria dute estrategikoak diren unibertsitateekin eta teknologia-zentroekin.
- > Bezero gehienek kokapena geografikoa Euskal Autonomia Erkidegoa da.

Sozietate-enpresek dibertsifikazio eta hedapen handiagoa dute, eta bezeroen artean dezenteko pisua dute administrazio publikoak eta beste sektore batzuetako enpresek. Horretaz gainera, presentzia nabarmena dute Espainiako merkatuan.

Berriro ere argi dago: bezeroen eta merkatuen lokalismoa gainditzeko, behar-beharrezkoa da -estrategia eta neurri berezietan gain- enpresaren tamaina eta izaera juridikoa erabakigarriak direla aitortzea. Ildo horretan, eta lehen azaldutako moduan, ez dira egokiak sektorean finkatzen ari diren egiturak; hau da, enpresen tamaina eta izaera juridikoa.

11. PATROIA: Merkatu berrietara zabaltzeko joera herabea

Merkatu berrietara zabaltzeko baldintzak aztertzeko orduan, kostu ekonomikoa eta finantzaketa dira enpresek gehien aipatzen dituzten problemak. Horren ildoan, enpresen % 20 eskasek bilatu ditu horretarako kanpofuntsak azken bi urteotan (2012 eta 2013). Are larriagoa da hamar enpresa pertsonaletik bat bakarrik saiatu izana kanpoko funtsak eskuratzen. Horri gehitzen badiogu kanpoko funtsak eskatu dituzten enpresen % 15ek soilik eskuratu dituztela, enpresen kostu ekonomikoa eta finantzarioak murriztearen balantzea oso negatiboa da.

Argi dago oso enpresa gutxik hartzen dutela kontuan merkatu berrietara zabaltzea, eta, aipatutako faktore ekonomikoez eta finantzarioez gain, beste mota bateko zailtasunak ere azpimarratzen dituzte:

- > Nazioartera zabaltzeko oinarririk eza.
- > Nazioarteko bazkiderik eza.
- > Merkatu berrietara zabaltzeko esperientzia urria.
- > Aukerei buruzko informazio fidagarririk eza

Dena dela, enpresek konfiantza dute eskaintzen dituzten produktuetan eta zerbitzuetan, bai eta beren langileen kualifikazioan ere. Merkatu berrietara -batez ere nazioartera- zabaltzeak, baina, hainbat neurri konbinatzen dituen estrategia bat eskatzen du, enpresak eragile indibidual soilak izan gabe.

150

12. PATROIA: Finantzaketa eskuratzeko zailtasunak

Finantzaketari dagokionez, deigarria da zenbat eta zenbat enpresak ez duten kanpoko baliabiderik eskuratzen, saiatu ere egiten ez direlako. Merkatu berrietara zabaltzeko finantzaketa lortzeko orduan gertatzen den bezala, bestelako jarduerak egiteko finantzaketa mugatua da, eta enpresen % 70 baino gehiago ez dira funtsak lortzeko gai.

Hiru dira helburuak (langileak kontratatzea, prestakuntza-jarduerak eta lankidetzajarduerak), baliabide ekonomikoak lortzeko iturri publikoak eta pribatuak badaude, baina oso uste zabaldua da finantzaketa lortzea zaila edo oso zaila dela. Hain zuzen ere:

- > Enpresei oso zaila egiten zaie langileak kontratatzeko funtsak lortzea. Pixka bat errazagoa da lankidetzajarduerak egiteko funtsak eskuratzeko, eta are gehiago prestakuntza-jarduerak egiteko.

- > Jarduera horietako edozein egiteko, funts publikoak lortzea baino askoz zailagoa da funts pribatuak lortzea.
- > Lortzen errazena diren funts publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio publikoenak dira, ondoren espainiar estatuarenak eta ondoren Europarenak.
- > Euskal Autonomia Erkidegoan, enpresa txikiek eskuragarriago dituzte udaletako eta aldundietako funtsak; enpresa handiek, berriz, gehiago eskuratzen dute aldundien eta Eusko Jaurjaritzaren finantzaketa

Bestelako finantza-iturriei dagokionez, enpresek ongi baloratzen dituzte crowdfunding edo arrisku-kapitala, batez ere enpresa pertsonalek eta txikiek.

ENPRESEN PERTZEPZIOARI BURUZKOAK

13. PATROIA: Etorkizunari begira, konfiantzaren eta zalantzaren artean

Enpresek beren gaitasunei, bideragarritasunari eta etorkizunari buruzko konfiantzarekin batera doa inguruan sumatzen den zalantza eta ezegonkortasuna. Anbibalentzia orokor eta logiko hori desberdin agertzen da, zenbait faktorearen arabera:

- > Enpresa pertsonalek eta txikiek kezka gehiago dute orainari buruz.
- > Enpresari eta etorkizunari buruzko konfiantza handiagoa da sozietate-enpresetan eta enpresa handietan.

> Etorkizunari buruzko zalantza denean dago zabaldua, eta enpresaren izaera juridikoa eta tamaina ez dira esanguratsuak.

Konfiantza horrek berretsi egiten du lehen esandakoa langileen gaitasunei eta esperientziari buruz, eta eskainitako produktuen eta zerbitzuen kalitateari buruz; hots, erakundearen eta sektorearen gaitasunetan sinesten da.

14. PATROIA: Jardueraren balorazioa: enpresa-nortasuna

Enpresa-sentimendua eta egindako jarduera enpresa-jarduera den sentimendua oso zabaldua dago. Hor barruan sartzen da jarduera negoziotzat hartzea eta merkatu-orientazio argia. Enpresa-sentimendua dute eta jarduera negoziotzat hartzen dute enpresen % 80k, eta %90 baino gehiagoren esanetan, merkatu batean lehiatzen dira.

Enpresa-nortasun horrek ezaugarri hauek ditu:

- > Enpresa-nortasuna sendoagoa eta sakonagoa da sozietate-enpresetan eta enpresa handietan.

> Sormenarekiko eta kulturarekiko lotura azpimarratzen dute enpresa pertsonalek eta enpresa txikiek.

> Enpresak bat datoz merkatu batean lehiatzen direla esatean.

Enpresa-nortasun horrekin batera, bizi-bizi agertzen dira erakundeen ohiko kezkak: baliabideak eskuratzea, langileen prestakuntza, lankidetzeta, berrikuntza, merkatuak zabaltzea, etab.

15. PATROIA: Instituzioekiko konfiantza apala

Administrazio publikoak oro har eta, zehazki, bere eragile batzuek, ez dute konfiantza nahikorik eragiten sektoreko enpresen artean. Enpresek konfiantza gutxi dute instituzioetan, eta ez dute askorik baloratzen instituzioek sektoreari egindako ekarpena. Instituzioekiko konfiantza apal horretaz gain, beste eragileek ere -unibertsitate, GKE, sektoretik kanpoko enpresa, etab.- ekarpen eskasa egiten dutela agertzen da, eta haiekiko konfiantza ere nahiko txikia da.

Joera orokor horretatik abiatuz, berezitasunak daude enpresa motaren arabera:

- > Enpresa pertsonalak eta enpresa txikiak dira instituzioek sektoreari egindako ekarpena okerren baloratzen dutenak.
- > Sozietate-enpresek eta enpresa handiek hobeto baloratzen dute edonolako agenteren ekarpena, eta konfiantza handiagoa dute.
- > Enpresa guztiek ongi baloratzen dute beren baitako erakundeekiko ekarpena, eta, logikaz, konfiantza gehiago dute haiengan.

Instituzioekiko konfiantza apal hori kezkatzekoa da, eta oso kontuan hartu behar da administrazio publikoaren eta KSI enpresen arteko etorkizuneko harremanak bideratzeko.

13.2 KSIen indarguneak eta ahuleziak



INDARGUNEAK

- > Enpresak etengabe ugartzea.
- > Enplegu-bolumen esanguratsu bat sortzeko gaitasuna.
- > Giza kapitalaren kualifikazioa eta esperientzia.
- > Enpresa izateko asmoa.
- > Norberaren gaitasunekiko konfiantza: pertsonak, erakundeak, produktuak, zerbitzuak.
- > Produktuak eta zerbitzuak sortzeko eta garatzeko berrikuntza-orientazioa.
- > Sektoreko profesionalakiko eta enpresekiko lankidetzak.
- > Kulturaren eta sormen-zerbitzuaren kontsumoa areagotzeko joera.
- > Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako BEGd-aren % 2,2.



AHULEZIAK


- > Sektorearen definizio- eta identifikazio-falta: azpisektoreak, kideak, jarduerak.
- > Barne-artikulazio urria: pertenezia-sentimendua.
- > Barruko eta kanpoko ikusgarritasun-falta.
- > Kultura- eta sormen-jardueren heterogeneotasuna eta orientazio desberdinak.
- > Enpresa-egitura ahula: tamaina eta izaera juridikoa.
- > Bezeroak ugartzeko eta merkatuetara zabaltzeko mugak.
- > Diru-sarrerak areagotzeko oztopoak.
- > Finantzatzeko zailtasunak.
- > Instituzio publikoekiko eta inguruko erakundeekiko konfiantza apala.
- > Sektorearen etorkizunari buruzko zalantza.

13.3 KSlen sektorea zifratan (2012)



ENPRESA-EGITURA

- > 14.859 enpresa
- > 10.054 enpresa pertsonal
- > 3.974 sozietate-enpresa
- > Irabazi asmorik gabeko 831 erakunde



ENPRESEN BATEZ BESTEKO TAMAINA

- > 3,8 langile enpresa bakoitzeko
- > 0,2 langile enpresa bakoitzeko, enpresa pertsonaletan
- > 10,2 langile enpresa bakoitzeko, sozietate-enpresetan
- > 20,8 langile enpresa bakoitzeko, irabazi asmorik gabeko erakundeetan



ENPLEGU-SORRERA

- > Sortutako 71.607 enplegu
- > 10.054 autoenplegu
- > 61.553 soldatapeko enplegu



SORTUTAKO BEGd

- > 1.303,321 milioi euro sortu ditu sektoreak
- > 175,180 milioi euro sortu dituzte enpresa pertsonalek
- > 1.073,719 milioi euro sortu dituzte sozietate-enpresek
- > 54,422 milioi euro sortu dituzte irabazi asmorik gabeko erakundeek



AZPISEKTOREEN GARRANTZIA

> Arte Eszenikoak	536 enpresa	3.176 enplegu
> Ikusizko Arteak	1.118 enpresa	1.857 enplegu
> Ikus-entzunezkoak	906 enpresa	5.092 enplegu
> Diseinua	1.900 enpresa	8.730 enplegu
> Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak	928 enpresa	10.113 enplegu
> Adierazpen Tradizionalak eta Kulturalak	101 enpresa	2.070 enplegu
> Baliabide Berriak	1.788 enpresa	11.722 enplegu
> Sormen Zerbitzuak	6.906 enpresa	24.476 enplegu
> Kultura Guneak	676 enpresa	4.371 enplegu

155



LURRALDEAREN ARABERAKO BANAKETA

> Araba	636 enpresa	6.891 enplegu
> Bizkaia	9.420 enpresa	40.388 enplegu
> Gipuzkoa	4.803 enpresa	24.328 enplegu

13.4

Politika publikoak erabakitzekeo zalantzak

SEKTOREA IDENTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZ

Esperientziak erakutsi digunez, laborategiko diseinuetan egia absolutu direnak, praktikan beste egia batzuen mende daude. Horregatik, laborategiko diseinuek sarritan ez dute balio errealitatea modu egokian eta praktikoan identifikatzeko eta ordenatzeko.

Produkzio-sektoreak sortzearen eta sendotzearen historia bete-bete eginda dago zenbait jarduera motaren kokapen egokiari buruzko gorabeheraz eta zalantzaz. Horren adibide argia da zerbitzuen sektoreko osagaien sorrera eta identifikazioa: hainbat eta hainbat jarduera gehituz joan zaizkio.

Kulturaren eta sormenaren sektorea identifikatzeko eta sailkatzeko azken urteotan egindako proposamenak irizpide defendagarritan bezain zalantzagarritan oinarritu dira. Horri esker, sektorea ikusgarriagoa da, baina jarduera pila bat integratu dira izen beraren barruan.

Txosten hau egiteko erabilitako UNCTAD sailkapena ez da sektore honetan erabiltzen diren beste sailkapenen desberdina, helburu berak ditu eta indar eta ahulezia berak ditu.

UNCTAD sailkapena errealiteratara aplikatzearen argazkiak erakusten duenez, sektorea oso heterogeneoa da, jardueren edukian eta aplikazioan denetik dago, eta nekeza da politika globalak definitzea eta orientatzea. Argazkia lausoa da, bereizmen gutxikoa, eta parte guztiak batzeak ematen duen irudia zaila da ezagutzen.

Aurreneko dilema, beraz, kultura- eta sormen-industriak identifikatzeko eta sailkatzeko ereduak erabakitzea da; hau da, irizpideak finkatzea

jarduerak taldetan banatzeko, eta politika publikoaren gidalerroak moldatu ahal izateko kide guztien ezaugarrietara eta premietara.

Baliteke UNCTADek proposatutako ikuspegi zabala, orokorra eta askotarikoa -edo antzeko sailkapenak- desegokia ez izatea sektore bat identifikatzeko, haren ildoak jarraituz. Era horretan, nazioarteko datuak konparatzeko eta estatistikak egiteko esparru bat dago. Definizio horretan oinarriturik, baina, errealitateak sinplifikazioa eskatzen du, ekintzarako proposamenak eta instituzioen pizgarriak ulertzeko modukoak eta baliagarriak izan daitezkeen KSI enpresentzat.

SEKTOREA EGITURATZEKO ORIENTABIDEEI BURUZ

Sektoreari egituratzen laguntzeko, errealitatea onartu behar da. Hala, soluzioak eskuliburutik hartutakoak soilik direnean -adibidez, enpresen tamaina handitzea, sozietate-enpresak eratzeari gehiegi laguntzea, edo nazioartera zabaltzeko joera sistematikoa eta orokorra hartzea-, neurriak alferrikakoak izan daitezke, eta enpresa gehien-gehienak pertsonalak diren sektore batentzat arrotzak.

Tamainaren egokitasuna aztertzekeo orduan, kontuan hartu behar dira enpresek eskainitako jarduerak, produktuak eta zerbitzuak. Sozietate-enpresak arinagoak eta eraginkorragoak izan daitezke zenbait alderditan, baina ez besteetan. Enpresa pertsonalak ere lehiakorrak izan daitezke gune mugatuetan, baina jasagarriak izatekeo nahikoak.

Geure ustez, aukera horien inguruan zehaztu behar dira sektorea egituratzeko orientabideak. Txosten honek erakusten duen errealitatean,

jarduerak, tamainak, praktikak eta emaitzak oso desberdinak dira. Moltzo horri ezin zaio ezikusia egin, eta ez dirudi egokia denik atalka banatzen saiatzea.

Sektorea konplexua denez, hura egituratzeko orientabideei buruzko dilema sortzen da.

Horretan oinarrituta epaitu behar dira proposatutako orientabideak. Geure iritziz, eta proposamen bakar eta bateratzaileen aurrean, tarteko proposamen ugari daude, eta haixek harmonizatzeko ahalegina egin behar da.

SEKTOREAREN ORIENTABIDE EKONOMIKOAREN ILDOEI BURUZ

Txosten honetan agertzen den sektorean, enpresa sentitzeko, ulertzeko eta egiteko eredu desberdinak daude. Eredu-aniztasun horren ondorioz daude ekonomia, finantza eta merkatu mailako itxaropen eta emaitza desberdinak. Zenbait enpresaren eta jardueraren produktuak eta zerbitzuak errentagarriak izan daitezke tokikoa baino ez den merkatu batean. Beste batzuek zabaldu beharra dute, beren tamainarengatik edo beren jarduerarengatik. Txikia izateak dituen mugak gainditu daitezke klusterizazio-politiken bidez edo estrategia bultzatzaileen bidez. Sozietate-enpresen edo enpresa handien premiak gehiago ase daitezke sareetan integratuz, kanpoko bazkideak hartuz, etab. Kasu batzuetan zein besteetan, programa berezien bidez eman daitezke aholkuak merkatu-aukerei buruz, kanpoko finantzaketa lortzeaz, berrikuntza sustatzeaz edo lankidetzaren areagotzeaz.

Hainbat ekintza konbinatuz lortzen da handitzea sektore baten irabaziak, diru-sarrerak, BEGd edo bestelako adierazleak. Sektorearen

finantzaketari eta orientazio ekonomikoari buruzko problemak ikuspuntu horretatik jorratu behar dira, eta ez norabide eta tankera bakarreko erantzunen bidez. Azkar zabaldu eta irabaziak ahalik eta gehien handitu nahi dituen ikuspuntua ez zaigu gomendagarria iruditzen.

Sektorearen orientazio ekonomikoari buruzko dilemek kontuan hartu behar dute bere buruari eusteko gai izan dela 2007-2012 aldiko urte zailetan, eta ez duela behar, beraz, txoketramendurik. Zalantza eta desoreka gutxitzeko neurriak behar ditu, ziurtasuna eman eta arriskuak murrizten dituztenak.

ENPRESA IZATEKO ASMORIK GABEKO PROIEKTUAK ETA JARDUERAK BULTZATZEKO FORMULAK

Bizi dugun mundu honetan, kulturak eta sormenak gero eta harreman handiagoa dute ekonomiarekin, eta ezin dugu ahaztu gizartearen funtsezko zatiak direla, beren balio sinboliko eta ukiezinarengatik. Aspaldiko urteetatik hona, kontsumoaren logika gizartearen gero eta gune gehiago ari da inbaditzen. Hala, kultura- eta sormen-jardueren guneak gero eta gehiago funtzionatzen du kontsumo-ondasun gisa, eta gutxiago sarrera libreko ondasun gisa. Geure iritziz, administrazio publikoen plan estrategikoen barruan, diskriminazio positiboa erabili behar da.

Kulturaren eta sormenaren filosofia publikoa deituko diogunak lagundu egin behar du kultura- eta sormen-jarduerak zabaltzen eta haiek gizartearen eskura jartzen. Kasu honetan -eta aukerak egitea eskatzen duten ia kasu guztietan-, administrazio publikoek nabarmendu egin beharko lituzkete itzuli beharrik gabeko

diru-laguntzak justifikatzen dituzten helburuak. Instituzioek kultura eta sormena kudeatu behar duten moduaz dagoen dilemari heldu behar zaio, eta behingoz gainditu.

Gure iritziz, kulturaren eta sormenaren filosofia publikoaren ekarpena da ez diola uko eta ezikusia egiten kultura eta sormen gero eta industrializatuagoari, eta guztiz onartzen duela.

13.5 Instituzioen jarduna gidatzeko gomendioak

Geure iritziz, gaurdaino, Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak ez du kulturaren eta sormenaren sektoreari heltzeko estrategia integralik. Ez da harritzekoa, kontuan hartuz kulturaren eta sormenaren jarduerak hartu duen konplexutasuna, eta zein bizkor ari den aldatzen.

Hemen aurkezten den Ekintza Plana bat dator txosten honetan garatutako informazioarekin, jakintzarekin eta azterketarekin.

Geure ustez, sektorea hobeto ezagutzea egon behar du erabakien oinarrian, barne-aniztasuna

aintzat hartuz hartu behar dira erabakiak, eta onartu egin behar dira kultura- eta sormen-jardueren forma hibridoak.

Ekintza Planak lau oinarri ditu: mugatzea, esku hartzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea. Epe labur eta ertainean, lau helburu ditu:

Sektorearen osaera eta identifikazioa definitzeko irizpideak ezartzea

1

Irizpide horien bidez posible izan beharko luke:

- > EAEko kulturaren eta sormenaren sektorea osatzen duten jarduerak definitzea.
- > Jarduerak sailkatzea aurrez ezarritako irizpideen arabera.
- > Kulturaren eta sormenaren filosofia publikoaren edukia eta helburuak formulatzea.

Sektorearen barne-egitura sustatzea

Espezializazio adimentsuan oinarritu beharko luke:

- > Enpresen jarduerara eta tamainara moldatzea.
- > Azpisektore bakoitzean klusterizazio-politikak edo estrategia bultzatzaileak ezartzea.
- > Babes- eta/edo aholku-programak sortzea berrikuntza bultzatzeko, lankidetzaren areagotzeko, merkatuko aukerak aholkatzeko, kanpoko finantzaketa eskuratzeko eta, hala balegokio, nazioartera zabaltzeko.

2

3 Instituzioen eta sektorearen arteko koordinazioa sustatzea

3

Batez ere hiru esparrutan:

- > Eusko Jaurlaritzaren baitan.
- > Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen artean.
- > Eusko Jaurlaritzaren eta sektorearen beraren artean, horretarako berariaz sortutako erakundeen bitartez, hala nola Kulturaren Euskal Behatokia.

Sektorea ikusgai egitea

Helburu honetarako lau ekintza aurreikusi dira:

- > Behin sektorea behar bezala definituta, bere horretan gehitzea EAEko estatistika ofizialari.
- > Sektorearen bilakaera eta garapena neurtuko dituen adierazle-sorta erabakitzea.
- > Kulturaren eta Sormenaren sektorearen jarduerari buruzko urteroko txosten bat sortzea eta hedatzea.
- > EAEko kultura- eta sormen-jardueren Erregistroa sortzea.

4

ERANSKINAK

Grafikoen aurkibidea

>	1. GRAFIKOA: KSI enpresen kopuruaren bilakaera. (2007-2012). Balio absolutua	30
>	2. GRAFIKOA: KSI enpresen kopuruaren bilakaera, izaera juridikoaren arabera (2007-2012). Portzentajea	31
>	3. GRAFIKOA: KSI enpresen kopuruaren bilakaera, unctad kategoriaren arabera (2007-2012). Portzentajea	32
>	4. GRAFIKOA: KSI enpresen kopuruaren eta batez besteko tamainaren bilakaera, izaera juridikoaren arabera (2007-2012). Portzentajea	35
>	5. GRAFIKOA: KSI enpresetan sortutako enplegu osoaren bilakaera (2007-2012). Balio absolutuak	39
>	6. GRAFIKOA: KSI enpresetan sortutako enplegu osoaren bilakaera, enplegu motaren arabera (2007-2012). Portzentajea	40
>	7. GRAFIKOA: KSI enpresetan sortutako enplegu osoaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (2007-2012). Balio absolutua	41
>	8. GRAFIKOA: KSI enpresetan sortutako enplegu osoaren bilakaera, lurralde historikoaren eta enplegu motaren arabera (2007-2012). Portzentajea	42
>	9. GRAFIKOA: sortutako soldatapeko enpleguaren bilakaera, izaera juridikoaren arabera (2007-2012). Portzentajea	45
>	10. GRAFIKOA: ksien sektorean sortutako begd-ren bilakaera (2007-2012). Balio absolutua	48
>	11. GRAFIKOA: euskadin sortutako begd-ren bilakaera (2007-2012). Portzentajea	49
>	12. GRAFIKOA: sortutako begd-ren bilakaera, lurralde historikoen arabera (2007-2012). Portzentajea	50
>	13. GRAFIKOA: sortutako begd-ren bilakaera, izaera juridikoaren arabera (2007-2012). Portzentajea	51
>	14. GRAFIKOA: sortutako begd-ren bilakaera, unctad kategoria motaren arabera (2007-2012). Portzentajea	52
>	15. GRAFIKOA: profesionalekin edo beste erakundeekin lankidetzaz-jarduerak egin dituzten KSI enpresak, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	68
>	16. GRAFIKOA: profesionalekin edo beste erakundeekin lankidetzaz-jarduerak egin dituzten KSI enpresak, unctad kategoriaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	69
>	17. GRAFIKOA: profesionalekiko edo beste erakundeekiko lankidetzaz-jardueren helburuak, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	70
>	18. GRAFIKOA: profesionalekiko edo beste erakundeekiko lankidetzaz-jardueren helburuak, unctad kategoriaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	71
>	19. GRAFIKOA: KSI enpresetako lankidetzaz-bazkideen eremu geografikoa, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	73
>	20. GRAFIKOA: profesionalekin edo erakundeekin berrikuntza-jarduerak egin dituzten KSI enpresak, unctad kategoriaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	81
>	21. GRAFIKOA: berrikuntza-jardueren motak, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	82
>	22. GRAFIKOA: KSI enpresek berrikuntza bat definitzeko eta ezartzeko egindako aukera, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	85

> 23. GRAFIKOA: KSI enpresek berrikuntza bat garatzeko adierazitako zailtasuna, hainbat oztoporen arabera (2012 eta 2013). Batez besteko balioa: 0-7	87
> 24. GRAFIKOA: KSI enpresek berrikuntza bat garatzeko adierazitako zailtasuna, hainbat oztoporen eta enpresaren izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Batez besteko balioa: 0-7	88
> 25. GRAFIKOA: KSI enpresen diru-sarrera garbien estimazioa, izaera juridikoaren arabera (2013). Portzentajea	93
> 26. GRAFIKOA: KSI enpresen diru-sarrera garbien estimazioa, unctad kategoriaren arabera (2013). Portzentajea	94
> 27. GRAFIKOA: KSI enpresen bezeroen eremu geografikoa, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	97
> 28. GRAFIKOA: merkatu berrietara zabaltzeko kanpoko funtsak bilatu dituzten KSI enpresak, izaera juridikoaren eta unctad kategoriaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	99
> 29. GRAFIKOA: merkatu berrietara zabaltzeko kanpoko funtsak lortu dituzten KSI enpresak, izaera juridikoaren eta unctad kategoriaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	100
> 30. GRAFIKOA: KSI enpresek adierazitako zailtasuna merkatu berriak garatzeko, hainbat oztoporen arabera (2012 eta 2013). Batez besteko balioa: 0-7	101
> 31. GRAFIKOA: KSI enpresek adierazitako zailtasuna merkatu berriak garatzeko, hainbat oztoporen eta izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Batez besteko balioa: 0-7	102
> 32. GRAFIKOA: KSI enpresek adierazitako zailtasuna merkatu berriak garatzeko, hainbat oztoporen eta enpresaren tamainaren arabera (2012 eta 2013). Batez besteko balioa: 0-7103	
> 33. GRAFIKOA: kanpoko baliabideak eskuratu dituzten KSI enpresak (2012 eta 2013). Portzentajea	107
> 34. GRAFIKOA: kanpoko baliabideak eskuratu dituzten KSI enpresak, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	108
> 35. GRAFIKOA: kanpoko baliabideak eskuratu dituzten KSI enpresak, UNCTAD kategoriaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	109
> 36. GRAFIKOA: finantza-iturriak eskuratzeko zailtasuna (2012 eta 2013). Batez besteko balioa: 0-7	110
> 37. GRAFIKOA: finantza-iturriak eskuratzeko zailtasuna, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Batez besteko balioa: 0-7	111
> 38. GRAFIKOA: finantza-iturriak eskuratzeko zailtasuna, enpresaren tamainaren arabera (2012 eta 2013). Batez besteko balioa	112
> 39. GRAFIKOA: KSI enpresek bestelako finantza-iturriak eskuratzeko zailtasuna (2012 eta 2013). Batez besteko balioa	113
> 40. GRAFIKOA: KSI enpresek bestelako finantza-iturriak eskuratzeko zailtasuna, enpresaren izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Batez besteko balioa	114
> 41. GRAFIKOA: KSI enpresek bestelako finantza-iturriak eskuratzeko zailtasuna, enpresaren tamainaren arabera (2012 eta 2013). Batez besteko balioa	115
> 42. GRAFIKOA: KSI enpresek jarduerak egiteko zailtasuna (2012 eta 2013). Batez besteko balioa	116
> 43. GRAFIKOA: KSI enpresek jarduerak egiteko zailtasuna, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Batez besteko balioa	117
> 44. GRAFIKOA: KSI enpresek jarduerak egiteko zailtasuna, enpresaren tamainaren arabera (2012 eta 2013). Batez besteko balioa	118

Taulen aurkibidea

> 1. TAULA: KSI enpresen kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (2007-2012). Portzentajea	33
> 2. TAULA: enpresen batez besteko tamainaren bilakaera (2007-2012). Balio absolutua	34
> 3. TAULA: enplegu osoaren bilakaera, enplegu motaren eta UNCTAD kategoriaren arabera (2007-2012). Zenbaki indizeak. Oinarria: 100	43
> 4. TAULA: sortutako soldatapeko enpleguaren bilakaera, izaera juridikoaren arabera (2007-2012). Zenbaki indizea. Oinarria: 100	44
> 5. TAULA: sortutako BEGd osoari egindako ekarpenaren bilakaera, unctad jarduera motaren arabera (2007-2012). Zenbaki indizeak (oinarria: 100)	53
> 6. TAULA: sortutako begd osoa, UNCTAD kategoriaren eta izaera juridikoaren arabera (2012). Portzentajea	54
> 7. TAULA: hainbat adierazleren egoera sozietate-enpresetan (2012). Portzentajea	55
> 8. TAULA: KSI enpresetako emakume langileak, enpresen izaera juridikoaren eta UNCTAD kategoriaren arabera (2014). Portzentajea	60
> 9. TAULA: 30 urtetik beherako langileak ksi enpresetan, enpresen izaera juridikoaren eta UNCTAD kategoriaren arabera (2014). Portzentajea	61
> 10. TAULA: KSI enpresetako langileen prestakuntza maila, enpresen izaera juridikoaren eta UNCTAD kategoriaren arabera (2014). Portzentajea	62
> 11. TAULA: KSI enpresetako langileen esperientzia-maila, enpresen izaera juridikoaren eta UNCTAD kategoriaren arabera (2014). Portzentajea	63
> 12. TAULA: KSI enpresetako prestakuntza-jarduerak, izaera juridikoaren, UNCTAD kategoriaren eta enpresen tamainaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	65
> 13. TAULA: KSI enpresetako lankidetza-bazkideen eremu geografikoa, lurralde historikoaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	72
> 14. TAULA: KSI enpresetako lankidetza-bazkideen eremu geografikoa, UNCTAD kategoriaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	74
> 15. TAULA: KSI enpresek lankidetza-bazkideei buruz adierazitako konfiantza teknikoa, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	75
> 16. TAULA: KSI enpresek lankidetza-bazkideei buruz adierazitako konfiantza teknikoa, UNCTAD kategoriaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	76
> 17. TAULA: profesionalekin edo erakundeekin berrikuntza-jarduerak egin dituzten KSI enpresak, izaera juridikoaren eta lurralde historikoaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	80
> 18. TAULA: berrikuntza-jardueren motak, UNCTAD kategoriaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	83
> 19. TAULA: KSI enpresek berrikuntza bat definitzeko eta ezartzeko egindako aukera, UNCTAD kategoriaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	86
> 20. TAULA: KSI enpresen diru-sarrera garbien estimazioa, enpresaren tamainaren arabera (2013). Portzentajea	94
> 21. TAULA: KSI enpresek produktuak edo zerbitzuak saltzen dizkieten bezeroak, izaera juridikoaren arabera (2013). Portzentajea	95
> 22. TAULA: KSI enpresek produktuak edo zerbitzuak saltzen dizkieten bezeroak, UNCTAD kategoriaren arabera (2013). Portzentajea	96

> 23. TAULA: KSI enpresen bezeroen eremu geografikoa, UNCTAD kategoriaren arabera (2012 eta 2013). Portzentajea	98
> 24. TAULA: KSI enpresek beren kokapenaz duten pertzepzioa (2012 eta 2013). Portzentajea	124
> 25. TAULA: KSI enpresek enpresaren kokapenaz duten pertzepzioa, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	125
> 26. TAULA: KSI enpresek enpresaren kokapenaz duten pertzepzioa, enpresaren tamainaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	126
> 27. TAULA: KSI enpresek enpresaren zailtasunei buruz duten pertzepzioa (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	126
> 28. TAULA: KSI enpresek enpresaren zailtasunei buruz duten pertzepzioa, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	127
> 29. TAULA: KSI enpresek enpresaren zailtasunei buruz duten pertzepzioa, enpresaren tamainaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	128
> 30. TAULA: KSI enpresek beren jardueraren ezaugarriei buruz duten pertzepzioa (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	129
> 31. TAULA: KSI enpresek beren jardueraren ezaugarriei buruz duten pertzepzioa, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	130
> 32. TAULA: KSI enpresek beren zailtasunei buruz duten pertzepzioa, enpresaren tamainaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	133
> 33. TAULA: KSI enpresek instituzioez eta pertsonen duten konfiantza (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	134
> 34. TAULA: KSI enpresek instituzioez, erakundeez eta pertsonen duten konfiantza, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	135
> 35. TAULA: KSI enpresek instituzioez, erakundeez eta pertsonen duten konfiantza, enpresaren tamainaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	136
> 36. TAULA: KSI enpresek instituzioen, erakundeen eta pertsonen ekarpenaz duten balorazioa (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	136
> 37. TAULA: KSI enpresek instituzioen, erakundeen eta pertsonen ekarpenaz egindako balorazioa, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	137
> 38. TAULA: KSI enpresek instituzioen, erakundeen eta pertsonen ekarpenaz egindako balorazioa, enpresaren tamainaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	137
> 39. TAULA: KSI enpresek beren premia batzuez egindako balorazioa (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	138
> 40. TAULA: KSI enpresek beren premia batzuez egindako balorazioa, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	139
> 41. TAULA: KSI enpresek beren premia batzuez egindako balorazioa, enpresaren tamainaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	139
> 42. TAULA: KSI enpresek hobekuntza-lan batzuez egindako balorazioa (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	140
> 43. TAULA: KSI enpresek hobekuntza-lan batzuez egindako balorazioa, izaera juridikoaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	141
> 44. TAULA: KSI enpresek hobekuntza-lan batzuez egindako balorazioa, enpresaren tamainaren arabera (2012 eta 2013). Balio absolutua: 0-7	141

Aipatutako erreferentzia bibliografikoak

- > Europar Batzordea (2010): Libro Verde: liberar el potencial de las industrias culturales y creativas. 27.4.2010. (COM) 2010, Brusela. 183amaieran.
- > DCMS Department for Culture, Media and Sport (1998): Creative industries mapping document. Creative Task Force. Government, U.K.
- > Europar Batzordea (2011): Creative Europe - A new framework programme for the cultural and creative sectors (2014-2020) COM 2011 786/2.
- > Ideas Fudnazioa (2012): Las industrias culturales y creativas. Un sector clave en la nueva economía. Fundaciones Ideas, Madril. 22. orr.
- > Espainiako Gobernu. Kultura Ministerioa. (2011): Plan de Fomento de las Industrias Culturales y Creativas. Secretaría general Técnica, Madril. 8. orr.
- > Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2014): Kultura- eta sormen-industriak: eztabaida teorikoa ikuspegi europarretik. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 5. orr.
- > Higgs, P., Cunningham, S. eta Pagan, J. D. (2007): "Australia's Creative Economy: Basic evidence on size, growth, income eta employment" Technical Report, Faculty Research Office, CCI.
- > Higgs, P., Cunningham, S. y Bakhshi, H. (2008): "Beyond the creative industries: Mapping the creative economy in the United Kingdom". NESTA, Londres.
- > KEA European Affairs (2006): The Economy of Culture in Europe. Report prepared for the European Commission Directorate-General for Education and Culture, Media Group, Brusela.
- > Maiso, J. (2011): "¿Qué significa hoy teoría crítica de la industria cultural?", Constelaciones. Revista de Teoría Crítica 3. zenbakia. 292-314 orrialdeak. 295. orr.
- > Policy Handbook (2012). Working Group of EU Members States Experts, Europar Batasuna.
- > Power, D. (2011): "Priority Sector Report: Creative and Cultural Industries". The European Cluster > Observatory, Europe Innova paper 16. zenbakia. EC. Enterprise and Industry. Europar Batasunaren Argitalpen Bulegoa, 2011ko apirila. Luxenburgo.
- > UNCTAD (Nazio Batuen Merkataritza eta Garapenari buruzko Konferentzia) (2008): Creative Economy Report. NBE. New York.
- > UNESCO (2009): Framework for Cultural Statistics. UNESCO, Estatistika Institutua, Paris.

Kontsultatutako datu-baseak

- > EUSTAT
- > UNCTAD
- > CNAE kodeak
- > Gipuzkoako Foru Aldundia, Ogasun Saila
- > Arabako Foru Aldundia, Ogasun Saila
- > Bizkaiko Foru Aldundia, Ogasun Saila
- > EJZ kodeak
- > Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda: http://eu.eustat.eus/ci_ci/estadisticas/tema_30/opt_1/tipo_7/temas.html#axzz3eTlijfYT
- > DataCentric PDM S.A.: <http://www.datacentric.es/>
- > Infobel: <http://www.infobel.com/es/spain/>
- > Sabi - Bureau van Dijk: <https://sabi.bvdinfo.com/version-2014115/home.serv?product=sabineo>

UNCTAD azpisektoreen osaera

> UNCTAD kategoriak

- > Adierazpen Kultural Tradizionalak: Artisanu-oinetakoak egitea, aire libreko ikuskizunak
- > Kultura Guneak: Arte-galeriak, liburutegiak eta museoak eta bestelako kultura-guneak.
- > Ikusizko Arteak: Pintoreak, eskultoreak, zeramikiariak, argazkilariak eta artelanak zaharbertitzeko lanak
- > Arte Eszenikoak: Argiztapena, musika-tresnak egitea, artisten agenteak, hitz-emaiak eta errejidoak, antzerki-zuzendariak, koreografoak, kantariak, zirkoko artistak, musikariak, umoristak eta dantzariak.
- > Argitalpen eta Baliabide Inprimatuak: Prentsa eta aldizkariak azaleztatzea, argitaratzea eta inprimatzea, eta idazleekin lotutako jarduerak.
- > Ikus-entzunezkoak: Zinema-, telebista- eta bideo-jarduerak. Filmen ekoizpena, bikoizketak, kamera-operadoreak, zinemako filmak banatzea eta saltzea, irrati-difusioko zerbitzuak, soinu-teknikariak, zinema-zuzendariak, aktoreak eta zinemako eta telebistako laguntzaileak.
- > Baliabide Berriak: Informatikariak, informatikako analistak eta programatzaileak
- > Diseinua: Artisanutzakoak ez diren oihalak eta oinetakoak diseinatzea eta egitea, bitxigintza, dekoratzaileak eta barne-diseinatzaileak
- > Sormen Zerbitzuak: Arkitektura eta delinearazioa, eta publizitatearekin, marketinarekin eta harreman publikoekin lotutako jarduerak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco